




NOIZ BUKATZEN DA ARMAIRUA?

**Hernaniko azken 50 urteetako
LGBT memoria ariketa**

1969 – 2019

**Ibai Fresnedo
Egoitz Arbiol Albeniz**



NOIZ BUKATZEN DA ARMAIRUA?

Hernaniko azken 50 urteetako
LGBT memoria ariketa

1969 – 2019



: ARGITARATZAILEA:
: Hernaniko Udala/Berdintasun Arloa
: EGILEAK:
: Egoitz Arbiol Albeniz eta Ibai Fresnedo (Hiruki Larroxa)
: DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
: Jon Aranguren eta Maddi Zumalabe (Asteazkenak)
: INPRIMAKETA:
: Antza Komunikazio Grafikoa
: ISBN: 978-84-122188-2-4
: LG D 00540-2021
: 2021eko maiatza


▼ AURKIBIDEA

HITZAURREA	9
▼ LGBT MEMORIA JOSIZ	15
AURRETIK ERE BAGINEN NOR	17
1970. HAMARKADA: ITZALPEKO IRAULTZA SEXUALA	27
1980. HAMARKADA: PIN, PAN, PUNK!	39
1990. HAMARKADA: EFERBESZENTZIAREN OSTEO BEHERAKADA	59
2000. HAMARKADA: LUBAKIAK EGIN, LUBAKIAK DESEGIN	79
2010. HAMARKADA: HAU AL ZEN ETORKIZUNA?	103
▼ BEGIRADA KOKATUAK	137
HERNANI: IREKITASUNA ETA KONTZIENTZIAZIOA	141
INDARKERIA NONAHI	149
• HETEROARUA	151
• NOLA ULERTZEN DUGU INDARKERIA?	155
LGBTFOBIA: HOMOFBIATIK HARAGO	163
• LESBOFOBIA	167
• GAYFOBIA	176
• BIFOBIA	187
• TRANSFOBIA	192
ARMAIRUA ETA LGBTfobia BARNERATUA	201
ERRESISTENTZIA ANITZAK, IHESBIDE ANITZAK	211
• Biziraupen estrategiak	212
• Erresistentzia-jarrerak eta estrategia politikoak	219
ESKERRAK	225



Disidentzia

sexuallean gogo eta gorputza jarri duten guztiei



HITZAURREA

Aurrean duzun lan honek, 2018ko udan izan zuen hasiera, Hernaniko Udalaren Berdintasun Arlotik eskaria egin zitzaigunean. Eskaria, baina, ez zen ausaz etorri. Urtebete lehenago, 2017ko maiatzaren 17aren bueltan, “Homofobiaren Aurkako Astea” antolatzen aritu ginen Hernaniko hainbat herritar. Taldeak ez zuen aste horrek iraun zuena baino ibilbide luzeagoa izan, baina emankorra izan zen ekintzen zein artikulatu ginen pertsonon aldetik. Eta honen ondorioz-edo, badirudi, udalean, Hernaniko Lesbiana, Gay, Bisexual eta Trans (LGBT) pertsonen inguruko Memoria Historikoaren falta sumatu zela.

Esan bezala, urte bete beranduago, Berdintasun Teknikariak aste hura antolatzen ibilitako batzuei bilera batera deitu gintuen eta, bertan, proposamena egin zitzaigun: *prest zeundekete Hernaniko azken 50 urteetako LGBT Memoria Historikoa bilduko duen ikerketa bat egiteko?*

Batu ginenon artean, sentipen desberdinak egon ziren, baina, artean Hiruki Larroxa sortzen ari ginenon aldetik, zalantza gutxi izan genuen: ikerketa hau egin nahi ge-



nuen. Batetik, herriko historian hutsune bat beteko zuela-koan geunden eta oraino ezagunak ez ziren eta herriaren gertuko historiaren parte ziren pasadizoetan arakatu eta argitara ateratzearen ariketak zirrara eragiten zigun; bestetik, LGBT pertsonon ikusgaitasunean eta aitortzan lagun zezakeen proiektu bat zelako sentipena izan genuen, eta honek eragindako ziurtasun ufada batez, baiezkoa erantzutea erabaki genuen.

Hori, baina, prozesu luze baten hasiera besterik ez zen izan.

Lanaren ertzak marrazte aldera, lehen elkarrizketa bat egin genuen. Lehen elkarrizketa horretan, grabagailua piztu eta Hernani eta LGBT gaien inguruan zekiena konta ziezagun eskatu genion elkarrizketatuari, *zortziko txikian*. Hernani marrazten hasi nahi genuen, mapa baten lehen koordenadak topatu, iparra noruntz egon zitekeen sumatu. Era berean, topa genezakeen bibliografia irakurtzen eta hemeroteka desberdinetan arakatzen hasi ginen. Egon bazegoen nondik tira, eta horren baitako lehen proposamen bat marraztea lortu genuen.

Proiektu batzuk, baina, bere erritmo propioak izaten dituzte. Eta proiektu honek iparrorratz propioa izan du. Elkarrizketak egiten hastearekin bat, hastapenetan marraztutako mapa horrek balio ez zuela konturatzen hasi ginen; elkarrizketatuak, marraztutako bideetatik baino, bide zidor propioak hartzen hasten ziren aurreikusi ga-



beko koordenadetan amaituz.

Bestetik, metodologiak laguntzen ez zuelaz ohartu ginen ere. Hasiera batean, oinarria irakurketa bibliografiakoetan jarri genuen, elkarrizketek lana osatzearen betekizuna izango zutelarik. Lan xumea izango zen, ez oso luzea. Baina hasi eta gutxira, besteek idatzitakoetan (liburu, artikulua zein saiakera) pisu asko jarria genuela ohartu ginen; honek, ez bait zuen herrian gertatutako istorioek zuten ehundura, kolore eta iruditeria anitza islatzen uzten. Honenbestez, elkarrizketatuekin elkartzeko hasi eta gutxira, proiektuak metodologikoki izan beharreko norantza aldatzea erabaki genuen.

Beste zalantza metodologiko batekin topatu ginen osotean. Izan ere, historiografia ariketa batek, metodo zehatz batzuk eskatzen ditu. Eta hor etorri zen gatazka. Zer egin behar genuen? Lesbiana, gay, bisexual eta trans pertsonen Hernanin izandako historia aurkitu? Nola aurkitu daiteke historia idatzirik ez duen subjektu disidenteen multzo baten historia? Hau da, nola aurkitu daiteke erreferentzia, helduleku, erritu eta egitura propiorik apenas dituen disidentzia baten historia? Edo, are gehiago, nola aurkitu historia hori ukatua eta ezabatua izan zaien horien historia?

Eraiki egin behar genuen, beraz. Zegoen horretan begirada jarri eta entzun. Eta arakatu. Eta josi. Horregatik, elkarrizketatuen bizipen eta begiradetara gerturatzen



saiatu ginen, eta honako ariketa proposatu genion gure buruari: Hernaniko hainbat LGBT pertsonekin azken 50 urteetako memorian arakatzea, eta erantzunez gain, galdera gehiago jostea.

Iparorratzak, beraz, egingo genuen memoria ariketa osoaren oinarria elkarrizketatuetan egotera eraman gintuen, eta gure papera, galdetu eta jostearena izango zen. Honela, urtebete inguruko tartean, 17 elkarrizketa egin genituen. Horietako bi izan ezik, elkarrizketa guztiak grabagailuarekin egin genituen, ordu eta erdiko tartean (hiru kasuetan, bi ordu eta erditik gora egon ginen elkarrizketatuekin), eta guztietan, hamarkada bakoitzera egokitutako oinarritzko gidoi bat jarraitu genuen, ondoren, bakoitzak bere bidezidorra egin zezan.

Garrantzitsua da esatea, elkarrizketatu bakoitzak bere bizipenetik hitz egin zuela, bai eta eskertzekoa izan zela guztiek gure galderak erantzuteko izan zuten prestutasuna eta eskuzabaltasuna. Liburuan zehar bakoitzak bere buruari emandako izenez agertuko zirela hitz eman genien, eta hala topatuko dituzue, bakoitzak aukeratutako izendapenarekin. Horregatik, ez larritu batzuetan izen-abizenak eta besteetan izen bakar bat topatzen baduzue.

Egituraketari dagokionez, aipatzea, ariketak berak baldintzatu duen zerbait izan dela. Lehen atalean, Hernanin hamarkadaz-hamarkada bizi izan direnen bizipen eta pasadizoak kontatzen dira. Bigarrenean, berriz, elkarriz-



ketatuek gai batzuen inguruan izan dituzten hausnarke-
ta eta begirada orokorrak biltzen ditugu.

Esan beharra dugu, lan prozesuan zehar topatzen joan
garen bizipen askoren osaketa egiteko gogo ez zaigula
falta izan, baina muga bat jarri behar izan diogu lanaren
tamainari. Beraz, hemen aurkezten den memoria ariketa
honetan, tamalez, ezin izan ditugu Hernaniko sexu eta
genero disidentziaren banako guztien hitzak bildu, ezta
eman diren dinamika eta ekimen guztien jasoketa egin
ere.

Halere, arestian aipatu hutsuneak osatze aldera, lan
honek aurrerantzean ikerketak zein memoria ariketak
egiten jarraitzeko gogoak piztea eta gure LGBT historian
arakatzeko grinari leku egitea espero dugu.

Hernanin, 2021eko otsailaren 10a
Egoitz Arbiol Albeniz eta Ibai Fresnedo

Hiruki Larroxa





▼ LGBT
MEMORIA
JOSIZ



AURRETIK ERE BAGINEN NOR

Norabait joko badugu, gerra osteko garai batera joko dugu. Bigarren Mundu Gerrak mapa berri bat sortua zuen, eta mendebaldeko Europako eta Ipar Ameriketako demokrazia kapitalistak indar betean ari ziren bertako herrialdeetan kontsumoaren adreiluak bata bestearen gainean jarritz ongizate estatuen politikak garatzen. Garai berean kokatu behar ditugu Giza Eskubideen Karta (1948). Gerraostean garatu ziren diskurtso eta praktikek ez zituzten langile, eta batez ere, gazteen eskaerak jasotzen, eta su txikian berotzen zihoan ondoezak, goia jo zuen Parisko 68ko maiatzean. Urtebete eskas berandua-go, 1969ko ekainaren 28an, New Yorkeko polizia enegarren sarekada egitera joan zen Stonewall Inn tabernara. Jendearen nekea eta amorrua ordurako bat eginda zeuden eta Sylvia Rivera eta Marsha P. Johnson trabesti eta puta arrazializatuek poliziaren aurka botatako adreiluek, LGBT borrokaren txinparta piztu eta sexu askapenaren aldeko borrokari hasiera eman zioten.

Euskal Herrian, baina, garaiak beste kolore bat zuen.



Espainiako Gerra Zibilak, lehendik oker zeudenak (langileen eskubideen urraketa, emakumeen askatasun eza, moral judu-kristaua...), are gehiago muturreratu zituen, eta honen hondarrean, irabazteke zeuden eskubide sozial eta zibilak bide bazterretan lurperatu ziren. Hala ere, bizitzak badu, guztiaren gainetik, aurrera egiteko joera bat.

Hernani, 1940ko hamarkadan, ozta - ozta pasatzen zen 7.000 biztanletatik. Baina, hogeitaz urteren buruan, demografia bikoiztu egin zen Espainiar estatutik migratutako langile, batik - bat, andaluziar eta extremadurarren ondorioz. Garai honetan jaio ziren gure lehen bi lekukoak ere: Maria del Carmen Pineda -hemendik aurrera Karmela- (1941) eta Miren Clemente (1943).

Miren, argi hasten da hitz egiten: “Gerra Zibiletik gentozen. Gizonak, borrokara joanak ziren, baina benetan borrokatu zutenak emakumeak ziren. Hemen geratzen zen guztiarekin”. Historiak, baina, ez die errelatu handietan emakumeei lekurik egiten. “Ondoren, nork eramaten ditu ohoreak? Gizonek, borrokatzen zutenak zirelako. Irabazi egin zuten, galdu egin zuten, hil egin ziren edo kartzelaratuak izan ziren... baina 4 - 5 umerekin etxean gelditzen zena ez zuen meritu publikorik, haiek izan zirenean lapurtzera, ikatz bila edo Auxilio Social¹-a eskatzera joan behar zirenak eta familia aurrera atera. Nola egin zenezakeen?”.

□ 1 Arrazionamendu kartila, zeinaren bitartez kopuru mugatuko elikagaiak eskatu zenitzakeen



Familia aurrera eramatearen pisua emakumeek zuten. Baina, nolakoa zen, artean, nerabe ziren emakumeen egunerokotasuna? “14 urterekin hasten ginen lanean, eta gure lana egiten erakusten zigutenak, gu baino zaharra-goak ziren. Askotan, nobioetaz hitz egiten zuten, eta txisteak eta bromak egiten zituzten horren inguruan. Guk, sexualitatearen kontua, txutxu-mutxuen bidez ikasten genuen, txiste txarren bitartez. Sexualitatea, tabua zen”.

Harreman sexualak garatzeko zailtasunaz aritu gara mintzatzen: “Oso zaila zen harreman sexual bat garatzea, zeren mutilak alde batetik zeuden, eta neskak bestetik: eskolan, katekesian, jolas guztietan... Dena. Emakumeak ez ginen tabernetan sartzen, ezta gutxiagorik ere; ezta kafe bat hartzera ere. Lantokian ere gizonak eta emakumeak banatuak geunden”. Ostegunetan, dantzaldia egiten omen zen, eta bertan ikusitako jokaldiak hurrengo egunean elkar kontatzetik ere ikasten zuten. “Baina halore, esaten dizuedan bezala, txiste morbosoa eta lizunetatik ikasten genuen”.

Bikote heterosexualen kasuan, harreman sexualak hertsia baziren, zaila egiten zaigu garaiko gay eta lesbiana izan zitzaketen aukera sexualen inguruan gutxi asko imajinatzea. Emakume eta gizon homosexualak inoiz ezagutu ote zituen galdetu diogu: “Batera bizi ziren emakumeen kasuak ezagutzen genituen, eta pentsatzen genuen edo bikote zirela edo oso – oso lagunak; aldiz,



ez ditut batera bizi ziren gizonezkoak ezagutzen. Halere, gizon batzuen inguruan hitz egiten zen, ‘hori marika da’ edo ‘marikoi bat da, zeren bere *manerak*...’, esaldi tipikoa, ez?”.

Azken honen inguruan, *manerak* aipatu ostean, jostun baten kasua etorri zaio burura: “Urumea kalean (egungo Andre kalean) bazegoen K. izeneko jostun bat, eta berak Plaza Berriko jostun batentzat josten zuen; bada hartaz esaten zen, bazituela *manerak*”. *Manerak*, luma izendatzeko beste era bat da. Luma, gizon batek adierazteko keinu edo manera estereotipikoki femeninoak erabiltzen dituela izendatzeko erabiltzen da.

Emakume lesbianen hariari tiraka segi dugu. Hemen bi elementu elkargurutzatzen dira. Batetik, Mirenek aipatzen duen genero araberako banaketa ematen da. Eta bestetik, emakume lesbianen ikusezintasuna. Izan ere, bi emakume batera ikusten baziren edo batera bizi zirela jakiten bazen, haien arteko harremana laguntasun estu moduan ikusten zen. Eta honek, hainbat ondorio zituen: emakume lesbianak, hain zuzen, ikusezin ziren, eta honek, erreferentzia eskasia sortzen zuen beste emakume lesbianekiko. Eta aldi berean, ikusezintasun honek, jendartearen indarkeria jasotzearen ikuspegitik, gizon homosexualek bizitakoak baino baldintza mesedegarriagoak sortzen zituela emakume lesbianentzat.

Hark, hala esan digu: “Bai, normalagoa zen lagunak zi-



ren neskak elkarrekin bizitzea. Nik lagunak ziren muti-lak elkarrekin bizitzea ez dut ezagutu, ezta gizonezkoa bakarrik bizitzea eta etxeko lanak berak bakarrik egitea ere; orduan, bi emakumezko batera bizitzeak ez zizun atentziorik ere deitzen”. Halere, gaineratzen du, bera nerabe zen garaian txutxu-mutxuak zirela, batik bat, lesbiana eta gayen inguruan esaten zirenak.

Garaiko gizon gayen inguruan ere, ez du informazio handirik. Baina, arestian aipatu dugun Espainiar nekazal ingurutik industria gunetaranzko migrazioak eragindako fenomenoaren harira, gogoan du honako hau: “Apopilotza asko zegoen. Normalean ahal zuten emakumeek, diru apur bat ateratzeko asmoz, haien etxeko gela libreak banaka alokatzen zituzten. Hernanin askok egiten zuten hori. Eta ‘pupilo’ edo ‘apopilo’ deitzen zitzaaien Estatutik (Andaluzia, Extremadura...) lanera zetozen gizonei. Normalean, aita etortzen zen bere seme zaharrenarekin. Eta apopiloen inguruan ere, herrian entzuten zen eta hitz egiten zen bada askotan alokairu hutsetik haratagoko gauzak gertatuko zirela. Kolean, behintzat, harreman intimoak zituztela entzuna dut nik”.

Amaitzen ari garela, akorduan dituen pasadizo asko pirlatzen hasi zaizkio. “Egon, bazeuden gayak, lesbianak... Gogoan dut, ni jada heldutzen ari nintzela, egon zirela batzuk. Adibidez, J.S, arropa denda bat zuena Andre kolean; eta baita J. ere, hau uste dut rugby taldearen sorre-



ran egon zela. Eta baita E. P. ere. Baina bi hauek, hemen-
dik alde egin zuten haien bizitza egiteko”. Aurrerantzean
behin baino gehiagotan aterako den gaia izango da, nor-
berak bere bizitza era askeagoan eta herri batek suposa
dezakeen hertsagarritasunetik at bizitzeko kanpora jo-
tzearena: sexiliora. Eta gure usteak nolabait baieztatuz,
honakoa gehitzen du Mirenek: “Herri txikietan, uste dut,
garai haietan oso gatazkatsua izan behar zela gay edo les-
biana izatea”.

Karmelarekin jarraitu nahi izan dugu pertsona zeha-
tzen inguruko informazioan sakontzen. Eta, guk hala
eskatu gabe, Mirenek aipatzen dituen batzuen inguruan
memoria egiten hasi da.

“Bera, txikitatik beti jolastu zen mutilekin. Beti nahi zi-
tuen galtzak jarri, eta orain normala da baino orduan ez.
Etxean beti oso maitagarria zen. Ausarta, pixka bat bihu-
rria eta bihotz onekoa”. Empar Pinedaz ari da Karmela,
bere ahizpaz. “Badakizu nor den, ez? Amparo! Beno, guk
etxean, betidanik Amparito deitu izan diogu, baina kan-
pora joan zenean, Madrilera eta gero Bartzelonara, jendea
Empar deitzen hasi zitzaion, eta horrekin geratu geratu
zen. Halere, etxera etortzen denean, guretzat beti da Am-
parito”.

Empar Pineda, estatu mailan ezaguna den militante
lesbiana eta feminista da. Gazte garaitik Francoren dik-
taduraren aurka lanean aritua, mugimendu komunistan,



eta ondoren, Espainiako mugimendu feminista eta lesbianaren hastapenetan korapilatua, emakume eta lesbianen eskubideen aldeko borroka sutuan. Hernanin sortua eta hazia, oso gazte Madriler a ikastera joana eta ordutik, Madril en lehenengo eta Bartzelonan ondoren, lanean diharduen emakumea da Empar. Kattalin Minerrek bere inguruan idatzi duen *Gorputzak hala eskatua* (2020) liburu-ra jo dugu haren haurtzaro eta gaztaroaren informazio gehiagoren bila.

Liburuko pasarte batean, honakoa kontatzen dio Mine-
rri ea mari-mutila zen galdetuta: “Bai, bai, noski! Pentsa,
“mataderiaren” atzean jolasten genuenean, ba ez dakit,
orduan ohikoak ziren jolasetara, familietara, medikueta-
ra... ni beti medikua nintzen, edo aita. Gero gogoan dut
banuela lagun talde edo kuadrilla bat, denak mutilak zi-
renak eta ez dakizu nolako mari-mandona nintzen! Eta
gainera, aita zinegotzia nuenez, dena nirea zen! Leokako
iturria? Nirea. Labaderoa? Nirea. Den-dena. Eta *a raya* ni-
tuen, ez dakizu zer *a raya*! Horregatik diotsut ondo nera-
mala”¹. Beste pasarte batean, honela jarraitzen du: “Nik
oroitzapen oso onak ditut haurtzaroaz, bai horixe. Gu
mataderia atzean bizi ginen, aita *tratantea* zen eta, gainera,
harategiko haragia antolatzen zuen; beraz, haurtzaroa ze-
rri eta behiak nola ekartzen zituzten ikusten pasa nuen”.

□ 1 Empar Pineda Erdozia. *Gorputzak hala eskatua*. Miner, Kattalin.
2020



Lesbiana izatearen inguruan haurtzaroan zuen pertzepzioaz ere hitz egiten du une batean: “Nik oroitzen dut, eskolara nindoanean, alemanetara, beti zegoela neskaren bat gustuko nuena, berekin egon nahi izaten nuela... Baina izenik jarri ezin nionez, ez nuen gaizki bizitzen”.

Karmelarekin dugun solasaldira itzuliz, bere gaztaroko garaiak ekartzen ditu gogora, eta J. S.-ren inguruan bukatu dugu solasean. Bera, Andre kaleko goialdean arropa denda zuen gizona zen, eta hala egin zuen tratua berekin. Bezeroekin tratu gogor samarrekoa zen arren, berekin harreman ona sortua zuela aitortzen digu.

Garaiko pentsamolde homofoboaz hitz egiten digu ondoko pasadizo honetan: “gogoratzen naiz behin joan ginela lagun genituen Donostiko mutil koadrila batekin Aranora bizikletaz. Eta han, bazkaltzen ari ginela, J.S.-ren inguruan burla moduan esan zutela ‘*Uli, ese, que es un invertido*’, eta nik esan nien ‘*¿Qué sabéis vosotros! ¡Dejadle en paz!*’. Garai hartan, hala esaten zitzaaien gizon homosexualei: *invertido*”. Haren inguruan herrian hitz egiten zela aipatzen digu, eta berak babestu izan zuela.

J.S. haur zela adoptatu egin zuten, baina berak ez omen zekien adoptatua izan zela. Bere familiak mertzeria bat zuen kale nagusian, eta bertan hasi zen gazte lanean. Une batean, apaiz izatea erabaki zuen, baina ez zuen elizaren baimenik lortu. Karmelak dioenez, bi arrazoi egon ziren apaiz ezin sartu izanaren atzean: batetik, manerak, eta



bestetik, adoptatuak ezin zirela apaiz izan. Orduantxe jakin omen zuen berak adoptatua zela.

Gerora, berak, bere denda zabaldu zuen Andrekaleko goialdean. “Oso gustu onekoa zen J.S., bere arropa dendan ikusten zenez. Emakumeentzat era guztietako arropa zegoen: soinekoak, txaketa oso dotoreak... eta nik soinekoak erosten nituen bertan. Esan dizuet, jenio oso txarrekoa zela, eta dendan ere batzuetan haserretzen zen, baina gurekin oso atsegina izan zen beti”.

Ondoren, Atxurrek kontatuko digunez, J.S. eta bere bikotea izan ziren Hernaniko lehen gay bikote publikoa. Baina horretarako, hamarkada batzuk egin beharko ditugu aurrera.





1970. HAMARKADA: ITZALPEKO IRAULTZA SEXUALA

Mendebaldeko herrialde gehienetan, jendearen aldaketa gosea areagotuz zihoan. AEBetako herri mugimenduak Vietnamgo gerraren eta herrialdearen politika imperialistaren aurka altxatzen hasi ziren, pazifismoaren ideia errotuz. Era berean, bertako Pantera Beltzak, zapalkuntza arrazistaren aurka eta jendarte sozialista baten alde antolatu eta kontraerasoan hasiak zirenez, 1970. urterako hedapen oso esanguratsua zuten herrialdeko estatu guztietan zehar. Hego amerikako kasuan, bozen bitartez eratutako gobernu demokratiko asko diktadurak zapaldu zituen, Bolivia, Paraguay, Argentina eta Txile kasu, eta berauetan, ekonomia esperimentu desberdinak garatu zituzten, aberastasunaren birbanaketa eta askatasun sozial desberdinak eskatzen zituen talde eta banako oro zapalduz eta ezabatuz.

Testuinguru nahasi honetan egin zen New Yorken lehen harrotasunaren eguneko manifestazioa: 1970eko ekainaren 28a zen. LGBT mugimendu batez hitz egin ba-



dezakegu, mugimendu anitz batez hitz egingo dugu, zeinetan eztabaidak, hausnarketak, elkarren arteko talkak eta, lantzean behin, kontsentsuak egon ziren. Ez zegoen borroka bat eta bakarra, ez bait zen mugimendu uniforme bat. Mundu guztiz heterosexual eta bortitz baten aurrean estrategikoki antolatu eta ofentsibara pasatzen zen mugimendu heterogeneo bat baizik. “*Accion Travesti Callejera Revolucionaria. Supervivencia, revuelta y lucha trans antagonista*” (2015) liburuko pasarte batean, Sylvia Rivera prostituta trans¹ eta latinak aipatu dugun manifestazio horren amaieran botatako hitzak jasotzen dira.

LGBT borrokan ematen hasia zen gatazka bati erreferentzia egin nahi izan zion, hain zuzen, gizon zis², homosexual eta zurien alde ematen zen ikusgaitasunarena eta hauek pilatzen zuten boterearena. Eta Sylviak, haserre, matxinada hasi zuten lehen harrikada horien subjektuak lehen lerrora ekarri zituen: “Oroitzen zarete Stonewall-eko matxinadaz? Lehen harria ahizpa trabesti batek jaurtia izan zen ekainaren 28 hartan, eta honela jaio zen gay³ askapen mugimendua. Gogoratu trabestiak eta kalean bizi den gay jendea beti dagoela lehen lerroan, haien bizitza mugimenduaren alde emateko”.

□ 1 Trans pertsona bat, jaiotzerakoan esleitu zaion generoa ez beste batekin identifikatzen den pertsona da.

□ 2 Zis pertsona bat, jaiotzerakoan esleitu zaion generoarekin identifikatzen den pertsona bat da.

□ 3 Kasu honetan, *gay*, ingelesezko testuinguruan erabiltzen den eran ulertzen da, *gay* esaten denean LGBT pertsonak oro har izendatuz.



Hamarkada honetan, mendebaldeko jendartea iraultza sexualaren puntu gorenean zegoen. Aurreko hamarkadan sexualitateari zegokion irekitasun bat ematen hasi zen. Eta horretan, ziurrenik, pisu handia izan zuen 1960 urtean AEBetan pilula antisorgailua sortu izanak: erreprodukzioa eta sexualitatearen arteko katea askatu zen. Honela, 70.hamarkadan familiaren erreprodukzioan oinarritutako arau heterosexualak indarrean jarraitzen zuen arren, sexualitatearen ikuspegi askeagoak leku egiten hasi ziren. AEBetako talde feminista askok, jendarte puritano eta katolikoaren aginduak jarri zituzten zalantzan: emakumeak burujabeak zirela aldarrikatzen hasi ziren, abortuaren aldeko planteamenduak jarri ziren mahai gainean, harreman ireki eta ez monogamoen inguruko hausnarketak egiten hasi ziren, erotismoaren indarraren inguruan eztabaidak ematen ziren... Nolabait, gorputzak leku sinbolikoa hartu zuen eta esperimentazio eta pertsonon autodeterminaziorako borrokarako gudu-zelai bihurtu zen.

Espainiako testuingurua, oso bestelakoa zen. Frankismoaren amaiera gainean zegoen eta disidentziak diktadorekin amaitzera bideratuko zuen indarra handia zen. Guztia zegoen irabazteko, suntsitzeko, eta 1975eko Francoren heriotza ostean, guztia eraikitzeko. 1977an, Bartzelonako Rambletan gora abiatu zen Bartzelonako Harrotasunaren Eguneko lehen manifestazioa. Ekaina-



ren 26a zen. Lehen lerroan, gayak, lesbianak eta trabestiak; aurrean, grisak. Eta azken hauen atzean, heterosexualitatea.

Euskal Herrira etorritz, diktaduraren aurkako herri mugimenduek, kulturgintzako eragileek eta nazio askapenaren aldekoek gorakada handia izan zuten. 1975eko Francoren heriotzaren ostean, urak baretzetik urrun, Espainiar estatuko trantsizio demokratikorako prozesuak Euskal Herriarekiko eta bertako eskaerekiko egin zituen ezikusiek, giroa gaiztotzera eraman zuen. Hala, mobilizazioen kopuruak gora egin zuen: langileenak, euskara eta euskal kulturaren aldekoak, presoan amnistiaren aldekoak, ekologistak... Estatua eta haren errepresio indarrak, mugimendu hauek denak zapaltzeko ariketetan tematu ziren. Kasu esanguratsuak izan ziren 1976ko martxoaren 3an Gasteizen langileek deitutako greba orokorrean poliziak tiroz akabatutako 5 langile eta zauritutako ehundik gorakoen kasua; edo 1979an, ekainaren 3an Tuteran izandako energia nuklearren aurkako protestan eraildako Gladys del Estal donostiarraren, edo astebate beranduago, ekainaren 10eko gauean, Espainiako polizia nazionalak buruan tiro bat emanez akabatutako Vicente Vadillo, *Francis*, trabesti oreretarraren kasuak.

Hernanin, giroa ere borborka ari zen, aldaketa sozialek ere lekua hartzen ari baitziren. Baina, erregimen sexualari dagokionez, gauzak bere horretan jarraitzen zuen. Ez



aldaketarik eman ez zelako, trantsizio soziala eta sexualitatearen ikuspegia aldatzeko trantsizioa oso erritmo desberdinean zihoazelako baizik. Hala esan digu Mirenek: “Zuk imajina ezazu, nire ahizpek, Franco hil zenean, aldaezina zen bizi estilo eta ikuspegi bat zuten sexualitateari dagokionez. Oso erreakzionarioak izan dira beti gai honetan”.

Garaiaren inguruko testuinguruan gehiago sakontzen lagunduko digute Ixiar Pagoagak (1951), Mila Kintanak (1956), Atxurrek (1961) eta Pilar Mendibil, “Pilon”-ek (1965).

Guztiak, hitz egiteko gogoz topatu ditugu. Ixiar, jaioz mutrikuarra izanda ere, 70.hamarkada erdi inguruan Hernanira etorri zen lanera, irakasle. Mila eta Atxur, hernaniarrak biak, garai berdinen inguruko ikuspegia osatuko digute. Pilon, donostiarra, Hernanirekin harreman zuzena izan du azken 30 urteetan. Beraiekin gaurkoez eta atzokoez hitz egiteko aukera izan dugu, zertzelada xehez. Guztiek asko baitute esateko.

Ixiar Pagoagak akorduan du, lehenengo Donostian aritu zela lanean, ostean Eibarren eta azkenik Hernanin amaitu zuela. “Beno, ba Hernani irekiena!”. Honek ez gaitzala optimismora eraman; guztietan irekiena izanaren baina halere herri ez oso irekia izatearen tonuan aipatzen baitu. Hernanin, nazio gatazka politikoak eragindako borroka armatuaren gaiak guztiari itzal egitea du akorduan: “Gai-



nera oso matxistak ziren. Nik ezagutu ditut dokumentu batzuk non agertzen zen emakumearen funtzioa zein zen. Eta homosexualitatea okurritu ere ez". Nazio gatazkaren bueltan ari ziren taldeen giro bortizki maskulinoa du gogoan: "Homosexualitatea, giro horretan, ezin zen ezta planteatu ere egin. '*Macho - macho*' ez baldin bazen, ez zen kabitzen". Zer esan emakumeak.

Atxurrek dituen lehen oroitzapenak, eskolakoak dira. Dioenez, orain luma badu, txikitan gehiago zuen: "Eta inoiz ez dut jasan izan jazarpenik, eta bakoitza hori ginel... Nire gelan geunden guztiak estatus desberdinekoak ginen: nire gurasoek taberna zuten, bestearen gurasoek okindegia, beste baten aitak Orbegozon egiten zuen lan... Ulertzen didazu, ez? Ez ginela denak *clase obrera*, baizik eta denak nahastuak ginela".

Pilonek, bide beretik, honakoa kontatzen digu bere haurtzaroaren inguruan: "Niretzako lesbiana izatea ez zen aparteko traumarik izan. Ni ez naiz ume "maskulino" bat izan, oso neska zintzoa nintzen, '*una rubia con los vestidos que le ponía su madre*'... berdin zitzaidan. Nik musika instrumentuak jotzen nituen, eta kontserbatorioan beste mundu batean bizi nintzen. Lesbiana izatearen kontzientzia izan nuenean, eta hori Mugimendu Feministari zor diot, horrek eraman ninduen beste modu batean bizitzera. Gero, nire inguruan beti jakin izan den zerbait lesbiana nintzela izan da".



Arestian aipatu bezala, garai honetan iraultza sexualaren kontua pil-pilean dago. Pagoagaren hitzak honakoa dira: “Oso, oso, oso garrantzitsua izan zen *hirurogehi eta hamapikuan* sexualitatea bizitzeko era, eta antikonzeptiboei, pildorei, beldurra kentzea sexualitateaz eta gure gorputzaz gozatu ahal izateko, horren gaineko kontrola izatea. Madrilen nengoenean (iraultza sexualean!) pilula klandestinitatean lortzen genuen”. Pilula antisorgailua, 1960an sortu zen arren, Espainiar estatuan ez zen 1978. urterara arte legeztatu. Halere, 1964. urtetik, klandestinitatean zabaldua zegoen honen erabilpena, menstruaizioa erregulatzeko botika moduan. “Gero ere hemen bagenituen pastillak ematen zizkiguten ginekologo pare bat”. Berak oso argi du: “Guk publikoki hitz egiten genuen gai horietaz eta jendeak orokorrean sexualitatea oso modu intimo eta pertsonalean ulertzen zuen”.

Abortuaren gaiak Hernanin izan zuen ibilbidea 70. hamarkada amaieran hasi zela gogoratzen du Milak: “1978 edo 1979. urtea izango zen”. Bera, garai hartan Iruñean ari zen ikasten, baina Hernanin, Iruñean ez bezala, gaia lantzeke zegoela jakitun, eta Euskadiko Mugimendu Komunistako (EMK) emakumeen proposamenetik abiatuz, Hernanin ekintza bat egitera animatu zirela kontatu digu: “Abortuaren kontua pil - pilean zegoen. Iruñean asko ari zen aurreratzen, baina Hernanin borroka has-tapenetan zegoen. Eta EMKko emakumeek egin ziguten



proposamenari helduz, Hernaniko udaletxean doako abortu librearen alde itxialdia egingo zela erabaki zen, *“Las mujeres parimos, las mujeres decidimos”* lemapean. Ostiral gauetik larunbat eguerdira arte izan zen itxialdia, eta amaieran manifestazioa egin genuen”. Itxialdian 25 - 28 emakume egon omen ziren, udaleko pleno aretoa haienganatuz asteburu osoz.

Manifestaldian izandako esperientziagatik galdetu diogu, eta honela jarraitu du: “Ez ginen emakume asko egon manifestazioan, itxialdikoak, eta agian, baten bat gehiago. Eta parte zaharreko tabernen aurretik pasatzerakoan, oroitzen dut, jendeak garrasi egiten zigula *“putas”, “feas”, “tortilleras”, “camioneras”, “hijas de puta”*... Han zeuden gehienak eta garrasika ari zitzaizkigunak gizonak ziren; eta hauen emazteek ez baziguten ezer esan ere, gaizki begiratzen gintuzten”.

Esperientzia hura elkarrizketara ekartzea, ariketa zaila egiten ari zaio. “Oso gogorra izan zen guzti horrekin topatzea; nik uste nuen, abortatzen zuten emakumeen aldeko jarrera zabalagoa izango zela, zerbait ona egiten ari ginela... Baina kontrakoa jaso genuen. Indarkeria polizia-lik jaso ez genuen arren, eta udala arazo berezirik izan ez genuen arren, herriaren erantzun horrek etsipen handia sorrarazi zigun”. Pausaldi txiki bat egiten du, eta tristura apur batez amaitu: “Hau izan zen Hernanin egin zen abortuaren aldeko lehen manifestazioa”.



Atxurrek, garaiaz, beste aldarte batez hitz egiten digu. Garai horretan gazteagoa zen, eta orduan konturatu zen gizonak zituela gustuko: “Gaztez, bai. Konturatu nintzen, argazkiak ikusten nituenean gizonezkoei gehiago begiratzen niela emakumezkoei baino, eta hortaz, argi asko”. Bere herriko bizitza normaltasunez eramane zuela ere aipatzen du, hau da, bazterreko sexualitate bat izatearen kontzientziaz, eta aldi berean, bere bizitza ahal zen neurrian normaltasunez eramaten. Bere gurasoen tabernan lan egiten zuen, eta ondoren, ahal zuenean, irabazitako sosak Donostian hamarkada amaieran zeuden *anbienteko*¹ tabernetan xahutzen zituen.

“18 urte inguru nituela, Ekos Pub-era joaten ginen, eta hura itxi eta Donostiko tabernetara joaten ginen. Donostian, San Martin kaleko Txirulara joaten ginen, baita Mirakontxaco aldapako Crystal dantzalekura ere. Eta gogoratzen naiz Ku diskotekan bukatzen genuela, orduan zela *lo más*. Igeldon zegoen hori”.

La Cuesta del Culo edo *Cuesta* deitzen zitzaion 70. eta 90. hamarkada artean Donostiako Mirakontxako aldapari zein bertan zeuden taberna inguruari. Pilonek aipatzen duenez ongi gogoratzen ditu *Cuesta*-n pasatako garaiak: “Gu *Cuesta*-n eta Donostiako beste taberna batzuetan mugitzen ginen; eta ez bakarrik Donostiako lesbianak, herrietan bizi ziren lesbianak ere bai”.

□ 1 *Anbientea* esaten zaio gay, lesbiana eta transak batzen diren espazioetan sortzen den giroari.



Atxurrek, *Cuesta*-ren inguruko argazki zehatzagoa egiten digu: “Urte onenak izan ziren. Garai hartan ibiltzen nintzen Mirakontxa eta inguru hartan, eta bueno... Gogoratzen naiz, nahiz eta taberna homosexualetan ibili, hura erabateko nahasketa zela: homosexualak, lesbianak, heterosexualak, denetatik. Eta izugarrizko askatasuna zegoela sentitzen nuen. Are gehiago, Franco bizi zenean ere Mirakontxa irekia zegoen, eta han denetatik mugitzen zen. Hori askotan entzun izan dudan zerbait da: Franco bizi zenean ere, Donostia punteroa zela LGBT gaietan”. Une batean, era lausoan bada ere, aipatzen du Franco hil zen egunean *Cuesta*-k irekia jarraitu zuela, eta hortik aurrera, gehiagora joan zela bertan sentitu zenezakeen askatasun sexualaren sentipena.

Donostiako *Cuesta*-n zein hirian zehar zeuden anbigenteko tabernak, asko zirela aipatu du behin eta berriro: Resaka, Crystal, Valentino, Guarijai, Isla, Txirula, Master, Ku, La Malmeson, Bataplan... Eta horietako batzuetan, ikuskizunak ere egiten ziren: “R.F. zen bere lokalean trabestien ikuskizunak egiten zituen. Masterren ere ‘*Jueves de mujer*’ antolatzen zen, eta lokala apaindu eta gizonezkoak emakumez janzten ziren. Eta Islan, adibidez, bideo pornoak jartzen zituzten eta gela iluna ere bazegoen”.

Garai berean ezagutzen ditu Atxurrek J.S. eta A.J. “Egun batean, tipo oso interesgarri bat ezagutu nuen herrian. Beno, A.J. eta J.S. bikote ziren, eta azken honek



arropa denda bat zuen. Nik batez ere A.J.-rekin izan nuen harremana, eta berarekin joaten nintzen Donostiara parrandan. Esango nuke, izan zirela Hernaniko lehenengo gay bikotea batera bizitzen jarri zirenak eta publikoak zirenak. Oroitzen dut A.J.-k kanpoan lan egiten zuela, eta itzultzen zenean, etxean gauzak utzi ostean, bere bikotearen dendara joaten zela, zuen planta dotore horrekin”.

Garai berean sortu zen EHGAM, Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua. 1977an izan zen eta Atxur zuzeneko parte hartzailea izan ez bazen ere, gertutik bizi izan zituen bertan emandako lehen pauso eta aldarriak. “Gertutik izan nuen EHGAM sortu izanaren berri, nire bi lagun bertan baitzeuden”. EHGAMek bere sorreran, gay, lesbiana eta trans pertsonentzat erreferentzia eta helduleku izatea zuen bere xedeetako bat, eta LGBT pertsonak bizi zuten bazterkeria salatzea eta eskubide berdintasuna lortzea. Hain zuzen ere, aldarri hori du gogoan Atxurrek: “Gure *ghetto*-tik ateratzen ginenean ez zegoen onartuta gay edo lesbiana izatea” eta jarrera zabalduena zen hori.

1979ko ekainaren 10eko gertakari batek, euskal gizartea LGBT pertsonen begira jarriko du. Gau horretan, Oreretan, kalez jantzitako Espainiako polizia nazional batek Vicente Vadillo, *Francis*, erail zuen buruan tiro bat emanda. Gertakari hark, mobilizazio handiak eragin zituen Donostian, eta ondorenera ere, inpaktu handia edukitako gertakaria izan zen. Ekaina hartan erailketa hau salatze-



ko egon zen manifestazioaren inguruan, “izugarrizko arrakasta” izan zuela du gogoan Atxurrek. Galdetu nahi diogu, ea berak uste duen gertakari honek jendarteak LGBT pertsonen inguruan zuen iritzia aldatzeko balio izan zuen, eta erantzun azkarraz itxi du gaia: “Era guztietako jende asko egon zen”. Mobilizazioak gidatzerako garaian ere bide desberdinak egon zirela du gogoan: “Batzuek ikusi zuten LGBT pertsonen ikusgaitasuna lantzeko balio zezakeela, eta horregatik ikusgarri egin behar zela *Francis*-en erailketa, trabestia izate hutsagatik izan zela; beste batzuk, aldiz, errepresioz-edo, ezezkoa eman eta errefusatu egin zuten ideia. Baina, zorionez, jende asko atera zen kalera, eta gaia mahaigaineratu egin zen”.



1980. HAMARKADA: PIN, PAN, PUNK!

1980. eta 1981. urteen artean, AEBetan, gizon gayak eta injekzio bidezko drogak hartzen zituzten pertsonak gero eta maizago ari zirela gaixotzen ohartzen hasi ziren. Haien defentsak erasaten zituen zerbait zela sumatzen hasi ziren, eta gutxira, heriotzak gero eta gehiago izaten hasiak zirela, horren kausa aurkitu zuten: Giza Inmunoeskasiaren Birusa (GIB) zen Hartutako Inmunoeskasiaren Sindromea (HIESa) eragiten zuena. Eta birusa, pandemia bilakatu zen.

Bien bitartean, Reagan presidentea AEBetan eta Thatcher lehen ministroa Erresuma Batuan, hasiak ziren hego amerikar aurreko hamarkadan era kontrolatua garatutako politika neoliberalak aplikatzen eta eredu ekonomiko hau munduan zehar zabaltzen: gastu publikoaren murrizketak, merkatuaren liberalizazioa, langabezia tasen gorakada, gatazka sozialak... Urteetan zehar kapitalismoak emandako *“lan egin, etxea erosi, familia sortu”* mantrak funtzionatzeari utzi zion. Eta gazteek argi baino argiago zuten: *no future*.



Hau gutxi balitz, jendarteko sektore askotatik aspalditik ohartarazten zetozen eskenatoki ilunena bete egin zen: 1986. urteko Txernobylgo hondamendiak erakutsi zuen jendartearen eta industriaren behar energetikoak asetzeko energia nuklearra hautatu izanaren aukera kostua handiegia zela.

Hego Euskal Herriak bizi zuen demokratizazio prozesuan, arnasestua suposatu zuen 1981eko otsailaren 23ko Tejero teniente - koronelaren estatu kolpe saiakerak. Baina horren ostean, arnasestuak ez zuen etenik izan. Industriaren berrantolaketa politiken ondorioz, langabezian geratu ziren EAEko milaka eta milaka langile; abian zeuden 2. sektoretik 3.era jauzi egiteko politikak. Era berean, nazio gatazka politikoak muturreratzen jarraitzen zuen, eta Euskadi Ta Askatasunak egiten zituen akzio, sabotaje eta atentatuei aurre egiteko, PSOEn gobernua Gerra Zikina abiaraztea erabaki zuen Grupo Antiterrorista de Liberación (GAL) talde parapoliziala sortuz.

Gazteak, egoerari neurri propioa hartuz, auto-antolakuntza eta auto-kudeaketan oinarritutako egiturak sortzen hasi ziren, gaztetxeak, eta bertan, haien kultura musikal, estetiko eta politiko propioak garatzen. Erabat arrotz eta suntsiketa fasean heldu zitzaaien errealitatea eraiki beharra zegoen. Klean borrokatu beharra zegoen. Batzuk, 1981eko maiatzaren 2an Anoetako belodromoan *The Clash* punk talde britainiarrak jo zuen kontzertua



jartzen dute fase berri honen ernamuinean. Bertan izan zen Miguel Angel Larretxea 'Txelo' hernaniarra, kontzertu irekieran txistuaz aureskua jotzen. Agian surrealista dirudigu punk kontzertua aureskuaz ireki izana, baina garaiak zuen sinergiak artikulatzeko gaitasunaren isla dela iruditu zaigu.

Sorkuntza eta askapen garaia izan zen. Mugimendu feminista eta lesbianen aldarriek Espainiako 1985eko Abortuaren Legea onartzea lortu zuten, soilik hiru suposizioen kasuan bazen ere: emakumearen bizitza arriskuan egotea, bortxatua izatea edo haurrak osasun arazo larriak izatea. Egia da lege honek ez zuela bakoitzaren gorputzaren gaineko erabakiak hartzeko askatasuna ekartzen, baina urrats garrantzitsua izan zen norberaren gorputzaren gaineko kontrola hartzeko bidean.

Gorputzak, aldakak eta ahotsak zarataz eta garrasiz askatzeko garaia izan zen. Bilbo, Santurtzi, Donostia eta Arrasatetik hasita Euskal Herri osora zabaldu zen *Rock Radical Vasco* deituriko musika mugimendua, eta hala, garaikoak dira Eskorbuto, Zarama, RIP, Cicatriz, Las Vulpes edo La Polla Records bezalako punk taldeak. Honekin batera, parranda giroan ohikoak bihurtu ziren anfetaminak, estasia, alkohola, tabakoa... eta baita heroina ere.

Atxurrekin, Hernanik garai hartan suposatzen zionaz aritu gara hitz egiten. Eta argi du: "*pereza*". Ez zegoen apenas LGBT pertsonarik, eta jendearen aldetik "tolerantzia



zegoen, baina *hasta cierto punto*". Oso garai monotematiko eta monokromatiko moduan definitzen du, eta akorduan duenez, Hernani zen lagunekin batzeko erreferentzia puntua, segidan Donostiako anbientera joateko. "Esan nahi dizut, nik Hernaniko jendearekin, izan gayak, lesbianak edo heterosexualak harreman ona izan dut. Bada-kit, hortik kanpo, jende asko zegoela kalte egin nahian, baina ez zuten ezer aurpegiratzeko ausardiarik. Ondoren atzetik hitz egitekoa bai, ordea".

Luis Intxauspe (1972) izango da garai honetako memoria jostera batuko zaigun lekukoa. Luis, Hernaniko alkateta izandakoa da 2011. eta 2019. urteen artean. Baina instituziotik aldendu, eta herriko nekazal auzoetara eraman gaitu, hangoak baitira dituen lehen oroitzapenak.

Osiñaga auzoan eman zituen bizitzako lehen urteak. 7 urtera arte Arriatxuko eskolan aritu zen ikasten, ondoren, Gay Mur eskolara joan zen ikastera, eta 13 urterekin institutuan hasi zen. "Nire ingurua, oso maskulinoa zen, tradizionala. Neskak neskekin eta mutilak mutilekin ibiltzen ginen. Mundu horretan rola oso definituak zeuden eta familiatik modu despektiboan jasotzen nituen auzoan egon zitezkeen 'marikoen' inguruko iritziak. Zeren auzoan, bazegoen gizon bikote bat nahiko agerikoa zena gay-ak zirela. Hala ere, irainetik egiten bazuten ere, errukitasunetik ere egiten zituzten komentarioak: 'Ai, gizajo hauek'".



Institutu garaian neskekin ibiltzen hasi izanak asko lagundu ziola aitortzen du. Inguru maskulinizatutik at, bera zena konpartitzeko espazio segurua aurkitu baitzuen emakumeen artean. “Orduan, nahiko modu dualan hasi nintzen nire identitatea garatzen. Neskekin ni nintzen eta mutilekin ez hainbeste”. Gogoan du, aurreago, Hernaniko Emakumeen Asanbladan bazeudela lesbianak: “eta nik banituen hor erreferente batzuk... baina ez gizonenak”. 1987an Hernaniko Molotoff Irrati Librea sortu zen: “Institutu garaian Molotoff Irratian hasi nintzen, eta nire prozesua beste era batera bizi izan nuen. Nire inguruan beste irekiera bat zuen jendea zegoelako, helduagoa...”.

Luis bezala, Ixiar ere herri mugimenduetan sexu askapenari dagokion diskurtsoan ematen ari zen aldaketaz mintzatu da: “Ezkerreko diskurtsoan gai batzuk sartzen hasi ziren, sexu askapenarena adibidez, baina ondoren harremanen maila praktikoan aldaketa gutxi eman zirela dirudit”. Eta horren adibide gisa, pasadizo bat kontatzen digu: “Hernaniko etxera bizitzera etorri ginenean, 80. hamarkada hasiera inguruan, lagun bat etorri zen etxera iluntze batean planteatzera homosexuala zela eta ea inporta zitzaigun bera homosexuala izatea. Eta esan genion, ‘Baina, nola inportako zaigu guri zer zaren eta zure aukeraketak bizitzan?’. Pentsa ezazue nola zegoen egoera... Nik beti pentsatu izan dut (eta berari ere esan



nion), ez zeukala zertan inongo baimena eskatu beharrik bakoitzarena den aukera sexualarengatik. Nik ez niola inori eskatzen, eta berari ere ez”.

Irekitasun moduan aurkezten den kontakizun hau, baina, era isolatuan ematen zen jarrera bat zen, orobat. Luisek ere antzerako bizipena oroitzen du armairuaren bueltan: “beldur eta zera askorekin gogoratzen dut nire burua koadrilakoekin konpartitu nuenean mutilak nituela gustuko. Pentsatzen nuen ‘jo, lagun mutilei mutilak ditudala gustuko esaten badiet pentsatuko dute beraiek ditudala gustuko eta galduko ditut’. Zentzu horretan, beldur eta presio asko izan nuen. Baztertuko nindutela uste nuen”.

Jarrera homo-lesbofoboak etete aldera eta sexualitate askatzaileago baten aldeko ikuspegiak zabaltze aldera, akorduan du Ixiarrek Langile Ikastolan 3 hilabeteko ikastaroak egiten zirela gurasoekin: “Bai bai, hori izan zen *la leche!* Gero, hurrengo belaunaldiei ikastarotxo bat heldu zaie, baina guk, hiru hilabetekoa egiten genuen, guraso eta irakasle. Oso ausartak ziren ikastaro horiek, eta gainera, plazeraren garrantzia asko azpimarratzen zen, baita norberak aukeratu behar zuela norekin eta noiz praktikatzea sexualitatea, gorputzeko txoko ezberdinak deskubritzearena... Herritik ez genuen inolako erresistentziarik topatu, ezta Eusko Jaurlaritzako ordezkarietatik ere, ez ziren atrebitzen honetan sartzen! Oso errebeldeak ginen”.

Desiraren orientazioaren inguruan eskolan topa zite-



keen aniztasuna antzematen ote zuten eta baiezkoan nola kudeatzen zuten galdetu nahi izan diogu. “Diferentzia hori, topikoekin definituko nuke segur aski: mutil desberdinak gehiago gerturatzen ziren neskengana, eta nesken kasuan, bada, gehiago mutilengana. Eta hor ikusten genuen. Gero, noski, ez genien ezer galdetzen. Soilik, haiek gugana etortzen baziren. Eta tutoretzan gazte hauei leku egiteko estrategia asko pentsatu genituen. Ez dakit zer nolako inpaktua izan zuen guzti honek ikasleekiko, baina argi dudana da LGBT izan zitekeenei leku bat behintzat egiten geniola”. Transexualitatearen edota trans pertsonen eta diskurtsoen inguruan garaian zuten hutsunea ere ekarri du gogora: “Transexualitatea ez genekien ezta existitzen zenik ere. Aimarrena gertatu zen arte. Zeren momentu hori eman arte ez genuen informaziorik...”.

Geletan, “marikoi” hitza askotan eta askotatik entzun izanaren oroitzapena ere badu Ixiarrek. “Maritxika ere, baina gutxiago. Garai hartako mutil askok zioten beldurra ‘marikoi’ hitzari. Eta ez bakarrik hitzari, pertsona homosexualak beraien inguruan izateari erebai. Beraien beldurra zen beraiek etorkizunean homosexualak izatea. Eta honako kezkak izaten zituzten: ‘eta nik nola dakit naizen edo ez naizen?’ edo ‘eske mutil hori asko etortzen da nire etxera...’”.

Eskola jendartearen, herriaren, isla bat gehiago besterik ez da eta Atxurrek Hernanin LGBT pertsonen inguruko



mespretxua zegoela du gogoan. “Niretzat, J.S. eta A.J. pionero modukoak izan ziren Hernanin. Erreferentzia moduan izan nituen. Baina bazeuden *kotilleo* txar asko”.

J.S eta A.J. Hernaniko lehen gay bikote ikusgarri bezala kokatu dizkigu Atxurrek. J.S.-k arropa denda jarria zuen Andre kaleko goialdean eta A.J. zinemagintzan aritzen zen Atxurren hitzetan: “lehen zinema munduan lan egin zuen, *dekoradore* moduan, baina ez nago oso ziur. Berak esanda, pelikula askotan Ava Gardnerrekin lan egin zuen”. Istorio hau lehendik ere entzun izan dugu, zeharka izan bada ere. J.S. eta A.J.-en etxea, Andre kaleko beheko aldean zegoen, ia Plaza Berrira heltzear. Bertan bizi ziren, bi solairuko pisu batean. “Bloke berdinean bizi ziren J.S.-ren gurasoak, izebak eta denak. Eta etxe horretan, apainketa oso politak egin zituzten J.S eta A.J.-k bertan bizitzen jartzeko. Ni joan nintzen ikustera, eta oso polita zegoela dut buruan”, gogoratzen du Karmelak.

Artean, gertakari batek, herriko zimendu batzuk mugitu zituen. *Batzuk* diogu, ohartu garelako jendeak ez duela jakin kokatzen zer eta zergatik gertatu zen gertatu zena. Eta baita, ikerketa hau hasi aurretik ere, aho txikiz, behinola, kasualitatez ezagutu dugun zerbait izan zelako, nahas - mahasa baten baitan, “uste dut”, “agian” eta “ez dakit” askoz josia.

1984an, uda amaiera inguruan, Edurne Pinedak bere buruaz beste egin zuen.



Ixiar hasten da gertakariari hitzak jartzen: “horrek herrian inpaktu handia izan zuen. Nik, bere erreferentzia banuen ere, familia ezagutzen nuen gehiago. Baina horrek, oihartzun handia izan zuen herrian, oso fuertea izan zen. Hiletara joan nintzen eta gogoratzen dut plaza nahiko betea zegoela. Eta behin bukatuta, denok plazan ‘Zutik emakumeak’ kantatu genuela”.

Mila, Edurneren gaztetako lagun mina izan zen. Berekin ibili izan zen Hernanin txikitan, eta gaztaroko Iruñeako abenturetan ere oso gertuko izan zuen, batera egon izan baitziren bertan bizitzen, eta diseinu eskola berean ikasten.

Iruñeako garaiak, eraldaketa garaiekin lotzen ditu. “Franco hil eta gauzak eztanda egiten hasi ziren: ikasle mugimendua, langileen mugimenduak, emakumeen mugimendua... Eta gu emakumeen mugimenduan hasi ginen”. Oso gogoan du abortuaren aldeko borroka, horren aldeko ekintzetan, behin baino gehiagotan poliziaren jipoiak jaso baitzituzten. Borroka horretan aritzeagatik, Edurne eta bera eskolatik bota zituzten, eta une horretan Hernanira itzuli behar izan zen Mila. Edurnek, aldiz, Iruñean geratzea erabaki zuen, bertako gizarte mugimenduetan militatzeko gogoak hala eskatuta. Gainera, Milak gogoratzen duenez, artean lesbianen mugimenduan lekua egina zuen, eta horrek babesleku handia suposatu zuen berarentzat.



Urtebete inguru beranduago, Edurne ere Hernanira itzuli zen. Bere bikotekidea Martuteneko kartzelara ekarri zuten eta, gertuago egoteko beharretik, lekualdatzea erabaki zuen. “Baina ni, izugarrizko depresioarekin itzultzen dela konturatzen naiz. Edurne, oso alaia eta konprometitua zen, eta une horretan aurrean beste pertsona bat izango banu bezala zen. Soilik urtebete igaro zen Iruñea utzi nuenetik, baina berriz elkartu ginenean tristurak harapatuta zegoen eta denak ziren erantzunik gabeko galderak”. Gatazka hauen jatorrian, aurretik ere berarekin solasean aritutakoan ateratako gaiak topatzen ditu: Edurnek Iruñean bizi aurretik pasatako Bartzelonako garaian, esana zion bere gorputzarekin harreman gatazkatsua zuela, eta azken aldi honetan ere “oso une gogorrak igarotzen ari zen bere pertsonalitatearekin: ez zekien gizon moduan identifikatu, emakume moduan identifikatu...”. Eta gatazka hauei erantzun emateko ezgaitasuna agerian uzten du: “garai haietan, trans-a izateko aukera ez zen existitu ere egiten”. Ondorenera, Edurnek bere burua trans gisa ez zuela inoiz definitu aipatu digu Milak. Are gehiago, garaiko beste lagun batekin hitz egiten, honek ere identitatearen zentzuan gatazkarik ez ziola ez entzun ez somatu aipatu nahi izan digu.

Une batean, Edurneren bikotekidea askatu egin zuten, eta Edurne Iruñeara itzuli zen bizitzera. “Bazirudien bere bizitzako beste kapitulu bat hasiko zela. Baina Iruñean



zeudela, bere bikotekidea beste pertsona batekin oheratzen hasi zen, eta uste dut, orduan erabakitzen duela bizitzak ez duela zentzurik". Atzetik zetorren gertakari eta sentipenen mukuruak goia jotzen du beregan Milaren ustez: "uste dut, hor nekeak jo zuela. Uste dut fronte asko zabaldu zitzaizkiola oso denbora murritzean. Jendarte honetarako oso sentikorra zen, eskuzabalegia, eta erein-dako guztitik ez zuen ia ezer jaso. Ekaitzak etorri ziren, eta birrindu egin zuten".

Karmelak ere gogoan du bere ahizparen testuingurua. "Une batean, depresio handi batek hartu zuen". Bere ustez Edurne heriotzara eraman zuten bi gatazka elkarbanatu ditu gurekin; batetik, "Edurne oso idealista zen, eta berak zeukan halako... itxaropen handia sozialismoan. Pentsatzen zuen Franco hil ostean hona demokrazia eta sozialismoa iristen zenean zoragarria izango zela. Eta ondoren ikusi zuen ez zela hala izan. Garai hartan, Emparrek Edurneren inguruan esan zidan, 'badakizu ni nolakoa naizen, baina hankak lurrean dauzkat'". Bestetik, Iruñean bizi izan zen garai hartan izandako bikote harreman baten eteteak, atsekabe handia sorrarazi ziola, "eta hori nire ahizparentzat izan zen depresioa".

Pilonek beste ikuspuntu bat azaldu digu azken kontu honen inguruan: "Edurne depresioan sartu zenean, psikologo batekin hasi zen, *un asqueroso, pero muy aceptado en este país*. Eta tipo honek esan zion arazo bat zuela, lesbia-



na izatea, eta saiatu behar zela gizonekin ligatzen. Patologiatzat zuten lesbiana izatea”. Eta honen ostean kokatzen du Pilonek Edurneren gainbehera: “Orduan, Edurnek txarrera egin zuen. Madrilen egon zen bolada txiki bat Emparrekin bizitzen. Eta ondoren, herrira itzuli eta...”.

Karmelak kontatzen digu, berarekin izandako azken solasaldia buruan duela, iltzatua: “Ni Australiara itzultzekoa nintzen, lanera. Eta orduan esan zidan ‘ez dakit zer naizen’. Ni pixka bat kezkatuta geratu nintzen, baina animatzen saiatu nintzen, depresioaren sentipen horietatik atera nahian. Eta horrela joan nintzen”.

Milak, gertakariaren osteko sentsazioak ekarri ditu: “Orain oso kontziente naiz berak egingo zuen hori oso argi zuela, eta beste era batera bizi dut. Baina une horretan, erruduntasuna eta amorrua ziren nituen sentimenduak. Amorrua jendarteagatik, konturatu nintzelako ez zegoela lekurik pertsona batzuentzat. Ez zegoen lekurik lesbianentzat, homosexualentzat...”.

Hiletan Atxur, J.S eta A.J. egon ziren. Atxur Edurneren lehengusua zen, eta berak dioenez, ez dizkio buelta asko eman nahi izan gertakarien zergatiei. Izan ere, “mila istorio suposa daitezke, baina berak berekin eraman zuen egia”.

Gauzak zer diren, urtebete inguru beranduago, gertakaria errepikatu egingo da. Atxurrek ongi gogoratzen du, hau ere, gertuko pertsona baitzuen: “A.J. eta lagun gehia-



gorekin nengoen, eta halako batean, J.S. desagertu egin zen. Bere bila hasi ginen, baina ez zen etxetik agertu, eta ez genuen inon topatzen. Garai hartan, gaur egun Atxur Taberna dagoen lekuan guk familiaren tabernaren biltegia genuen, eta handik soziedadeetara-eta ardoa banatzen genuen; hau Atzieta kaletik egiten genuen. Eta egun haietako batean, gogoratzen naiz pasa nintzela Atzietatik furgonetaz, eta J.S.-k garajea zuen lekura itzuli nuela buroa bat-batean. Hurrengo egunean, han agertu zen hilda". Heriotza honen bueltan, galdera asko egin ez dituela aitortzen digu: "ez dakit buruan zer izango zuen". Baina badu gogoan, Edurnerena gertatu zenean, J.S. asko harritu zela, ondoren, berak bide berdina hartzeko hautua egin izanaren paradoxa, irribarre mingots batekin azaleratuz.

Bizitzak, baina, badu guztiaren gainetik aurrera egiteko joera bat. Andre kaleko erdialdean, egun Atxur Taberna dagoen lekuaren parean zuten taberna Atxurren gura-soek. Eta Atxur han hasi zen bere sentitzen zuen giroko festak egiten San Joan festetan. "San Joanetan, lagun batzuk taberna dekoratzen laguntzen zidaten, foko batzuk jarriz-eta. Aitak ez zuen nahi nik festarik egitea, keba keba, uu...! Horregatik San Joan bezperan irekitzen nuen danborrada pasatzen zen arte, eta beste egunetan goizez bakarrik egiten nuen lan".

Lehen esan dugun moduan, inguruko herrietako LGBT



pertsonentzat, ohikoena Donostiako anbientera joatea izaten zen. Baina Donostian, guztia ez zen trufa eta dantzatza. Pilonek honela kontatzen digu: “gu Donostin, lesbiana eta *marien* koadrila ibiltzen ginen. Eta poliziaren jazarpena jasan behar izaten genuen: jarraitzen gintuzten *y se nos metian los coches en las aceras*”. 80. hamarkadan kolpe asko eramandakoa izan da Pilon.

Anbientetik kanpo homofobia orokortua zegoela oroitzen du: “gogorra zen jende gehiena armairuan bizi zela, bai ala bai. Izan ere, lesbiana edo gay publikoa bazinen, lana gal zenezakeen, lagunak, familia...”. Eta anekdota batekin borobiltzen du ideia: “Niri askotan gertatu zait mediatikoki presentzia asko izan dudanez, jendea nirekin atera nahi ez izatea, pentsatzen zutelako nirekin joanda jendeak pentsatuko zuela lesbianak zirela. Errazagoa zen nire lagun heteroekin Donostiatik paseatzea, lagun lesbianekin baino”.

Hariari tiraka, garaiko LGBT borroken inguruan gehiago jakin nahi izan dugu. Eta Pilonek kontatu digunaren ondoan, Atxurrek honako hau gehitzen du: “anbientean *éramos felices como perdices*, eta gero? Gero gerokoak”. Esaldi honekin, Donostiako ambientea espazio segurutzat zuela esan nahi izan digu, baina legalki eta sozialki arazo asko zeudela aipatu du: “Heterossexualen eskubide berdinak ez genituen, orduan, hori dena lortu beharra zegoen”.

Testuinguru honetan, gogoan ditu Euskal Herriko Gay



Askapen Mugimenduak (EHGAM) egiten zituen manifestazioen aurreko giroa: “egun horretan, manifestazioa egin aurretik Bulebarreko kioskoan estatuan hil zituzten pertsona LGBT guztiak oroitzeko lazoak jartzen ziren”. EHGAM, 1983an izan zen legeztatua, baina urtebete lehenago hasi ziren manifestazioak Donostian egiten.

Ongi gogoratzen du Pilonek manifestazio haien tes-tuingurua. “Gogoratzen dut manifa horietan jendea espaloietan egoten zela guri begira eta seinalatzen. Jende gehiago zegoen espaloietan manifestazioan baino, eta ea gu errekonozitzen gintuzten eta seinalatzera etortzen ziren. *¡Las manifas más rápidas del mundo mundial!* Pasada bat! Manifestazio horretara joaten zen jendea gehienbat Cuesta-ko jendea izaten zen: gayak, lesbianak, trabestiak eta Mugimendu Feministaren inguruko bakan batzuk. Sekulako ekipoa egiten genuen”.

Lesbianek 80. hamarkadako Donostia inguruan zituzten bizipenekin jarraitu du. “1982 inguruan, sekulako presioa zegoen abortuaren gaiarekin. Mugimendu Feministako lesbianak ere topera genbiltzan horren aldeko borrokan. Lesbianon gaia gehiago zen Mugimendu Feministaren lesbianizazioa, baina noski, abortuaren gaiak dena baldintzatzen zuen: gure eztabaidak, lerro politikoak eta jasotzen genituen ostiak”.

“Une bat iritsi zen zeinetan guk ere Mugimendu Feministari lesbianismoaren ikuspegia izatea eskatu genion.



Garai berean, 1983an, Zamalbiden (Errenterian) lesbianon lehen topaketak egin genituen. Bertan erabaki behar genuen artean legalizatu berria zen EHGAMen antolatu edo Mugimendu Feministan. Eta Mugimendu Feministaren baitan antolatzea erabaki genuen”.

Aldarrikapen nagusia ikusgaitasunarena zela du gogoan. “Eta gaur egun ere sekulako arazoa dugu horrekin. Ikusgaitasunaz aparte, gero ere ezkontzaren gaia etorri zenean arazoak izan genituen, baina gure kokapena, argia zen: ez genuen uste norbanakoen eskubideen markoa bikote bat osatzetik pasa behar zenik”.

Lesbianen ikusgaitasunera begira, Empar Pinedak *Interviú* aldizkarian lesbiana gisa emandako elkarrizketa bultzada handia izan zen. Eta gogoan du Ixiarrek 1985eko maiatza hartan Empar Pineda *Interviú*-n atera zenekoa. “Hori oso gustuko izan genuen. Esan genuen ‘Dios, bada-go jendea!’. Guretzat oso inportantea izan zen. Momentu hartako gazteentzat eta ikastola inguruan genbiltzan irakasle eta mugimendu pedagogikoentzat bai behintzat. Esan genuen, ‘Dios, aniztasun pixka bat behintzat agertzen hasi da’. Mugarri polita izan zen eta asko komentatu genuen”. *Interviú*-ko Emparren elkarrizketaren goiburuak honela zioen: “*Lesbiana porque sí*”.

Karmelak ere, gogoan du bere ahizpa *Interviú*-n atera zen egun hura: “Empar estatu mailan bere burua publikoki lesbiana moduan agertu zuen lehen lesbiana izan



zen. Kontua da, nire aitak astero jasotzen zuela *Interviú* aldizkaria. Bada, aldizkaria atera zen goiz horretan, nire izeba Plaza Berriko kioskotik pasa zenean, bertako langileak esan zion: ‘Ui, zure iloba azaltzen da oraingo *Interviú*-n’, eta erakutsi egin zion. Nire aitak Plaza Berriko kioskoan erosten zuen aldizkaria. Orduan, nire izebak, nire aitak kontua oso ongi hartuko ez zuenaren susmoz, dendakoari honakoa esan zion: ‘Esaiozu bukatu direla edo horrelako zerbait’. Kontua da, une horretan aita iritsi zela aldizkaria eroatera. Etxera joan zenean, eta beretzat berria zen albistea irakurri zuenean, haserretu egin zen. Eta une horretan bere ondoan nire ama eta koinata zeudenez, bada, errieta beraiei bota zien”. Pasadizo dibertigarri moduan gogoratu du kontu hau, ondoren zetorrenaren jakitun: “Aitak, Emparrenaz enteratu zenean, egun batean anaia etxean harrapatu zuen eta galdetu zion ea zer iritzi zuen horretaz, eta anaiak argi eta garbi esan zion anai-arreba guztion izenean hitz eginez: ‘aita, gu denak ados gaude Emparrekin, Emparren alde gaude!’. Eta uste dut, horrek aita hobeto sentiarazi zuela. Aste batzuetara, Empar Madriletik etorri zen egun batzuk pasatzera, eta aitak ez zion ezertxo ere esan. Ondo onartu zuen. Eta nire amak, Emparrena ikusi zuenean ere, bere burua aldatu zuen eta horren alde jarri zen”.

1985ekoaz gain, *Interviú*-n lehenago ere ateratakoa zen Empar. 1977an izan zen, baina aldi hartan goiburuak ho-



nela zioen: *Empar Pineda. Feminista y Comunista*.

80. hamarkada honetan ere, HIESaren pandemiak Euskal Herria jo zuen. Ez zegoen informaziorik, eta jendea gaitzak jota hiltzen hasi zen. “Heroinomanoekin hasi zen, eta ondoren, hemofilikoak ere hasi ziren gaixotzen; ondoren, homosexualak, heterosexualak, prostitutak...” kontatzen digu Atxurrek. “Garai horretan zegoen informazioa oso negatiboa zen, hau da, HIESa heriotzarekin lotzen zen, eta kalean esaten zirenak ere ez ziren samurrak: *sidoso de mierda...*”. Luisek, gogoan du HIESa homosexualitatearekin lotzen zela garai haietan, horrek, homosexualetikiko are bazterketa handiagoa eragin zuelarik.

Pagoagak ere garai latzak deskribatu ditu: “orokorrean, beldurretik bizitzera bultzatzen gintuzten, eta ez hainbeste prebentziotik. Hemen, Hernanin, *fuertea* izan zen, heroinarekin lotutako talde handi batek sufritu zuelako HIESa”. Oroitzen denez, “hasieran, gaitz hau homosexualekin eta drogadiktoekin lotzen zen bakarrik. Izatez, lehenengo heroinarekin lotzen zen batez ere, baina gero, *lau ‘H’-en mito*¹ zabaldu zen”. Hala ere, berak ez du uste Hernaniko kasu zehatzean HIESa hainbeste lotzen zenik homosexualitatearekin, eta bai, kontrara, heroinaren kontsumitzaileekin: “hemen egon zen koadrila bat baino

□ 1 *Lau “H”-en mitoak* GIBa-aren transmisoreak batez ere lau giza talde zirelaren ideia transmititzen zuen: heroinomanoak, homosexualak, hemofilikoak eta haitiarrak.



gehiago heroinarekin izorratuak egon zirenak eta asko hil egin ziren”.

Pilonek, gogoan du HIESa inguruak jotzen hasi zen garai hura: “Lesbianon kasuan, ez dugu hainbeste lehenengo pertsona bizi izan. Baina egia da, nahiz eta *mariekin* ez militatu, militantziak berak eta bizitzak eramaten zaituela *mariekin* egotera. Orduan, garai hartan, jendea gure inguruan ‘erortzen’ hasi zen, eta bizirik iraun zutenak 20-30 pilula hartzen aritzen ziren”. Maila politikoan, lesbianen borroka ere ikusgaitasunarena izan zen, hau da, heteroarauan oinarria duen ‘lesbianak emakumeak direnez, eta emakumeek sexualitaterik ez dutenez, ez dute GIBa izateko arriskurik’ ideia zabaldua zegoenez, bazirudien haiek ez zutela HIESaz kutsatzeko aukerarik. “Gogoan dut, Euskadiko Lesbiana Feministen Kolektiboen Koordinadoran, bazela jende bat defenditzen zuena kondoi femeninoak erabili behar genituela. Gure artean, paranoia ere piztu zen; eztabaidatzen genuen gure artean piko edo muxu bat eman edo ez... beldurragatik!”.

Honela laburbilduz amaitzen du Pilonek, garaian jazo-tako HIESaren aferaren kontua: “Gu HIESaren mobidan, gehienbat begira egon ginen. Eta egia da sekulako atzerakada egon zela horrekin. *Una hostia en los morros*. Pertsonalki eta politikoki”.





1990. HAMARKADA: EFERBESZENTZIAREN OSTEKO BEHERAKADA

1989ko Berlingo harresiaren erorketa, 1991ko Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunaren (SESB) gainbeheraren atarikoa izan zen, eta honek, hamarkada luzez luzatu Gerra Hotzaren amaiera ekarri zuen, bai eta eredu kapitalista eta komunistaren arteko gatazkaren amaiera ere. Bestalde, Hegoafrikan, hamarkada luzez garatu eta egikaritutako legedia arrazistan oinarritutako sistema politikoari, *Apartheid*-ari, amaiera eman zitzaion.

Hamarkadako gatazka politiko eta armatuen artean, batez ere bik astinduko dute iritzi publikoa: Ruandako Genozidioa (1994) eta Bosniako Gerra (1991 - 1995). Lehenak, sistema kolonialak afrikar kontinentean eragindako anabasa, mina eta txikizioa erakutsi zituen; bigarrenak, Europa gainera II. Mundu Gerrako itzala gerturatu zuen.

Artean, orain arteko bigarren olatuko feministen artean gatazka ideologikoak ematen hasi ziren. Emakumearen izaera esentzialista ukatu, eta zapalkuntza sistema pa-



triarkalaren planteamenduak konplexuago bilakatzen hasi ziren; generotik haratagoko planteamenduak lantzen hasi ziren batzuk (sexualitatearen ikuspegi positiboa, ekofeminismoa, feminismo antiarrazista, transexualitate, teoria post-kolonialak...) eta honela, 90. hamarkada honetan, feminismoaren hirugarren olatuari hasiera ematen zaio. *Queer teoriak*¹ berebiziko pisua izango du hirugarren olatuko feminismoan, batez ere identitateen inguruko eztabaidetan. Oinarritzko ideia da, generoa, emakumea, femeninotasuna, baina batez ere gorputz eta identitateak kontrolatuak eta menperatuak izatea helburu duen eta, oro har, eraikia den fikzio historiko-politiko bat direla.

80. hamarkadako eferbeszentziaren osteko beherakada garai bat sumatzen da. *Punk*-aren garaia *grunge*-aren etorrera gehitzen zaio, eta letra, irudi eta proposamenean lantzen diren gaiak *antitodo* eta sistemaren txikizio proposamen eta kritika soziala izateari, alienazioa, apatia eta bazterketa sozialaren inguruko iruditeria bat elikatzen duten gaiak gehituko zaizkie. X belaunaldikoak edo *baby boomer*-ak, haien aurreko belaunaldiek kontsumoan eta lanean oinarriturik eraiki zuten munduari eta hutsean geratutako ametsei erantzun emateko ezintasunetik datorren sentipenaren iruditeria, alegia. 90. hamar-

□ 1 *Queer teoria, sexua*, generoa eta desiraren orientazioa zalantzan jartzen dituen teoria filosofiko-politikoa da.



kada, nolabait, fribolitatearen garaia da.

LGBT borroketan bi korrante nagusitzen hasten dira. Batetik, erreformista, eredu heterosexualean oinarritutako normaltasuna eskatzen hasten direnen korrontea, eskubide berdintasunaren alde borrokatzen dena. Eta bestetik, erradikala, eredu heterosexuala desiraren orientazio hutsa baino, izaera politikoa duen erregimen baten moduan ulertzen duena, eta beraz, ordenamendu sozialerako erabiltzen den erregimen politiko bat izaki, iraultzea eskatzen duena. Eta honek, maila teorikoan ematen den eztabaidatik haratago, gatazka andana ekarriko ditu sexu askapenaren aldeko borrokan zein mugimendu feministan aritzen diren kideen artean.

Euskal Herriko testuinguruan, gatazka politiko armatuak gero eta isla handiagoa izaten hasi zen herrietako kaleetan. Espainiar estatuak, ezkerreko mugimendu independentistarekin zerikusia zuen ororen aurkako errepresio gero eta bortitzagoa eragiten jarraitu zuen. Eta horren adibide da, 1998ko uztailaren 15ean, Hernaniko Eziago Poligonoan zegoen *Egin* egunkaria eta *Egin Irratia*-ren itxiera, ETaren aparatuen parte zela argudiatuta.

90. hamarkada honetan beste sei lekuko batuko zaizkigu: Gari Arrese-Igor (1974), Amaia (1976), Xabier Ormazabal (1984), Eric Androgino (1987), Lore Lujanbio (1988) eta Aitor Huizi (1994). Guztiak 20 urteko tartean jaioak badira ere, badituzte 90. hamarkada honetan eta aurre-



rantzean gurekin konpartitu nahi izan dituzten pasadizo, bizipen, ikuspegi eta hausnarketak.

Hernaniren garaiko argazki bat egiten hasi nahi izan dugu, jakinik, testuinguruak zituen ertzak ulertzen lagunduko digula. Xabik, kalearen bizitasuna du buruan. “Niretzat Hernani, kalea zen, kaleko bizitza. Plaza Berri zen lagun artean geratzeko lekua, eta bertan pasatzen genituen arratsaldeak”. Aitorri, Xabiren bide nahiko antzekotik, musika dakarkio burura bere txikitako Hernani hura gogoratzeak. “Nik musika askorekin gogoratzen dut. Ni Tilosetan eta frontoian ibiltzen nintzen gora eta behera gainontzeko lagunekin. Gustura bizi izan nintzen”.

Lorek, irakurketa xeheagoa eginez, honakoa du akorduan: “Nire bizitzako lehenengo urteak, umoretsu eta galdera asko eginaz oroitzen ditut. Eta Hernaniko momentu dezente etortzen zaizkit burura, lagunekin, gurasoekin, eskolan... Genero rolei dagokienez, oroitzen ditut mutil eta neska bereizteko uneak, baita heteroaraua indartzen zuten jokamoldeak, baina aldi berean, eskolan, lagun artean zein familian bereizketa hori zalantzan jartzeko momentuak ere gogoratzen ditut. Niretzat, herri borrokalaria bezala, lehen politizazioetarako eremua izan da, erreferente garrantzitsuak eman dizkidana. Aldi berean, feminista eta disidentzia sexualoi gertatu ohi zai-gun modura gatazka asko ekarri dizkit”.



Garik, aldiz, erantzun biribil bat eman digu. Beste herri batzuekin alderatuz, "Hernani beti abangoardian ikusi dut, urbanoagoa, ez dakit... *Egin* egunkaria zegoen, kulturalki interesgarriagoa zen... Irekiagoa". Baina, ikuspegi honen aurrean, Pilonek argi du: "herri hau monotematikoa zen". 90. hamarkadaz ari da, baina duela gutxira arteko herriaren izaeraren adjektibo orokortzaile moduan erabili du.

Izan ere, Hernaniko egunerokoan gatazka politiko armatuak isla handia zuen. Aitorrek gogoan du: "Orain dagoenarekin alderatuz, txikitan antzematen nuen, akaso, kalean bazegoela tentsio politiko gehiago, orain bizi dezakeguna baino. Zeren ni *Kaxkuan* bizi naiz, eta orduan, bertan ematen ziren gatazkak bizitzen nituen". Haur begiradatik, kaleko pintada, kartel eta banderetan agertzen zirenei emandako esanahia elkarbanatu nahi izan du gurekin, ostean: "gogoratzen naiz nik 'preso' hitza beti izan dudala oso presente, artean, jakin gabe zer zen oraindik, zer esan nahi zuen. Ni gogoratzen naiz 'presoak kalera' eta 'presoak etxera' esaldiak ikusten nituenean uste nuela 'presoak etxera' zela etxera sartzeko eta 'presoak kalera' zela kalera botatzeko, eta batzuk zirela alde batekoak eta besteak, beste aldekoak".

Bide beretik, Xabik kalean ematen ziren gatazka politikoaren ondoriozko borroka dinamikei erreparatu die: "Hernani nahiko politikoa zen, manifestazio eta karga



polizial askorekin asteburuetan. Buruan dut, bereziki, omenaldi bat egiten zen egun batean gu Plaza Berrin ginel, eta bi kaleak, Nagusia eta Andrekale, sutan zeudela. Gatazka deitu, kale borroka deitu... Baina kalean zegoen zerbait zen. *Todo muy guerra*".

Lusek, garaia distantzia batetik begiratzuz, honako hausnarketa azaleratzen du: "Nik uste, momentu batean, dena estali dugula. Eta horrek ez digula utzi haratago ikusten". Galdetu diogu, ea LGBT edo sexu askapenaren borrokak bazuen lekuri Hernanin. Eta jarraitu egin du. "Hernani beti izan da herri oso borrokalaria, ezker abertzalea oso potente egon da". Baina LGBT gaiei dagokienean, beti antzeman izan du hutsunea, oro har.

Amaiak ere, Luisen bide beretik egin du hausnarketa: "Hemen bigarren mailan gelditu da guztia, ez bakarrik gurea: arrazismoaren aurkako borroka, ekologismoa... guztia! Hemen bakarrik independentzia aldarrikatu da. Bikoteari esaten diodan moduan, 'hemen abertzaleak bai, baina ezkerrekoak...'. Pilonek, ezker mugimendu independentistaren baitan ematen zen eta den jarrera orokortu baten inguruan hitz egin digu, guk ere, ezker ikuspegi iraultzaile batetik urrun topatu duguna: "Euskal Herrian demostratzen baduzu abertzalea zarela, euskaltzalea zarela, beno bale, 'pues ya te dejamos esas cositas que tienes'. Azkenean gertatzen dena da gure borrokaren funts politikoa ukatu digutela. Jende asko dago herri honetan gau-



za asko zalantzan jarri dituen, baina heteropatriarkatua ez da kuestionatzen”.

Testuinguru honetan, zaila egiten da Hernanin 90. hamarkadan LGBT mugimendu edo giroaren antza zuen zerbait irudikatzea. Aurreko hamarkadetan gertatu bezala, jendeak bere sentitzen zuen giroa Donostian topatzen jarraitzen zuen. Baina, Donostiakoak ez du urte luzez iraungo.

Garik aipatzen duenez, LGBT gaiei dagokionez “atzean ginel” sentitzen zuen, eta horregatik bere erreferentzia estetikoak iparraldetik hartzen zituen, “Frantziatik baino, Londresetik”. Donostiako ambientea, jendea elkarrekin harremanak izan eta ligatzeko espazio moduan ulertzen zela du akorduan, gaur egungo sare sozialen dinamiketatik urrun: “Anbienteko taberna asko zeuden eta ez zegoen *Grindr*-ik ez ordenagailurik. Hau da, gu ginen ‘ordenagailuaren pantaila’ eta horregatik izan behar ginen ‘fantasia’. Guretzat oso garrantzitsua zen kode estetikoa, zein arroparekin janzten zinen eta zein fantasia sartzen zenion zure bizitzari”. Eta zentzu honetan, Madril, Amsterdam zein Parisko azoketara egindako bidaiak ekartzen ditu gogora, “gauza *extrabagante* eta arraroenaren” bila. Hori zen, bere hitzetan, fantasia. “Eta hori ikusteko, Txirulara, Trigonora, Kontrara, Keops-era... joan behar zinen. Dena nahiko ‘techno’ eta ‘drogazalea’ zen. Honek ez du esan nahi mundu guztia drogatzen zenik...”, baina praktika



oso orokortua zelaren isilune bihurriaz amaitu du.

Amaiak ere berdintsu gogoratzen du. Gazte zela, par-randa batean lagun batek Donostiako anbientera eram-
man zuen, “eta bat batean, izan zen hara sartu eta beste
mundu bat ikustea. *Tios, tias*, janzkera oso bereziarekin.
Niretzat deskubrimendua izan zen, eta oso gustura sen-
titu nintzen”.

Atxurrek, denbora zeraman anbientera joaten, eta ez du
akorduan 80. hamarkadatik gauzak asko aldatu zirenik.
Giroa orokorrean anitza eta ona zela aipatzen du, aurrei-
ritzirik gabea. “Ku dantzalekura joaten zinenean... bueno!
Han era guztietako jendea topatzen zenuen: lesbianak,
gayak, heterosexualak... Nik beti esaten nuen, banekiela
zenekin igotzen nintzen Ku-ra, baina gero ez nekiela no-
rekin jeitsiko nintzen. Denon artean oso giro polita sor-
tzen genuen. Ez zegoen lesbo-homo-transfobiariak giro
horretan, denak dibertitzera ateratzen ginen”.

90. hamarkadak oraindik urte bakar bat duela *La cuesta
del culo*, *Cuesta* edo Mirakontxako ambientea zena, kolpez
itxi egiten da. 1991eko urriaren 13an izan zen. “Ea, lehen-
dik tabernetako jabeek ez zuten errenta ordaintzen, zeren
pertsona batek hori dena erosi zuen, Cuesta-ko lehen ta-
bernaren eraikina izan ezik, Resaka”. Atxurrek aipatzen
duenez, ondoren, beste taberna batzuk ere zabaldu ziren,
inguru bertsuan zein Donostiako beste leku batzuetan
ere, baina ambienteak zuen indarra eta erreferentzialtasu-



na ere galdu egin zela antzeman dugu.

Bide beretik egin du Pilonek. Aurretik ere aipatu digu Donostia zein *Cuesta* zirela inguruko herrietako lesbiana eta feministak biltzeko lekua. Bada, “*Cuesta* kendu zutenean oso gogorra izan zen. Zeren gainera, Donostia, lesbianen giro handia zuen hiria zen garai horretan, Bilbon baino gehiago *incluso*! Orduan, *Cuesta*-koa gertatu zenean, ziurrenik gu ere adinean gora gindoazenez, jendea herrietan kokatzen hasi zen. Batzuk Erreterian (hor badago komunitate potente bat) eta gero beste batzuk, Hernanin”.

Pentsa genezake *Cuesta* eta Donostiako ambientearen gainbehera honek inguruko herrietara mugitu ahal izan zuela sexu askapenaren aldeko mugimendua, baina, Hernanin, ez zuen berebiziko ondoriorik izan LGBT pertsonen bizigarritasunari dagokionez. “Egia da Hernani ez dela izan leku gatazkatsu bat erasotzen zaituztelako. Niri hori ez zait inoiz gertatu bertan” dio Pilonek eta jarraitzen du “aldi berean, ez zait iruditzen inoiz izan denik herri bat mugimendu markatu bat izan duena horren alde edo herriko jendeak horren alde asko borrokatu duenik. Nire adinekoen kasuaz ari naiz”. Eta hain zuzen, 90. hamarkada hasiera horretan lesbianen kolektiboen beherakada une bat kokatzen du.

“Hemen, Mugimendu Feminista Emakumeen Asanbladaren bitartez antolatzen” zela jarraitu du kontatzen



Pilonek. Hau da, Mugimendu Feministak antolatze-ko gaitasuna izan bazuen, eta ez Emakumeen Asanbladan soilik, Egizan edo Zutik¹ moduko antolakundeen baitan ere antolatu baitziren emakume feministak. Hernaniko lesbiana batzuk horren baitan antolatuak gogoratzen ditu Amaiak: “A., K., M. eta hauek Zutiken zeuden eta horiek bai, *‘se lo pelearon’*”. Egizanen lesbiana antolaturik ez du gogoratzen, “o ez dut ezagutu nik behintzat”.

Amaia, EHGAMen aritutakoa izan zen. EHGAMek, hasiera batean, lesbiana, gay eta transen eragilea izateko asmoa izan zuen, baina apurka-apurka, eta lesbianen kolektibo askok Mugimendu Feministaren baitan antolatze-ko hartutako erabakiaren ostean, gayen espazioa bilakatu zen batez ere. “Niri EHGAMekin pasa zitzaidana izan zen gehienbat egiten zena gay kolektiboan oinarritua zela. Eta EHGAM barruan ez zeuden emakumeak”. Baina, halere, Donostiako taldean zein Hernaniko ekimen desberdinetan parte hartu izan zuen Amaiak. “Donostiako EHGAMen egon nintzen, eta egiten genuena batez ere ikusgaitasunaren lanketan eta parrandak egitean oinarritzen zen. Era berean, helduagoak zeuden eta hauek diskurtso aldetik *kaña* asko sartzen zuten, baina gu gauza

□ 1 Egizan, 1987an KAS barruko adar autonomo moduan sortu erakunde feminista izan zen. Zutik, aldiz, 1991an Euskadiko Mugimendu Komunista eta Liga Komunista Iraultzailearen arteko elkarlan eta batasunetik sortu zen.



praktikoagoetan aritzen ginen: kanpaldiak, pankartak jarri, *sagaydotezia*...". Aitortzen digunez, bera eta Gari, azken honen motorra hartu eta Gipuzkoan zehar kartelak jartzen aritzen ziren, Azkoitia edo Azpeitiaraino.

1994. urtean, Gasteizko Jose Angel Cuerda alkateak, izatezko bikoteen erregistroa sortu zuen. Espainiar estatuan lehen aldiz lesbiana eta gayen arteko bikoteak arautzeko balio izan zuen udal araua izan zen, eta ondorio zuzenak izan zituen izatezko bikote izatea erabakitzen zuten bikote gay eta lesbianen artean. Atxurren esanetan, aurre-rapauso garrantzitsua izan zen, ordura arte gertatutako ezbehar asko ekiditeko aukera sortzen baitzen arau honenkin: "arau hau baino lehen bikoteko pertsona bat, zorritzarrez, hiltzen bazen, bere bikotea inongo eskubiderik gabe geratzen zen, kale gorrian, eta hildakoaren familia guztiarekin gelditzen zen. Nik horrelako kasuak ezagutu nituen eta horregatik diot LGBT eskubideetan aurrerapen handia izan zela".

Pilonek, aldiz, garaiko lesbianen artean izan zituzten hizketa-gaiak ekarri ditu gurerara: "Ezkontzaren gaia etorri zenean, kolektiboen artean arazoak izan genituen. Legea etorri baina askoz lehenago hasi ginen, 'izatezko bikoteen' gaia atera zenean, Gasteizkoarekin batera. Gu norbanakoen eskubideen defendatzaileak gara, eta ez dugu uste norbanakoen eskubideen markoa bikote bat izatetik pasa behar denik". Kritika honen ostean, hone-



la jarraitzen du: “Diskriminazioaren ikuspuntutik, noski bere momentuan hau lorpen bat izan zela! Zu lesbiana edo *mari* izateagatik zergatik ez dizute ezkontzen utziko? Hau da, niri lesbiana izateagatik errenta aitorpenean ez badidate kenkaririk egingo, zergatik ezingo naiz, bada, izatezko bikote egin edo ezkondu, *y tener el mismo derecho que el capullo de al lado?*”. Azken hausnarketa batekin eman nahi izan dio amaiera gaiari: “Gizarte hau, azkenean piramide bat da, mailakatzean oinarrituta. Goian dugu *‘la familia heterosexual, blanca, estupenda, umeeekin eta ez dakit zer, eta hortik behera, eskubideak galtzen zoaz, bat ere ez izatera arte. Eta hau borrokatzeko bi modu daude: lerro erreformista edo erradikala: bata da piramide horretan gora egiten saiatzea eta bestea, piramide hori zartatzea. Baina seguraski biak konbinatu behar dituzula, zeren azkenean bizi ere egin behar duzu, eta ezin gara ibili *siempre a pelo*”.*

Herrian zegoen LGBT pertsonen ikusgaitasuna zein antolakuntza ezerezetik gertu zegoen arren, egon baziren LGBT pertsonak batzen zituen lekuak. Horien artean, Triku zein Apeadero tabernak aipatzen dizkigute, baita Bodega ere. “90. hamarkada hasieran, Apeadero eta Bodega eta beste taberna batzuk ireki ziren, eta nik hor bai gogoratzen dudala askatasun gehiago. Beste askatasun bat zegoen, hau da, dinamika askeak sumatzen nituen. Eta hor ‘gauzatxoak’ ikusten nituen”, kontatzen du Luisek.



Gay eta lesbianak, ezkutuko kultura bat sortua zuten, artean, ikuspegi heterosexual batetik ikusezina zena eta ikusgai bihurtzen zenean, errefusa eta higuinetik bizi zena askotan. Ixiarrek, honakoa kontatzen du lagun zuen mutil batek Donostiko *cruising*¹ gune batera joaten zela kontatzen zionean: “Guk esaten genion, ‘¡tío, elije otros sitios!’”. Donostiko bulebarreko komunetan juntatzen ziren. Mirakontxan ere, baina gutxienez paisaia ona du. Baina joder, komunetan! Kutrea, leku kutrea”.

Ikusgaitasunik eza, ezkututasuna, traba, mespretxua, irainak... eta guzti honen normalizazioa. Eric Androgino gogoan du haurtzaroan “ohikoaz aparte” ez duela homofobia gehiagorik jaso. Ohikoaz ari denean, “maricon”, “marica” eta bestelako irainez ari da. Honela ixten du hausnarketa: “*pues como a un niño que es gordito, en el cole le llaman gordo*”. Berak, genero adierazpenaren baitan pertsona androgino moduan aurkezten du bere burua, eta horrek, txikitatik desberdinkeria nabarmena eragin dion arren, ez du bizipen negatibo moduan gogoratzen: “Beti izan naiz oso femeninoa, eskolara beti panpinekin joaten nintzen... Eta beti bazegoen inozoren bat edo beste

□ 1 Cruising guneak, gizon gayak sexu harremanak izateko erabiltzen dituzten espazio publikoei deritze. Kultura oso bat dago cruising guneen baitan eta Donostian ere bere lekua izan du eta dauka. Horien artean dauka, *Puente de Hierro* inguruak, Sagueseko itsaslabarra, Koipeko fabrika zaharraren inguruak, Bulebar zein Mirakontxako komunak eta Miramon pasealekua.



“marikita” esaten zidana, baina ez dut *bullying*-ik sufritu. Hau da, ez naiz maritxu baztertua izan. Beti pila bat maitatu izan naute eta lagun artean zein familian oso integratua egon izan naiz”.

Xabik beste erantzun bat ematen du: “Nik uste lehenengo erasoez ez nintzela ezta konturatu ere egin (niri marikita-edo esan izanaz). Nik ez nuen nire burua baztertuta ikusten txikitan. Baina bai gogoratzen naiz motxila arrosa bat oparitu zidatenean aitak komentarioa egin izana motxila, hain zuzen, arrosa zelako. Eta hori ez nuen ulertu”. Era berean, femeninotzat jotzen ziren gauzak egiteagatik presioa sumatzen zuela gogoratzen du: “Plaza Berrin gomara jolasterakoan, adibidez, nik sumatzen nuen etzela mutilek egiten zuten zerbait. Baina horrek ez ninduen geldiarazi”.

Gari, garai hartan Hernanin mutil gay asko ezagutu-takoa da, EHGAMen baitan, zein bestela ere. Berak eta Amaiak Hernaniko San Joanetan Askapenakoen txosnan EHGAMen gau bat programatzen zuten: “eta egia esan, hori oso arrakastatsua zen. Eta orduan konturatzen zinen... Pentsatzen nuen ‘*hostia, cuanta marikita hay en este pueblo*’” gogoratzen da Amaia. Garai bertsuan, “Borrokarako Gay” ekimena jarri zen abian eta Garik kontatzen duenez, “ezker abertzalearen baitan LGBT gaiei ikusgai-tasuna emateko lan ildoan zen, bere garaian Egizanekin egin bezala, baina LGBT taldea”. Amaiak ongi gogora-



tzen du ere ekimen honen inguruko pasadizo bat: “lagun batek pegatina horiek ekarri zituen San Joanetara ere. Eta jendeak (batez ere ezker abertzalekoak) jartzen zituenean, esaten genien: ‘badakizue zer esan nahi duen pegatina horrek?’, zeren garai hartan jendeak pegatina, kamiseta eta abar guztiak jartzen zituen, apur bat *guay-arena* eginez. Eta orduan, batzuk konturatzen ziren eta zalantza izaten zuten pegatina kendu edo ez, *‘a ver si van a pensar que soy maricón’* aurpegiaz”.

Garik Hernanin ezagututako bikotekidea izan zuen. “Berak, lumafohia asko pairatu zuen eskola garaian. Langile Ikastolakoa zen eta luma zuela eta, *bullying* asko pairatu izan zuen. Baina halere, sufritutakoa sufrituta ere, ez da herria gorrotatzen duen horietakoa”. Eta harreman hori, kalean normaltasunez adierazteko trabak ez ditu akorduan: “Igandetako poteoan, Aker tabernan... eskutik helduta ibiltzen ginen eta inork ez zigun ezer esaten”.

Tabernen girora itzuliz, aipatu dugu Apedero eta Bodegan giro irekiagoa ematen hasia zela, eta Trikun, elkarriketatuek aipatzen dutenez, lesbianen giro egonkortua zegoen. Baina, guztien artean sona handiena izan zuena, eta Hernanitik kanpora ere ezagun izan zena, 1993-1994 urteen artean zabaldutako Atxur Taberna izan zen. Gariren hitzetan, “Atxurren gurasoek zuten bodegaren parereko biltegian egin zuen taberna Atxurrek. *Kriston* dekorazioa egin zuen, eta dekoratzailea, Donostikoa Konplot,



Txirula eta Keops gay tabernen dekoratzaile berdina izan zen”.

Baina, nolatan heltzen da Atxur, bere izen berdineko taberna zabaltzera Hernaniko 90. hamarkada horretan? “Bada, nire aita, jada gaizki zegoen bihotzekoak birritan emanda eta, noski, negozioa nire esku geratzen zen. Eta gurasoen taberna zegoen bezala... Guztia berritu behar nuen. Biltegia gurea zen, eta esan nuen ‘bada, hemen bertan, taberna bat irekiko dut nire gustura, eta lanera!’. Lehendik ere ezagutzen nuen nire taberna apaindu zuen *dekoradorea*. Izan ere, Donostian hiru bat taberna eta hainbat denda apaindu izan zituen, eta bere estiloa asko gus-tatzen zitzaidan. Orduan, berarekin hitz egin, eta propo-samenari baiezkkoa esan zion”.

Taberna berriaren obrak egiten ari zela, eraso homofoboa bizi zuela kontatzen digu jarraian, garaian amorrutik eta egun tristura txiki batetik azaleratzen duena. “Obre-tan ari ginela, norbaitek nire aitari esan omen zion ni homosexuala nintzela eta tabernan homosexualentzako salduko zela; eta goiz batean ama etorri zitzaidan. Nik beti pentsatu izan dut amek dena dakitela, baina orduan, galdera etorri zen: ‘Egia al da aitari esan diotena? Zu ho-mosexuala zarela eta marikoientzat saltzera zoazela?’. Eta nik: ‘zer?’. Orduan, baietz esan nion eta ea zer nahiago zuen, egia esatea ala gezurretan aritzea. Amari esan niz-kionak, berak ere bazekizkiela banekien, baina nolabaite-



ko baieztapen bat entzun nahi zuen nigandik”. Adeli da bere ama, emakume gogorra eta maitekorra, eta berataz oso gozo hitz egiten digu. “Eta jarraitu nuen esaten: ‘aitari esan dion tipo horrek, esan dezala esan duena nire aurrean’. Noski, tipoak nahi zuena zen nire gurasoek niri taberna irekitzen ez uztea, baina, esaten den bezala, *le salió el tiro por la culata*”. Eraso honek, dena den, ez zuen emaitza txarrik izan Atxurren aurreikuspenetan, eta taberna arrakasta handiz zabaldu zuen.

“Jende asko hasi zen etortzen kanpotik, Donostiatik ezagutzen nuen jende guztia. Beti lehenengo kopa hartzera etortzen ziren eta batzuetan amaiera arte geratzen ziren” amaitu du esaten Atxurrek, irribarre bihurriaz. Karmelak ere gogoan du Atxur Tabernaren irekiera hau, eta aurreko hitzei honakoa gehitzen die: “izugarria zen, oso originala, pentsa: esertzeko eserlekuek bizkarraldean ileguri gorria zuten eta sabaian Tailandiatik ekarritako estatuak zeuzkan jarriak; komunean, bonba bota ondoren, ura ur-jauzi baten moduan erortzen zen paretetatik. Beti jendez betea zegoen, Gipuzkoa osotik etortzen ziren. Gogoan dut behin Donostian bizi zen emakume ingeles batekin egin nuela topo, eta esan zidala ‘esan didate Hernanin taberna oso berezia dagoela’ eta nik nire lehengusarena zela erantzun ondoren, ekarri egin nuen”.

Tabernak, 3 urte luzez iraun zuen bere esku, 1996ra arte. 90. hamarkada erditik aurrerako garaia da, eta Hernanin



gatazka politiko armatuak duen isla gero eta handiagoa da kaleetan: “Azken urte horretan, gogoratzen dut kale borroka ematen zela asteburu guztietan eta beti tabernaren aurrean. Ertzaintza tabernara sartzen zen jendearen bila, eta nik esaten nien; *‘A ver, mesedez! Benga kanpora!’*”.

Eta ez hori soilik. Azken urte hura, urte gogorra izan zela du gogoan, 80. hamarkadan Euskal Herria jo gaitzak, Atxur bera harrapatu bai zuen. Gaitzak, baina, osasunaren ertza gainditu eta homofobia eta serofobiarekin egin zuen topo. HIESa diagnostikatu zioten, eta medikuak zera esan zion: *“o el negocio, o tú’*. Orduan, utzi egin behar izan nuen taberna, zoritxarrez, eta negozioa eskuz aldatu nuen.

Niri HIESak kalte asko egin zidan. Gorputzaz gain, psikologikoki kalte asko egiten duen gaitza da HIESa, eta depresioa hartu nuen. Burua ondo baduzu, kontrolatzen duzu, baina hasten bazara depresioarekin, gorputza mindu egiten da”. Diagnostikoaren ostean, medikuetan hasi zen, sendatzeko bidean. “Hasieran, botika pila bat izaten ziren, ondoren, garaiak aldatzen joan diren heinean, asko gutxitu direnak”.

Gorputzeko gaitzari, jendartearen solas homofobiko eta serofobikoak gehitu behar izan zizkion Atxurrek. Berak ere argi du horrek gaitzari aurre egitea galarazi eta gaixotasunagatik hiltzea eragin zuela jende askorengan. “Garai hartan, nire lagun eta ezagun dezente HIESaren kontuarekin hil egiten ziren, medikamentuak erreakziorik egiten



ez zielako, erreakzio txarra egiten zietelako medikamenduek edo, gaitza zutela onartzen ez zutenez, HIESari aurre egiteko *coctel* famatu hura beranduegi hartzen hasten zirelako”.

Baina jendartean, serofobia oro har alor desberdin eta anitzetan ematen zela du akorduan Atxurrek. “Diagnostikoa egin zidatenean, gogoratzen naiz amarekin joan nintzela gurasoen lagun baten bikotea zen dermatologo batengana. Atera zitzaizkidan aurpegiko orbanengatik joan ginen bertara, eta medikuak ikusi zidan bezala, amari esan zion: *‘Adela, hazte a la idea de que te vas a quedar viuda y sin hijo’* (nire aita urtebete eskas atzerago hil zen). Kontua da, medikuak hori esan zuenean, nik pentsatu nuela ‘ni hiltzera nihoala? Ezta pentsatu ere!’. Eta orduan amaren laguntzaz, medikuetara joaten hasi ginen. Ama niretzat sostengu handiena izan da, zorionez”.

Herrian ere, jendea txutxu-mutxuka hasi zen: “Jende batek gaizki hartu zuen HIESa hartu izana. Imajina ezazu, garaiko informazioa oso negatiboa zen: HIESa = heriotza. Izan zen gaitz bat sozialki gaizki ikusia zegoena. Eta nik momentu batean ere hala ikusten nuen. Pixkanaka, jendea ni ukatzen bezala hasi zen”. Une honetan, isilune luze batek akuilatu duen hasperen bat egin du. “Jendeak beldur asko zion nirekin egoteari, edo niri muxu emateari, pentsatzen zutelako kutsatu egingo nituela, eta horregatik jendea nirekiko oso hotz izaten hasi zen. Adibidez, Kaposiren



Sarkoma atera zitzaidanean, jende bati entzun izan nion esaten ea nola egon nintekeen tabernan lanean nuen itxurarekin; eta lagun batek esan zidan nuen itxurak jendea tabernara ez etortzea eragiten zuela”.

Serofobiaren aurrean, ikusgaitasunaren kontua atera zion lagun batek duela gutxi. “Esan zidan: ‘Atxur, zu izan zinen Donostia inguruan HIESaren gaiari ikusgaitasuna eman zenion lehen pertsona, ezkututzen ez zinelako’ eta nik erantzun ‘Zertarako ezkutatu behar naiz, ni banaiz arazoa duena? Zer, etxean geratuko naiz arazoa jan eta bu-ruari bueltak ematen? Ezta pentsatu ere!’”.

Urte asko pasa ziren HIESa ohikotzat hartzen hasteko eta serofobiak behera egiteko. Eta bitarte horretan, jendarteak ematen ez zizkion indarrak atera zituen ama eta lagunak aldetik, are gaitza gainditu eta kontrolpean iza-tea lortu zuen arte. Lanera itzuli zen, Donostiako taberna batzuetan musika jartzen eta kopak ateratzen, eta honek ere, asko indartu zuela du gogoan. “Donostiako Kontra tabernan aritu nintzen eta horrek ere niri eta, pentsatzen dut, inguruan nuen jendeari lagundu zion HIESaren kon-
tua normalizatzen”. 1999ko urte amaiera inguruan Ibizara joan zen, zerbitzari, eta handik aurrera, Ibizan udako hila-
beteak pasatzen hasi zen lanean, ondoren, Euskal Herriko
negura itzultzeko, Donostiako tabernetan giroa berotu eta
kopak zerbitzatzera.



2000. HAMARKADA: LUBAKIAK EGIN, LUBAKIAK DESEGIN

Hamarkada hastear zegoen, eta askok kezka bat zuten buruan: 2000. urteko urtarrilaren 1etik aurrera mundu digitalaren akabera etortzeko aukera zabalik zegoen, aurreikusi gabeko arazo bat medio; konputagailu ia gehienak ez zeuden 2000. urtera zenbakiz jauzi egiteko presatuak eta horrek anabasa sor zezakeen. Goizeko ordu txikiak etorri ziren, baina atzetik ez zuen anabasarik eragin. Eta lasaitua etorri zen. Zentzu digitalean. Eta oraingoz.

AEBeK, zituen praktika inperialistetan pauso bat gehiago ematea erabaki zuen 2001eko irailaren 11ko asteazken hartan Dorre Bikiak (eta AEBen indar ekonomiko eta militarren sinbolo ziren beste hainbat eraikin) txikitu zituen eraso terrorista gertatu ostean. *Terrorearen aurkako gerra* izenez ezagutu zen paradigma aldaketa hau eta, *de facto*, gudu zelaia mundu osora zabaltzea ekarri zuen, bai eta etsai hitzaren definizioa are gehiago zabaltzea ere.



Gerrak Irak eta Afganistan harrapatu zituen eta ekialde hurbilaren enegarren ezegonkortzea areagotu zen, baliabideen lapurretan eta jendarte zibilaren erailketan sakonduz.

Europar moneta bateratua (€) jarri zen martxan 2002ko urtarrilaren 1arekin. Merkatu ekonomia bateratuak, herrialdeen arteko desoreka ekonomikoa lausotzea zuen helburuetako bat, eta haren ikur nagusietakoa, *Euroa* izan zen. Halere, 6 urte besterik ez ziren behar izan, mundu ekonomiak 1929tik ezagutu ez zuen *krak*-a gertatzeko: 2008an AEBetan hasi eta Europa kolpatu ostean munduan zabaldutako aurrekaririk gabeko finantzen krisiak merkatu globala astindu zuen, eta Europar Batasunak krisiari aurre egiteko hartutako duen urrezko neurria austeritatea izango zen: praktika espekulatzailerekin oinarritutako banku eta finantza erakundearen krisia, herriak ordainduko zuen, enegarrenez.

Espainiar estatuko gobernuburua, *terrorearen aurkako gerran* partaide protagonista izateko gogotik, Azoreetan bildu zen 2003ko martxoan AEB eta Erresuma Batuko homologoenekin. Aliantza honek, espainiar estatua Irakeko Gerraren aldeetako bateko kide moduan kokatzen zuen, herrialdeko jendartearen aurkako aldarriari entzungor eginez. Ekimen desberdinak garatu ziren espainiar gobernuari *"No a la guerra"* esateko: manifestu eta manifestazioak, antzerkiak, sinadura bilketak eta beste. 2004ko martxoaren



11ko Atotxako tren geltokiko atentatuak heldu behar izan zuen gerran parte hartzearen ondorioak zein ziren ezagutzeko. Hasiera batean, gobernutik atentatua ETA euskal erakunde armatuari egozteko saiakerak egon baziren ere, hipotesi honek ez zuen ibilbide luzerik izan. Argi zegoen nor zen egile materiala eta jendarteak argi izan zuen nor egin honen erantzule. 2004ko martxoaren 14ko hauteskunde orokorrak Alderdi Sozialistak irabazi zituen, politika progresisten 7 urteko aldiari hasiera emanez.

Espainiar estatuko LGBT politika eta eskubideei dagokienean, mugarria izango zen 2005eko ekainaren 30a. Egun horretan, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza legea onartu zen, lege hau onartzen zuen munduko hirugarren estatua bilakatu zelarik. Eskubide mailan ematen zen parekidetze honek nork bere etorkizun legal eta ekonomikoa era zabalagoan erabakitzeko aukera zabaltzen zuen, bai eta orain arte ematen ziren egoera zentzugabe eta aldres dezenteren amaiera ekarri ere. Aukera honek, baina, ondorengo urteetan zabaltzen joango den homonazionalismoaren sorreran izango du eragina. Izan ere, eskuineko mugimendu eta ideologiek, LGBT eskubideetan ematen ziren aurrerapausoak, jarrera xenofobo eta arrazistak defendatzeko erabiltzen hasi ziren hamarkada honen bukaeran.

2008an, Barack Obamak, ekintzetan baino sinbolikoan ondorio handiagoa izan zuen AEBetako lehen presidente hautagai arrazializatuak, irabazi zituen hauteskundeak.



“Yes, we can” leloak AEBetako lurralde osoa gurutzatu zuen eta, gutxiengo etnikoen ikusgaitasunari dagokionean bederen, aldaketa esanguratsua eman zen, eraldaketak estetikitik eraldaketa errealetik baino gehiago izan bazuen ere.

2009an espainiar estatuan, Granadan egin ziren Jardunaldi Feministetan, paradigma aldaketa esanguratsua eragin zuen transfeminismoaren edo *queer* mugimenduaren etorrerak. Borroka feministaren subjektua emakumea izaten jarraitzen zuen arren, subjektu politiko horren izaera zailantzan jarri eta zabaltzea estrategikoa bihurtu zen sistema patriarkalarekin eta berauk eragiten duen indarkeriarekin amaitzeko helburuan.

Gurera ekarriz, estatu espainiarrak ETAren aurkako errepresioaren bidea areagotzeko estrategia hartzen du hamarkada honetan, eta honen baitan kokatzen da ematen den gazte zein era guztietako antolakunde abertzale eta ezkertiarren kriminalizazioa (gogoratzekoa da Espainiako Polizia Nazionalak gauzatu 2009ko apirilaren 1eko sarekada, zeinetan Hernaniko zortzi gazte atxilo eramanez izan ziren Madrila Segiko kide izatearen salaketa tarteko) edota 2002ko Euskaldunon Egunkariaren itxiera. Hamarkadaren hasieran ETA erakunde iraultzaile armatuak erailketak eta erasoak gauzatzen jarraitzen zuen arren, apurka-apurka, hamarkada amaierarako, estrategia armatua behin-betiko alboratu eta gatazka bide politikotik ebazteko harriak jarriak ziren.



Hamarkada honetan ere, Hernaniko zimendu sinbolikoak astindu eta zabalduko dituen beste gertakari bat eman zen. 2007ko apirilean, Aimar Elosegi Ansak, *Moio*, bere buruaz beste egitea erabaki zuen. Gertaera honek, herrian trans pertsonen inguruan zegoen jakintza, eza-gutza eta sentsibilizazio ezan aldaketa eragin zuen, eta berandu etorri bazen ere, pertsona guztiontzat bizi-garriagoa izango zen herri baten aldeko ekimenak eta hausnarketak gauzatzeko tarte zabaldu zen, aldi batez behintzat.

Hamarkada honetan, Miru (1995), Maria Granado (1997), Eñaut (2001) eta Erick (2004) batu zaizkigu, garai-ko bizipen eta ikuskerak elkarbanatzera, eta ia erritual bilakatu den moduan, herriaren garaiko begiradak jasoz hasi dugu haiekin ere elkarrizketa. Nola oroitzen dute Hernani milurte berriko lehen hamarkada honetan?

Miru argi eta ziur hasi da. Beretzat “mugitua” eta “guda” zen Hernani. “Kaleetan borroka ematen zen” eta hitzez definitu beharko balu “beltza, iluntasuna, polizia alde guztietatik, beldurra...” etortzen zaizkio. Bere gaztaroa “bloke” garai moduan du akorduan: “alde zaharra ilun, argiak itzalita, *mobidak*, mobilizazioak...”. Mariak, aldiz, beste era bateko oroitzapenekin lotzen du garaiko Hernani hura: “etxetik eskolara eta eskolatik Zubipera entrenatzera edo jolastera”. Ez du herria gatazka politikoarekin lotzen. Apur bat gazteagoa den Eñautek, baina, erdi bidea



egin du Maria eta Miruren artean: “niri, Hernani kontu politikotik begiratzea ateratzen zait, izan duen iragana-gatik-eta. Baina, aldi berean, etxean bezala sentitu izan naiz beti eta *kariño* handiz sentitzen dut herria”.

Amaiak, garaian zegoen LGBT pertsonen iruditeriaren inguruan honakoa kontatu digu: “Jendeak gai honi buruz zekiena, batez ere telebistan ikusten zuena zen, eta agertzen zen gehiena, zaborra zen”. 90. hamarkada amaiera inguruan telebistan agertzen hasi ziren lesbiana, gay eta pertsona transen irudiak, oso estereotipatuak ziren. Horren eredu moduan jartzen ditu 2000. hamarkada honetako programa arrosetan LGBT pertsonen inguruan ematen zen irudia, edo Espainiako *Telecinco* telebista kateko *Cronicas Marcianas* programan oso ezagun egin zen Boris Izaguirrereren kasua: “Tamalez, beti bukatzen zuen galtzak orkatileraino jaitsita. Eta jende askok, baina batez ere jende helduak zuen kontzeptua hori zen, *que eramos unos promiscuos, que íbamos montando el circo*”.

Lorek Hernaniren inguruko beste kontakizun bat josten du. Hernanin, beste herri askotan bezala, hegemonia heteropatriarkala indarrean zegoela (eta dagoela) aipatzen hasten da, eta horrek, indarkeria eragiten ziela disidentzia sexualean kokatzen ziren pertsonen: “oroitzen dut Herne (Hernaniko Neska Talde Feminista) sortu genuenean herria karteletz bete ondoren mutil dezente etorri zitzaigula gure jarduna zalantzan jartzera. Zentzu horretan, 16 urte



horietatik hona zenbait eduki feministek zilegitasun handiagoa dute, baina, muineko aldaketa handirik ez dut sumatzen. Bestetik, uste dut badaudela mekanismo batzuk zure herriarekin lotuta gatazka eta presio sozial guztiak handiagoak egiten dituztenak”.

Hezkuntza arloaren pertzepzioari dagokionez, jakin nahi izan dugu Ixiarrek arestian aipatu sexualitate eta disidentzia sexualaren inguruko lanketa norainoko lekua zuen hamarkada honetan, bai eta elkarrizketatuen zer nolako esperientziak izan zituzten bertan. Erik Androginko kontatzen duenez, mutil femeninoa izateagatik irainak jasotzen zituen beste gelakideen aldetik.

Baina, irain edo ahozko erasoez gain, beste era bateko indarkeriatzat har daitezkeenak topatu ditugu. Aitor Huizik dioenez, bera DBH garaian konturatu zen mutilak gustuko zituela, eta konturatze horren ostean pentsatu zuenak elkarbanatu ditu gurekin: “ni ez nintzen inoiz erasotua sentitu nire orientazio sexu - afektiboagatik”. Baina, aldiz, erreferentzia eta helduleku falta ikaragarria sumatu zuen: “mutilak gustuko nituela konturatu nintzeanean, ingurura begiratzen nuen eta ni bakarrik nengoen. Beste inork ez zuen nire egoera berdina, ez zegoen ezer”. Urteak pasa ahala, ordea, bere inguruko jendea armairutik ateratzen hasi zen: “Jende pila bat! Nire inguruan, bai! Beno, atera izan da jende asko gustatu izan zaizkiola lehenengo aldiz bere genero berdineko jendea”. Honek,



halabeharrez, beste galdera batera eraman gaitu: berdintasuna eta pentsamendu askatasuna sustatzen duela esaten duen hezkuntza moduko instituzioak, ez ote du, hain zuzen, heterosexualitatean hezten jarraitzen, ia era erabatekoan?

Hari honi tiraka, hezkuntzan ea sexualitateak eta desiraren orientazioaren inguruko lanketak egiten ote ziren galdetu diogu: “4.DBH inguruan Gehituko¹ bi pertsona etorri ziren, hau da, 16 urte nituela! Nik 14 urterekin esan nion lehen lagunari mutilak gustuko nituela, beraz, esango didazu zuk a zer 2 urte, zure inguruan zu bezalako inor ikusi gabe. Tira, bada, Gehitukoak etorri ziren eta oso kontu *erresiduala* izan zelaren sentsazioa dut. Esplikatu ziguten zer zen pertsona homosexual bat, zer esan nahi zuen *homo* hitzak, ez zuela gizakia esan nahi, berdina baizik, kondoa inportantea zela, zer zen HIESa, eta horrela. Eta ni, berdin geratu nintzen”.

Sexualitatearen eta desiraren orientazioaren aniztasun eta plastikotasunaren inguruko lanketak ez zirela sakinak onartu beharrean gaude, beraz, ezta perspektiba aldetik zabalak ere. Hau da, topatzen duguna da, arau heterosexualetik ateratzen den eta “*erresidualtza*” jotzen den hori sostengatzeko saiakera, baina ez da heterosexualita-

□ 1 Gehitu, 1997an Donostian sortutako irabazi asmorik gabeko elkarte da. Bere helburu nagusia “gay, lesbiana, bisexual eta transexualek dituzten eskubideak oso-osorik ontzat hartuak izatea” da.



tea bera zalantzan jartzen, ezta gaiak generoarekin duen harreman zuzenarekin elkar lotzen ere.

Ixiarrek, irakasle eta orientatzaile izan den aldetik, uste du hezkuntza munduan LGBT gaiak “tabu bat izatetik, ezaguna izatera” pasa direla, “eta horrek normalizatzen laguntzen du. Baina normalizatzeko horrek ez du bermatzen homofobia ez gertatzea, gizartean bermatzen ez den bezala, baina bai aukera gehiago ematen duela hitz egiteko, libreago sentitzeko”. Era berean, aukera heterosexualetik at kokatzen diren beste adierazpenak erasotzen dituztenak gutxitu ez direla argi du: “gero beti topatzen zara sektore batekin aprobetxatzen duena edozein egoera norbaitekin sartzeko, eta kasik ibili behar zarela polizia bezala. Laburrean esanda, homofobia ez da gutxitu, baidarik eta eraldatu egin da, beste forma bat hartu du”.

Mariak, zuzenean homofobiarekin lotu ez duen arren, ondorengo kontakizunean, eskolako dinamika heteropatriarkalak azaltzen ditu. Txikitatik futbolekin aritu den neska izan da, “eta hor konturatzen nintzen ez zela neskak orokorrean jolasten zuten jokoa, baina nik jokatu nahi nuen, eta nork esango zidan ezin nuela? Horregatik, jolas garaietan futbol zelaira jaisten nintzen eta hautatu egiten zidaten”. Detaile bat aipatu digu jarraian: “nire adineko mutil asko baino hobeagoa nintzen, orduan, igual zitzaien nik jokatzeko, zeren haien begietara ez nuen enbarazu egiten”. Ongi demostratu behar izan zuen, beraz,



berak hor egoteko zuen balioa. “LH6-ra arte, esango nuke ez nintzela neska bakarra izan futbolean aritu zena”, baina egun bai konturatzen dela DBH-ra igaro zenean langa moduko bat egon zela, zeinak neskak futbol zelaitik kanporatu zituen: “gero DBH-n klaseen artean egiten ginen txapelketetan bai nintzela bakarra”. Hezkuntzako etapa honetan, jolasa ere “gizonago” bihurtzen joan zela gogoratzen du, futbolean esamolde eta hitz tonu bortitzak nagusituz, eta lesio bat medio, ez zen jolasten jarraitu: “LH-n eta DBHko 3. mailara arte edo, hori ez zen bizitzen”, baina mutilen artean gizonkeri hori ematen hasi zenean “pereza” ematen hasi zitzaizkiola gogoratzen du.

Loreren ikuspegiak, hezkuntzan LGBT gaiek zituzten ertzak biltzen ditu, bai eta generoarenak ere: “eskola garaian LGBT errealitateen inguruko lanketak eta edukiak orokorrean irakaslearen arabera ziren. Oroitzen dut lanketaren bat aukera eta askatasunaz hitz egiteko, baina espazio nahiz sakontasun handirik ez. Bestetik, eskolatik kanpo zetorren sexologo batekin sexualitate tailerrak gogoratzen ditut. Baina, ez zen feminismoaz ez eta hezkidetzaz hitz egiten, aukera ezberdinak izendatzen ziren, ezer gutxiago. Gainera, nire ustez, egoera bortitzak eta dikotomia indartzen dutenak bultzatzen ziren. Adibidez, neska eta mutilak bi taldetan jartzen ginen parez pare eta mutilen taldeak galderak botatzen zituen neskek banaka erantzuteko. Ondoren, berdina egiten zuten neskek. Nos-



ki, bereizketak sexu dikotomia indartzeaz gain, botere erlazioen arabera erantzunak botatzen ziren (askotan gezurrak noski). Mutilak sexualitate hiperhetero eta hiperaktiboa erakusten zuten eta neskek heteroa, eta erromantiko nahiz zalantzatia (hau da, mutil nahiz nesken rola heterosexualitatean). Beraz, ariketa honek hetero-erakua indartzeko balio izan zuen. Baina, oroitzen dut, tailerra eta gero neska batzuk batu ginela eta gure artean hitz egiten hasi ginela, bakoitzak esandako gezurren inguruan, gure desira nahiz praktikak ez baitziren horren heteroak ez eta horren erromantikoak”.

Dena den, une batean, hezkuntzak jendarte eraldaketan duen pisuaren inguruan “hezkuntzaren garrantzia *sobre-dimensionatzen*” dela aipatzen du Lorek. “Hau da, noski eskola eragiteko eremu bat dela, baina, behin-behineko hitzaldiak oso azalean geratzen dira eta askotan haur nahiz nerabeek politikoki zuzena dena adierazten ikasten dute”. Feminismoek zeharkako izaera izan beharko lukete, beraz, Loreren iritziz, eta ez 2000. hamarkadan zein gaur egun feminismoek duten izaera puntual eta hondarrekoa.

Hamarkada erdi aldera, zehazki 2005eko ekainaren 30ean, espainiar estatuko Diputatuen Kongresuan “Ezkontza Berdinzalearen Legea” onartu zen, eta hiru egunetara, legea indarrean sartu zen. Munduko hirugarren herrialdea izan zen lege hau onartzen, eta helburua, bi-



kote homosexualek ezkontzaren bitartez lortzen zituzten eskubideak bikote heterosexualak lortzen zituztenekin parekatzea zen. LGBT eskubideetan aurrerapauso gisa ulertzen da, oro har, heterosexualena soilik zen eskubidea demokratizatzen zelako.

Halere, hau ez zen izan goizetik gauera etorri zen zer-bait. Bide horri eutsi dio Aitorrek, aipatu duenean lege hori onartu zenerako “atzetik lana aurreratua egongo zela” suposatu duenean. Izan ere, lege horren onarpena heldzerako, hamarkadetako LGBT kolektibo desberdinen borroka egon zen, eztabaida, hausnarketa eta gatazka askorekin. Horien artean, ezkontza eskubide emalea izan behar zen edo ez. Aurretik Pilonek aipatu duen moduan, LGBT kolektiboen artean bi ildo nagusi gailentzen ziren: erreformista, heterosexualen eskubideekin parekatzeko estrategiaren aldeko borrokatzen zirenak, eta erradikala, ezkontzaren instituzioa zalantzan jarri eta zartatzeko proposamenean zihardutenak, bikotetik haratago zaintza eta afektuen artikulazioak pentsatzera zihoazenak.

Elkarriketatu gehienek, eztabaidak eztabaida, positi-boki baloratzen dute legearen onarpena. Eric Androginok, adibidez, garaipen moduan bizi izan zuela gogoratzen duela, eta Xabik dioenez, bere bizitzan inpaktu zuzenik izan ez zuen arren, “sinbolikoki aldaketa oso garrantzitsua izan zela” aipatzen du.

Amaiak ere data hura gogoan du, eta adibidez, bere



kasuan, haurra izateko eta haur horren guraso izateko garaian lege honek aldaketa esanguratsua ekarri zuen: “Ni, adibidez, ezkondu izan ez banintz, nire bikotea ez zen bere ama izango, orain gertatzen den bezala. Nire bikoteak adoptatu egin beharko luke. Eta lege honekin, eskubideak parekatu ziren”. Argi ilunak azaleratzen ditu halere. Izan ere, ezkontza lege honek “patroi berdina jarraitzen du” bere ustez, eta beste era batera antolatzen diren harreman sareak ez direla aurreikusten aipatzen du: “Ezkontza legeak oraindik ez du ahalbidetzen hirukote bat ezkontzea. Nik ezagutzen dut hirukote bat zeinak haur bat duen, eta ez dago hori jasoko duen formularik”. Eta susmo batekin amaitzen du: “Jende ez dago oraindik horretarako prestatua, ez zaio buruan sartzen. Guraso-bakar izatearena, bale, baina bitik aurrera, eso ya es multitud”.

Lorek, bere aldetik, hamarkada honetako aurrerape-nen artean kokatzen du Ezkontza Legea, *baina* batzuekin. “Erantzun homofobo asko ekarri zituen eta aldi berean ‘onarpenaren diskurtsoa’ indartu zuen. Halere, ez dut uste Ezkontza Berdinzalearen Legea gure helburu politiko denik. Noski, ezkontza arautua badago eta pribilegio sozioekonomikoak ekartzen baditu, guztiok eduki behar dugu aukera. Baina, nire ustez ezkontza kontratu sozioekonomiko modura desagertu beharko litzateke eta pentsatu zer nolako politikak eraman nahi diren aurrera ‘el-



karbizitza sareekin lotutako egiturak eraikitzeko. Zeinak ez diren arau heterosexualean oinarritutako bikoteetan oinarrituko, sare zabalagoak aintzat hartuko dituen...”

2000. hamarkada honetan, legeak aurrera zihoazen, eta LGBT pertsonen ikusgaitasun eta “normaltasuna” ematen ari zela pentsa genezake, bai eta, ongizatearen aldetik, aurreko hamarkadekin alderatuta LGBT pertsonak egoera hobeago batean geundela ere. Parentesi bat zabaldu nahiko genuke, hain zuzen, hobekuntza eta aurrerakuntza kontzeptuen inguruan, eta ondorioetan jasota egongo den arren, ondorena ulertu ahal izateko argitu nahiko genukeen zerbait da. Hobekuntza kontzeptuak, aurrerapen kontzeptuarekin lotura zuzena duen hitza da, hau da, egoerak infinituki gero eta hobeagora egiten duenaren sinismenarekin. Ez dago zer esanik, garai bakoitzean hegemonikoa den diskurtsoak ikuspegi hau erabat gurutzatzen duela, eta beraz, begirada horretatik kanpo dagoen oro ulergaitz, pentsaezin edo ikusezin bilakatzen dela. Eta zerbait ikusezina bada, ez dago nola ulertu gertakari bat.

2007ko apirilean, Aimar Elozegi Ansak, Moio, bere buruaz beste egin zuen. Mutil transa zen bera. Kattalin Minerrek 2019an bizitza-heriotza honen bueltan “Moio, gordetzea ezinezkoa zen” liburua idatzi zuen, Aimarren gertuko eta ingurukoekin egindako elkarrizketa sorta eta hausnarketak batzen dituen liburua.



Gertakariaren inguruan galdetu diogu Loreri. “Moio laguna zen eta lagunarte osoan eragin handia izan zuen. Bereziki tristura eragin zidan, gertuko norbaitek bere buruaz beste egiten duenean gertatzen den modura. Baina gainera, transfobiarekin eta patriarkatua-heteroaraua binomioak sortzen duen minarekin lotutako heriotza izan zenez inpotentzia handia ekarri zidan. Urte horietan hasi berri nintzen feminismoan eta lagun artean biltzen ginen gai feministak lantzeko. Nik uste dut Moioaren heriotzak argiago erakutsi zidala heteroarauaren eta patriarkatuaren arteko erlazioa, beraz, sakontasunez sentitu nuen transmarikabollo gatazkak borroka feminista direla”.

Beste elkarrizketatuetako batzuk ere inpaktu handiz bizi izan zutela dute buruan, Eric Androgenok edo Luisek kasu. Azken honen hitzetan, “*Shock* bat izan zen... eta herri honetan asko markatu zuen horrek sexu askapenaren inguruko pertzepzioan eta eguneroko beharretan”.

Miru eta Aitor eskolan zeuden egun horretan. Miruri, Moio bera baino zaharragoa izanagatik, zuzeneko eragina izan ez zuen arren, kolpatu zuen zerbaiten moduan gogoratzen du. Aitorrek, aldiz, gogoan du egunean bertan irakasleen aldetik gaia eskolan landu izana: “Hartu gintuzten, eta irakasleek esplikatu egin ziguten gertatu zena: ‘begira, gure ikasle ohia zen, eta hau eta beste’. Ni gogoratzen naiz nahiko ‘zen bezala’ ulertu genuela”.

Aitorrek Ixiar kokatzen du egun hartan azalpenak



eman zizkien irakasle moduan. Berak, harreman estua zuen familiarekin. Gurera, Aimarrek utzitako kartetan jartzen zuena ekarri du: “Egunean bertan bere testuak irakurri genituen, eta argi azaltzen zen testu horietan berak nahi zuela gizarteak pausu batzuk ematea zentzu honetan. Berak ezin zuelako izan nahi zuena”. Leku bat ez zuelako topatzen. Edo bizi garen jendarte honetan, generoaren mugak gurutzatu eta nork bere etorkizuna autodeterminatzeko aukerak ez direlako ematen. Eta hitzokin jarraitzen du: “Niretzat argi dago ez dela nahikoa familiarik edo lagunen partetik babesa egotea. Gizartean leku bat behar du honek. Zeren bestela, jasotzen dituen begiradek bera den hori kuestionatzen dute eta horrek min eman behar du nahi eta nahi ez. Denoi egiten digu min zenbait begiradak”.

Ixiarrek aipatu duen “gizartean leku bat behar du” horri segika, Aitorrek ez du zalantzarik izan Hernanin LGBT pertsonentzat espazio seguruak ez daudenik: “Niri ez zait iruditzen pertsona trans batek herriko leku guztiak seguruak dituenik. Nik zis bezala ez badauzkat...”.

Gerora leku, toki, espazio bat sortu bazen, honek zer nolako eragina izan ote zuen dabilkigu buruan bueltaka. “Nik uste, uhin bat izan zela. Uhin bat eragin zuela eta gauza batzuk mugitu zituela. Estructura zentralak ez, eta zutabe zentralak, horiek argi ezetz” dio Miruk. Baina argi du, “uhin bat izan zela eta eragin zituela gerora beste



uhin batzuk". Horren adibideak emanez eman dio segida hizketaldiari: "Gerora egon diren praktiketan garrantzitsua izan da, heteroaraua edo zis egoera kuestionatzea, eta horrek eraman du gerora beste talde edo kolektibo batzuk egotera".

Lorek, herriak emandako erantzuna ekarri du gogora: "Esango nuke erantzun politiko, indartsu eta hunkigarria gertatu zela. Uste dut pertsona askori gaiaren inguruan pentsarazi zigula". Askotan aipatu eta entzuten den zerbait da Aimarri herriko plazan egin zitzaion omenaldi hura. Bertan ginenok, gure txikitik, ikasten eta ulertzen saiatu ginen, artean ikusezin egiten zitzaiguna. Ikustezina, ikusten, ikasten emanaldia antolatu zen Hernaniko Berdintasun Kontseilutik hurrengo urteko otsailaren 2an, Sandiusterri aretoan, eta hura ere goraino bete zen. Bertan, bere senitarteko eta lagunak igo ziren oholtzara, bai eta Orniturrinkus kolektiboa ere, Judith Montero, Maialen Lujanbio eta Xabier Erkiziak osatutako taldea. Emanaldiaren zergatia Berdintasun Kontseiluak azaldu zuen bere blogean: "Amaia-Aimarren borroka gogoratu eta eskertu nahi dugu. Oraindik ere, gure gizarteak arazo asko eta latzak sortarazten dizkie transexualei, normaltzat jotzen denetik at egoteagatik. Joera sexualetan aurrerapausoak eman badira ere, gizon eta emakume kategorietatik haratago geure burua eta, batez ere, besteena ulertzea oraindik ere zaila egiten zaigu. Gizontasuna eta



emakumetasuna kaxa itxiak dira eta jendarteak horietako bat, bakarra, esleitzen digu jaiotzean ditugun genitalen interpretazioa dela medio. Honen aurrean, ozenki aldarrikatu nahi dugu norberak nahi duen modukoa izateko eskubidea”.

Arestian aipatu den moduan, 2019an Minerrek “Moio, gordetzea ezinezkoa zen” argitaratu zuen, eta honen bueltan, hausnarketa hau elkarbanatu du Lorek gurekin: “2019an aurkeztutako liburua, bertso saio eta mahai inguruarekin hausnarketa sakonagoa burutu da. Hau da, momentuan erantzun indartsu nahiz politikoa gertatu arren, ez badago herri nahiz kultur ekimenik, ahazteko edota gertakari isolatu bezala gogoratzeko tendentzia nagusitzen da”.

Luis ziur da “Aimarren tankerako beste hainbat kasuekin memoria eza egon dela ez genekielako herri bezala ongi kudeatzen”, eta zentzu honetan, Minerren liburuan memoriaren inguruan egiten den planteamenduan jarri nahi izan du fokua: liburuak memoria jostearen “ariketa kolektiboa planteatzen du, eta hori oso beharrezkoa da”.

Eragina eta uhina aipatu dituzte elkarriketatuek. Baina era berean, kasu honen inguruko lehen informazioa elkarriketa unean jaso dutenak ere egon dira, eta honek, herri honetan eman diren gertakarien transmisio katean eten bat egon dela erakusten du.

Hamarkada amaiera aldera, Euskal Herrian diskurtso



aldaketa bat dator LGBT eta feminismoaren borrokak nolabait uztartu eta bazterretan kokatzen diren bestelako subjektuekin aliatuz jendarte egitura erradikalki iraultzeko proposamena dakarrena. Baina, bilakaera hau ulertzeko, urte batzuk atzera egitea beharrezkoa da.

2000. urtean Medeak taldea sortzen da Donostian, emakume lesbianeaz osatutako taldea. Egizan desegiten da urte honetan ere, eta bi urteko hausnarketa prozesuaren ostean, Euskal Herriko Bilgune Feminista sortzen da, emakume eta abertzaleak diren feministak batzen dituen taldea. Pilonek kontatzen digunez, 90. hamarkadan “lesbianen kolektiboen beherarakada hasi zen”, baina milurte berri honen hasieran eman ziren diskurtso eta artikulazio berriek, hamarkada erditik aurrera gero eta indar handiagoa hartuko zuten Mugimendu Feminista eta lesbianen kolektiboetan berebiziko garrantzia izan zuten. “Bilgune Feminista sortu izana, Euskal Herriko Mugimendu Feministari indar handia ekarri zion zerbait izan zen”, baina era berean, tristezia adierazi du, izan ere “Emakumeen Asanbladek indarra eta potentzialitatea galdu” zuten.

Lore Medeak-eko kide izan zen, 2020. urtean taldea desegin zen arte, eta honela gogoratzen du hamarkada honetako amaieran emandako paradigma aldaketa hura:

“Prozesua aktiboki bizitu nuen. Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministetan (Portugalete, 2008) Medeak tal-



detik subjektu politiko feminista ezbaian jartzen zuen *Aullidos de cuerpos insumisos* izeneko ponentzia aurkeztu zen. *Queer* politiketatik sexua kategoria biopolitiko bezala aldarrikatzen ari zelarik, 'emakume' subjektua *desesentzializatze*ko hausnarketa feminista plazaratu zen eta heteropatriarkatuarekiko intsumisoak diren gorputzak aldarrikatu. Ildo honetatik *Drag King* praktikak nahiz lesbianismoa posizio politiko bezala azpimarratu ziren.

Bestetik, aipatu bezala, bazterretako diskurtso nahiz ekintzak batzen hasi ziren eta Granadako Jardunaldi Feministak (2009) nahiz Bartzelonako I Jardunaldi Transfeministak (2010) izan ziren estatu mailan transfeminismoaren eratze eta saretzearen oinarriak. Guzti honekin lotuta ezagutu nituen *Drag King* tailerrak, *Post-Porno* mugimendua Bartzelonan, trans mugimendu kritikoa *Guerrilla Trabolaka* Bartzelonako taldearekin e.a. Beraz, banako nahiz kolektibo modura Medeak taldeko kideon artean barne eraldaketa indartsuak bizitu genituen. Noski, aldaketa horiek beti egon ziren hitzaldi, ekintza nahiz beste kolektiboekin elkartrukeekin loturik.

Queer hitzak ingelesez desbideratua, marika, bollera adierazten du. Beraz, testuinguru anglosaxoitik kanpo ez du esanahi hori. Gainera, subjektu feminista *des-esentzializatu* eta zabaltzeko helburuaz gain, botere erlazioak nahiz disidentziak izendatzeko kategoriak beharrezkoak ditugu. Horregatik, Estatu Espainiarrean *bollera*, *trans*,



marika nahiz *transfeminismo* hitzak gure egiteaz gain, feminismoarekin, erresistentzia eta mugimendu politikoe-kin lotzeko beharraren garrantziaren ondorio izan zen. Gure genealogiak azpimarratzea oso garrantzitsua da, eta zentzu horretan, ez gara haustura batez ari, feminismoaren nahiz disidentzia sexualen erradikalizatzea indartzeaz ari gara.

Hortaz, euskal testuinguruan nola eragin zuen honek? Esango nuke Euskal Herrian beste kolektibo nahiz bainako transfeministekin saretzen eta ekimenak garatzen hasi ginela. Adibidez, azpimarratuko nuke Donostiako Koordinadora Transmarikabolloa. Hasiera batean erresistentzia nahiz gatazkak ere izan ziren. Baina, esango nuke denbora gutxian zabalkunde handia gertatu zela antolaketa nazionalako zenbait kolektibo, komunikabide, argitaletxeetan diskurtso nahiz eragile transfeministak sartzearekin loturik.

Bertsolaritzan eta literaturan ildo honetan ere diskurtso eta subjektu transfeministak sartzeak eragina izan du. Zentzu horretan euskal testuinguruak badu berezitasuna beste testuinguruekin alderatuta, adibidez, ez dagoe- la horrenbesteko distantziarik zabalkunde nazional eta lokalen artean. Hortaz, errazagoa da batetik bestera eragitea. Baina, hasieran erresistentzia handiagoak izan ziren modura, ondoren erantzun erreakzionarioak garatu direla nabarmentzekoa da. Hau da, ezkerrean ere gizon



heterosexualen hegemonia indartzeko diskurtso nahiz praktiken gorakada bat gertatu da”.

Elkarriketatu ditugun beste batzuei ere galdetu diegu, ea paradigma aldaketa hau nabaria izan zen, eta baiezkoan, ea nola bizi izan zuten.

Pilonek, urteek emandako eskarmentua kontuan harturik, honakoa hasten da esaten: “beste mugimenduetan gertatzen den bezala, ematen du zerbait berria esaten ari direla, baina niretzako, hizkuntza edo esateko moduak aldatuko bagenizkio, ez legoke hainbesteko alderik”. Honen aurrean, Aitorrek, “feminismoa aterki zabal bat” bihurtu izanaren sentsazioa duela dio, eta transfeminismoa dela “aterki hori gehiago zabaltzea, erradikalizatzea... jende gehiago barne hartzea dakar, babesa handiagoa da” Amaiak ere gogoan du Medeak taldekoak Hernanin eragiten aritu zirela, eta “hauek bai diskurtso bat sortu zutela”. Medeakekoek herrian sortu zuten erreakzioaz gogoratzen da: “Jendeak esaten zuen, *‘pero es que no se definen’*, *‘¿Qué son? ¿Tias? ¿Tios? ¿Les gustan los rabos? ¿Las tetas?’*, eta nik erantzun behar izaten nien ez dugula zertan definitu behar, *‘¿Qué sean lo que les de la gana y les guste ser!’*”.

Miruren ustez Euskal Herrian “*kriston* garrantzitsua izan” zen paradigma aldaketa hau. Lorek aipatu duen herri – nazio artean dagoen distantzia txikiari erreferentzia eginez, honako kontatera egiten du: “Euskal Herriko herrietan bizi garenok bizirauteko eta bizitzeko sare



nazionala edo haratagokoa behar izaten dugu. Orduan, iruditzen zait izugarrizko garrantzia izan zuela. Uste dut garrantzia izan zuela Medeak taldeak, urteetan egin zuen lanagatik bai Hernanin, bai Donostian, eta baita haratago ere". Dena den, ez du ikusten Hernanin hamarkada hone-tan paradigma aldaketa honek berebiziko isla izan zue-nik; aldiz, badu "Karbonera" izeneko espazio okupatu eta autogestionatuaren bueltan eman zirenen berri: "nik datak-eta ez dakizkit, dakidana da Hernanin mugimen-du transmarikabollo konkretu bat egon zela, eta feminis-mo punkiako bat, erradikalagoa". Baina hauek, hurrengo hamarkadako kontuak dira.





2010. HAMARKADA: HAU AL ZEN ETORKIZUNA?

Hamarkada honetan, hainbat izango dira munduan zehar gertatuko diren gatazkak eta sortuko diren talakak. Baina, munduan eragin handia izango duen lehen mugarria, Udaberri Arabiarra izango da. 2010. urtearen amaieran, Sidi Bouzid saltzaile ibiltari tunisiarrak bere burua immolatu zuen. Horrek, herritarren haserrearen katalizatzaile funtzioa izan zuen, eta denbora gutxiren buruan, sortu protesten ondorioz, Tunisian 20 urte boterean zerraman Zine El Abidine Ben Ali presidenteak dimisioa eman zuen.

Halere, protestak Tunisiatik Afrika iparraldeko beste herrialdeetara zabaldu ziren. Egipton Mubarak presidentea dimisioa ematera behartu zuten protestek eta Libian sortu zen gatazka armatuaren ondorioz, Gadafi presidentea eraila izan zen. Siriara ere zabaldu zen herritarren haserrearen hotsa, baina bertako presidenteak botereari eustea lortuko du hamarkada osoan zehar emango den Siriako Gerra ezagunean.



Siriako Gerraren ondorioetako bat, Estatu Islamikoaren Kalifatoaren sorrera izan zen. Estatu Islamikoa, 2014 – 2017 artean Siria eta Irakeko lurraldeetan indarrean egon zen protoestatua izan zen. Hau, fundamentalismo yiha-dista wahabitan oinarritzen zen, eta ezagun egin zen, oso, Asia eta Afrikako herrialde desberdinetan eragin zituen milaka hildakoengatik baino, Frantzia jazo ziren erasoen ondorioz.

Europara heldu zen, beraz, Udaberri Arabiarrean piztu ziren suen eraginak. Historian gutxitan eman den moduan, potentzia mundialek haien interes politiko eta materialak asetzeko garatzen zituzten kanpo-politiken ondorioa, eztanda egiten hasi zitzaientzen, haien lurraldeetan bertan. 2015ekoak dira europar lurraldeetan eman diren eraso ezagunenak, eta zehazki, Frantziako Estatua-ren aurkakoak. 2015eko urtarrilean Parisen Charlie Hebdo aldizkari satirikoaren aurkako erasoak egon ziren, Mahomaren erretratuaren inguruko umorea egiteagatik, eta azaroak 13ko gauean beste eraso saio bat izan zen. Tristeki ezagunena, Bataclan aretoan emandako erasoak izan zen, bertan 90 pertsona erail zituztelarik.

Baina, geopolitikaren ondorioak ez dira europar herrialdeetan tentsioa sortuko duen gai bakarra. 2008ko krisi ekonomikoaren kudeaketa garaia ere izan zen hain markada hau. Alemaniak, eta Europako herrialde aberatsenak, austeritate ekonomikoaren formula txertatzea



beste aukerarik ez zegoela iritzita, Nazioarteko Diru Funtsaren, Europako Banku Zentralaren eta Europar Komisioaren (*Troika* deitu izan zitzaion hiruko honi) aholkuz, krisi ekonomiko sakonean zeuden herrialdeak politika ekonomiko murriztaileak aplikatzera behartuko dituzte. Herrialde hauek Portugal, Irlanda, Grezia eta Espainia ziren (*PIGS* ere deitu izan zieten herrialde hauei tabloide anglosaxoietan), eta guztiak ala guztiak, erreskate ekonomikoaren truke, aipatu formula aplikatu zuten haien herrialdeetan, herritargo zabalaren interesen aurka eta haien prekarizazioan sakonduz. Hauen artean, aipatzeko kasua izan zen Greziakoa, zeina moneta batasunetik irtetekotan egon zen, aplikatzen ari ziren politika ekonomiko murriztaileak fruituak eman ez eta herrialdea suntsitzen ari izanaren ondorioz. Greziak, halere, moneta batasunaren barruan jarraitu zuen eta austeritate plana aplikatu zuen, herrialdean 2015. urtean egin zen erreferendumean, Troikaren formulak ez onartzearen aldeko bozak argiki irabazi bazuen ere.

Espainiar estatuan, zegoen eredu bipartidistaren eta gobernutik hartzen ari ziren neurri ekonomiko murriztaileek eragindako neke eta haserrea, *2011ko maiatzaren 15eko* edo *15M Mugimenduan* egikaritu zen. Egun berean estatu osoan egin ziren manifestazioen amaieran, batzuk, plazan bertan lotan geratzea erabaki zuten. Madrilgo Sol Plazan izan zen lehen gualdi hura, baina jarraian bes-



te hirietan ere jendea plazak hartzen hasi zen. Aldarrikapenez josi ziren plazak, eta asteetan zehar, asanblada andana egin ziren gai desberdinen inguruan hausnartu eta alternatibak proposatzeko. Ekaina amaierarako, mugimendua latentzia fase batean sartu bazen ere, 15M-ak urte batzuetara izan zuen islarik maila politiko instituzionalean alderdi politiko berrien sorrerarekin. Eskuin zein ezkerrera eman zen alderdien sorrera hau, oraino ezagutu zen bipartidismoaren ustezko amaiera ekarriz.

Smartphone eta sare sozial digitalen erabileraren orokortzearen hamarkada izan zen hau ere. Aurreko hamarkadan sortu Twitter, Facebook edo WhatsApp aplikazioak, era masiboan erabiliak izaten hasi ziren, informazio iturri klasikoak (egunkariak eta telebista) bigarren maila batera igaroz, eta internetek ordura arte zuen gizarte-funtzioa izugarri zabalduz. Eztabaida politikorako lur ongarritua bilakatu zen, eta honekin, mugimendu sozial batzuen zabalpen eta aldarrikapenen orokortzea etorri zen. Ildo honetan kokatu daitezke feminismoek (mundu mailan ezaguna egin zen *#MeToo* traol-hitza, abusu sexualak jasan izan zituzten emakumeek salatzeke erabili zutena) zein LGBT (*Queer* mugimendua, pertsona transen ikusgaitasuna...) bezalako pentsamendu politikoek izan zuten saretze digitala, bai eta espektroaren beste aldean, eskuin muturreko mezu politikoek ere.

Sare sozial digitaletan, ordura arte ahotsik ez zuten ko-



lektibo eta banakoei adierazpen esparru bat eskaini zien. Baina, txanponaz bestaldean, jendartearen manipulaziorako tresna ere bazegoen. *FakeNews* delakoan garaia izan zen, hau da, mezu motz bidez transmititzen ziren albiste ez kontrastatu eta faltsuen zabalkundea; honen ondorio zuzena izan zen, informazioaren garaia deitua zen honetan, gezurrik handienak egiaztat eman eta hedapen gehien lortu zuten garaia izan zela.

Amerikako Estatu Batuetako 2016ko hauteskunde presidentzialetan Donald Trump enpresa-gizon eta *showman*-ak irabazi izanak ere harreman estua izan zuen sare sozial digitaletako dinamikekin. Eta ez soilik *FakeNews*-ak medio. Eskuin muturreko estrategia, mezu motz eta populisten zabalkundean oinarritu izan zen munduan zehar. Eta hau ere, Europa osoko eskuin muturreko alderdien gorakadaren atzean zegoen estrategiaren faktore komunitario bat izan zen; hala uler daitezke, *Front National*-eko Marine Le Pen-en alderdiaren gorakada Frantziako Estatuan, edo *Vox*-ekoek parlamentuan izan zuten eserlekuen gorakada Espainiako Estatuan.

Euskal Herrian, eskuin muturraren gorakadarik etzen egon garai honetan, izan ere, beste une historiko batean kokatzen zen politikoki. Gatazka politiko armatutik, gatazkak eragindako ondorioak kudeatzeko garaira igaro zen. Honek, jendartearen pentsamenduan aldaketa ekarri zuen, ikuspegi eraikitzaile batetik eraikitzen hasteko



garaia zabaldu baitzen. Aurretik ikusi dugun moduan, mundu mailan zabaltzen aritu ziren eta lehendik Euskal Herrian indar handiz eragiteko gaitasuna zuten mugimenduek gorakada izan zuten, feminismoek batez ere.

Gurera ekarriz, 2010etik aurrerako testuinguru politikoak ekarritako sakoneko aldaketak, Hernanin ere aldaketa handia ekarri zuen. Jada ez ditugu “iluntasuna”, “guda” eta “borroka” bezalako hitzak entzun herria definitzerakoan, eta bai ordea “apatia”, “geldialdia” edo “noraeza” bezalakoak. Hitzok, baina, nazio gatazkek kalean zuen islaren definizio modura erabili dira batez ere.

Izan ere, Hernanin bestelako mugimendu sozialek ere leku izan zuten urteetan zehar, eta agian, hain zuzen, oraino erabateko lekua hartua zuen borrokaren desplazatzeak, beste borroka batzuek kaleetan isla handiagoa izatea ekarri zuen. Hala ere, hau susmoa besterik ez da.

2011an, Luis Intxauspek Hernaniko alkatetza esku-ratzea lortu zuen. Bere burua heterosexualizat ez zuen lehen alkatea izan zelakoan gaude, eta jakin nahi izan dugu zer nolako bizipenak eragin zizkion honelako bostere posizio publikoa betetzerakoan. Eta honela hasi du bere kontakizuna: “Ni 2011n udalera iristera nindoanean, egin nuen horrelako ariketa bat edo nire buruari galdera bat, esanez ‘ostia, niri honek zer suposatuko dit’. Nire ibilbide pertsonalean lanketa handia egin dut ni naizen hori era aske batean bizitzeko. Eta bai, bai izan nuela galdera



hori buruan: ‘honek nola eragingo dit?’. Izan ere, ni nentorren lekutik, AEKtik, herri mugimenduetatik, euskalgintzatik... erabat desberdina zen. Eta, zentzu horretan, nik nirekiko lanketa handia egin nuen eta egiten segitzen dut.

Alkatetzara sartu nintzenean, uste nuen nire bizitza sexuala eta afektiboa bukatuko zela, eta ez. Nire agintaldiaren hasieran, adibidez, bai nabaritzen nintzela kikkilduago, eta adibidez, Hernanin ligatze horretan, hor nabaritu nuen aipatzen dizuedan hau. Nik garatua nuen askatasun bat galdu nuen, baina nik mugatua izan zen. Eta beno, hor lanketa bat egin nuen nire buruarekin eta, azkenean, alkate izan naizen 8 urteetan, Hernaniko jendearekin ligatu izan nuen! Baina eragiten du eta niri eragin izan dit. Gehienbat badakizulako pertsona publikoa zarela eta zure bizitza pertsonala publikoa dela neurri handi batean. Eta niri horrek asko izorratzen zidan”.

Hainbat pasadizo ditu alkatetzakoak, baina trufa eta barre artean partekatu ditu, adibidez, zahar-etxeko urteroko bazkarira joaten zenekoa, bakoitzean ea “ezkondua” zegoen eta “umerik” zuen galdetzen ziotenean.

Aipatu dituen bizipenetatik at, ez du bere burua mugatutzat jo alkatetzan egon denean, eta iruzkinak jaso izan dituenean, esaterako, oposizioko alderdiengandik, onepenetik jaso dituela kontatu digu.

Karguan zortzi urte egin ostean, erreferentzialtasuna



ere izango zuela esan diogu, eta ea uste duen bera eredutzat hartua izan daitekeen. “Kanpotik ere jaso dut iritzi bat zeinak esaten zuen nire erreferentzialtasun hori probestu nezakeela publikoki egiteko eta eredu izateko. Eta uste dut eragina izan duela ni alkatetzan egoteak, eredutzat hartu izan nautela. Agian, jendeak uste duenean instituzioa patriarkala dela, heterosexuala dela... nator ni eta horrekin hausten dut eta irekitasunaren irudia ematen dut. Eta uste dut, politika instituzionalean nabaritu dela sentsibiltate hori”.

Esaten duen sentsibiltate horren adibide izan ziren praktika politikoa ahalik eta ikuspegi zabal eta barne-hartzaileenetik egiteko hautua, edo LGBT ikusgaitasunaren alde eginiko ekimen desberdinak, hala nola, 2016ko Izpizua kaleko zebrabidea ortzadarraren koloreekin margotzea, edo Hernaniko LGBT gaien inguruko lanak sustatzeko diru-laguntzak.

Bestalde, aurreko hamarkada erdialde inguruan Karbonera izeneko espazio autogestionatua okupatu zen. Jende andana ibili zen bertan bizitzen eta ekimen desberdinak aurrera eramaten. Baina 2010eko hamarkadatik aurrerako tartean, Hernanin Karbonerak izango zuen ikusgaitasuna eta inpaktua handituz joan zen. Lorek ondorengo argazki hau egiten du herriko mugimendu politikoaren eta Karboneraren inguruan:

“Ez nuke esango Hernani bereziki herri irekia denik,



ez eta heteropatriarkatua ez denik indartsuagoa bertan. Baina, aipatu bezala, borroka eta militantziak garrantzia handia du Hernanin eta esango nuke honek eragina izan duela eremu guztietan. Herriaren tamainarekiko erlazioan espazio eta komunitate transfeminista indartsua egon da eta dago. Karbonera etxe okupatuko Ikatza liburugunean hitzaldi, zineforum, liburu aurkezpen, festa zein kontzertuak antolatzen genituen”.

Miruk ere gogoan du honek Hernanin arnas-gunea suposatu ziola: “Karbonera niretzat inportantea izan zen bai gaztaroan eta baita *bollerizazio* prozesuan ere”. Karbonera, eta bere baitan kokatzen zen Ikatza Liburu-gunea “herriko eragile transmarikabollo potenteenaren” moduan kokatzen du, aitortzen duen arren, Mugimendu Feministaren baitan egon direla askatasun sexualaren inguruko lanketak egin dituzten taldeak, baina maila txikiagoan, edo beste diskurtso eta praktika batzuetatik. “Karbonerako garaia eredugarria izan zen, estrukturari eragiten ziolako LGBT edo transmarikabollo ikuspegi batetik: familiari kritika, sexu harremanen inguruan nola harremantzen garen horri kritika, kolektiboen praktika heteroarautu eta patriarkalei kritika...”.

Karboneraren bueltan, hainbat borrokek izan zuten isla: borroka transfeministak, antikapitalistak, *antidesarrollistak*, okupazioaren aldekoak... Baina egia dena da, praktika politikoaren zentzua zabaltzeko ahalegina ere egin



zela. Akaso, Medeak-en diskurtsoaren partetik etorriko zen hori, izan ere, ordura arte egiten zen feminismo serioaren aurrean, dibertsiotik, umoretik, jolasetik, adarjotzetik eta kaleak era *mamarratxoan* hartzetik egiten ziren ekintzak ere politikoak zirela proposatu zuten (haien *Aullidos de Cuerpos Insumisos II* ponentzian jaso geratu zen moduan). Eta horren isla izan ziren Karboneratik Hernani osora zabaldu ziren ekintzak.

Eta festak. Festak ere politikoak ziren. Baina festak, batez ere, herrian desira ez heteroarautua zuten pertsonak *izateko* eta dibertitzeko, korapilatzeke, artikulatzeko eskaintzen zuen espazioa zen. Gogoangarriak izan ziren Ekainak 28ko Harrotasunaren Egunaren bezperan egiten ziren festak (San Joanetako gau bat erabiltzen zen egun honen aldeko aldarrikapen festa egiteko) edo urtarrilaren 5eko gauean ospatzen zen *Noche de Reinas* festa. Miruk, pasadizo bat gogoratzen du karboneran egiten ziren festa eta ekintzen harira: “Behin, Karbora sartu ginen kuadrillakoak. Sartu eta segituan, kartel batean hau jartzen zuen ‘Bollera naiz eta harro nago’. Orduan, nire kuadrillako batek esan zuen ‘jo, es que neri horrelako gauzak iruditzen zaizkit bollera edo lesbianentzat laguntza bat baino traba bat direla, ematen duelako ez dituztela kontuan hartzen. Eta gaur egun ez da beharrezkoa, honek egiten duena da zaildu’. Eta nik, egoera ikusi nuenean, nire artean pentsatu nuen ‘nola aterako naiz armairutik,



nire inguruan ez bada onartzen'. Eta halere, gogoratzen naiz Karbonerara sartu nintzela, eta kartel hori ikusi nuenean super ondo sentitu nintzela, etxean bezala; hau gune segurua zela sentitu nuen".

Miruk, kontatzen duen pasadizo hau, lesbofobiarekin lotzen du, eta harreman zuzena dauka Lorek arestian aipatu duen "onarpenaren diskurtsoarekin", hau da, aurreko hamarkadan zegoen diskurtso bera zegoen indarrean, esaten zuena LGBT gaiak, jada onargarriak zirela, baldin eta LGBT pertsonak heteroaurara makurtzen baziren. Eta horregatik zen beharrezkoa aldarrikatzen eta espazio propioak izaten eta sortzen jarraitzea, mundu guztiz heterosexual batean bizigarriak ziren bizitzak bizi ahal izateko ez zelako nahikoa kanpotik zetorren onarpena. LGBT pertsonak, proiektu, ekimen eta bizitza propioak nahi zituzten, heteroauraren baimenaren beharrik gabe.

Aipatzen den honen baitan, ezaguna izan zen 2014ko urrian ospatu zen *Bollorria*. Lore Lujanbio eta Kattalin Miner elkarrekin ezkondu ziren sinbolikoki, larunbat egun oso batez ospatu zen festa batean. "Lagunen artean eraikitako familia feministak aldarrikatzeko antolatu genuen 'Bollorria'. Bertan, maitasun iraultzaileekiko aldarria egiten genuen eta aldi berean ezkontza heteroauraren parodia bat. Zentzu horretan, niretzat Hernanin, bereziki Karbonera etxe okupatuaren inguruan, bai eta Hernanitik kanpoko kolektibo zein espazioekin komuni-



tate transfeminista bat eraiki genuen eta eremu hori identitate disidenteentzat espazio bizigarri bat zen”.

Hari horri tiraka, Hernaniko kaleak, jai giroa... identitate disidenteentzat espazio seguru moduan bizi zituzten galdetu diegu elkarrizketatuei. Lorek hartu du hitza, eta honako irakurketa elkarbanatu du: “Jai giroan, eraso asko gertatzen dira, emakume zein genero arauak hausten ditugunon aurka, eta orokorrean gizon heterosexualen zentralitatea agerian ikus dezakegu (espazioa hartzeko moduan, komentarioak...). Horren aurrean, ‘jai-giro feminista’ eraikitzeko ekintzak egin genituen. Hortaz, musikarekin ibiltzen ginen jai giro feminista zer zen azalduz eta eraikiaz. Umorea ere erabiltzen genuen eta gure espazioa inbaditzera zetorren edozein *maromo* aha-kartzen genuen mikrofonoa hartuta, eta gehienetan alde egiten zuten. Izan ere, errazago maneiatzten dira banakako gatazkan guztien aurrean agerian utzita baino”.

Lorek aipatu duen ideia bati heldu dio Aitorrek ere. Jai giroan orokorrean gizon heterosexualen zentralitatea agerikoa bada, historikoki, espazio publikoa eta bertan ematen diren ekintza ia guztien protagonista gizonak izan direlako da, eta honek, halabeharrez, espazioaren konfigurazio zehatz bat ekarri du, dauden kodeetan, garatzen diren errituetan eta onargarriak diren eta ez direnen arteko bereizketetan. Aitorrek, Hernaniko txosna-guneak heteroarauaren isla argi bat direla nabarmentzen



du, txosna batzuen salbuespenarekin: “Txosnen itxieran ikusi ditudan jarrera batzuk heteroarauaren barruan dauden erritu moduan ikusten ditut: gizonezkoak garra-sika hasten dira edo txosnetara igotzen hasten dira...” Eta onomatopeia bat gehitu dio deskribatze aldera zein jarrera heteroarautu dituzten protagonismoa hartzen duten gizonezkoek: “lololo hori kantatzen dute”.

Parranda giroa orokorrean ere ez dela espazio segurua aipatzen du Aitorrek, “tabernetan inpunitatea dagoela” adieraziz, eta sagardotegi garaian kontua areagotzen dela esanez. LGBT diren edo disidentzia sexualean kokatzen diren pertsonen aurkako indarkeriatzat zer duen adierazi du ondoren, galdera bati erantzuna emanez: “Indarkeria jipoitzea da? Bai, baina ez hori bakarrik. Espazio batean gustura ez sentitzea zure aukera sexual edo identitateagatik, edo edozein espaziotan zu zilegi ez sentitzea ere indarkeria da”.

Hernanin 25 urtetik gora darama Akelarreak ekainaren 23ko gauean herritar andana erakartzen duen ikuskizuna egiten. Bilakaera bat izan du herrian eta gorabehera asko izan ditu parte-hartzaileen kopuruak, baina hasieratik, Hernaniko zein Euskal Herriko egoera politikoa salatzea izan du helburu, sorginek pairatutako inkisizioaren indarkeria metafora moduan erabiliz. Garik ia hasieratik parte hartu izan zuen, eta honek herrian zegoen sexualitatearen inguruan irekitasun moduko bat planteatu ote



zuen galdetu diogu, eta bere esanetan, herritarrek duten ikuspegiaren isla da haien jarrera, ez baitago ikuskizunaren aurkako salaketa ezta asaldamendurik, orokorrean. Halere, elkarrizketatu batzuek, harago eraman dute gaia, Akelarreak sexualitatearen ikuspegian irekitasuna sortu duen galdetu diegunean: “Gizon eta emakumeen arteko sexualitate heterosexuala ludikoagoa edo beste era batera hartzeko zentzuan, agian bai. Baina hortik kanpo ez dut uste eragin handiagorik izan duenik”. Halere, Aitorrek aipatzen duenez, gaztetxoak zela Akelarreak baitan ikusi zituen berak lehen aldiz “praktika ez heterosexualak” zituzten gizonak era erotikoa harremanak izaten, eta nolabaiteko irekitasun edo helduleku baten moduan kokatzen du.

Hamarkada erdia heldu aurretik Karbonera hustu zenean, hutsunea sortu zen herrian. Baina ez hori bakarrik. Miruk, hala gogoratzen du: “Karbonera itxi zutenean, hutsunea nabaritu egin zen. Jendea sexiliora joan da, gehiena, zeren Hernani bizigaitza da”, eta espazioak izatearen garrantziaz mintzatzen da ostean, esanez “zenbait jarduera gauzatu ahal diren gune fisikoak ez badaude” ez dagoela mugimendurik, “hau da, galdu egiten da. Eta Karbonerarekin hori gertatu zen: Karbonera bukatu zen eta ideologia bat bukatu zen, pentsatzeko eta jarduteko modu bat galdu zen”.

Aitorrek, Miruren bide antzekotik, espazioen beharraz



hitz egin du: “nik behintzat faltan botatzen dut guretzako espazio bat edukitzea”. “Gure” horretaz ari denean, LGBT pertsonok joko zelaia definituko dugun espazio batez ari da. “Utzi partzela huts bat, eta utzi guri egiten”. Eta espazio horiek ez ditu herritik kanpo eraiki nahi, “nik betiko lekuetan lasai egon nahi dut; betiko lekuetan egon nahi dut baina ez beti egon naizen moduan”. Eta argiki, honela ematen dio bukaera gogoetari: “Nik ez dut joan nahi. Nik ez dut erbesteratua izan nahi”.

‘Espazio’ hitzak bilakaera eta mutazio bat bizi izan zuen 2000. urte ingurutik aurrera. Garai honetan zabaltzen hasi ziren internet bidezko komunikazioak, eta 2007tik aurrerako *smartphone*-en zabalkundeak, are eta inpaktu handiagoa izango zuen ‘espazio’ hitz horren inguruan: espazio birtualaz hitz egiten has daitekeen garaia, *on-line / off-line* bizitzaren ulertzeko era zabaltzen hasiko den garaiak jarraituko baitio. Eta LGBT komunitateari dago-kionean, bereziki kolpatu zuen zerbait izan zen. Ordura arte ematen ziren harremanak sortzeko dinamikak, leku fisiko zehatz batzuetan ematen ziren, baina hau deseginez joan zen, sare sozial digitalen etorrerarekin, bai eta jendea ezagutzeko aplikazioekin ere.

Mundu digital honen sorrerak eta garapenak, LGBT pertsonen identitatearen garapenean inpaktua izan zuen, argiki. Jada, ez zenuen zertan hiri batera joatearen esperantzaz bizi LGBT pertsonak topatzeko, klik batean ‘zure



moduko jendea' topa baitzenezakeen. Espazio birtualak, identitatea garatu eta sendotzeko zein borroka, antolakuntza eta erresistentziarako espazio izan dira. Eta horren fruitu izan daitezke Medeak-ek estatu mailan izan zuen saretzea, edo LGBT gaiek sare sozial digitalen dinamiken bitartez agenda politikoan sartzeko izan duten indarra.

Baina, gure bi elkarrizketatuek kontatu diguten moduan, espazio digitalen bueltan sortu diren dinamikek, badute ere azpimarra izan behar duen beste alde bat. Pilonen honakoa diosku sare sozial digitalen dinamikaren inguruan: "Ni adibidez Tinder, sare sozial digitalak eta horrelako sozializazio 'ambiente' berriekin apur bat *trasnochada* nago".

Aitorrek beste zentzu batean hitz egiten digu sare sozial digitalen inguruan, hain zuzen, sexualitatea eta gorputzak kontsumo hutserako elementu bilakatzearen inguruan. Bere ustez, sare sozial digitalen etorrerarekin bat, areagotu egin dira itxurakerian oinarritutako dinamikak, "denbora guztian erakutsi behar izate hori...". Baina bere ustez, hor ez dira bukatzen dinamika hauek. Gay pertsonen erabiltzen dituzten elkar ezagutzeko aplikazioen baitan ematen diren dinamika hertsiei kritika egin die: "gaur egun, jende guztiak daki zer galdetu behar duen" aplikazioetan lehen solasa izaten hasterakoan, "'Apa' esan eta erantzuten dizuten lehenengo gauza da '¿Activo/



Pasivo?. Zeren, noski, batak besteari eman behar dio, *por supuesto, ¿ni se cuestiona!*”, bukatzen du, ironiaz. Sexualitatearen inguruan gailentzen den ikuspegia jartzen du jo puntuan, aipatuz sexualitatearen ikuspegi hertsia batetik etorrira, izatez, beste eredu bat eta bakarra inposatu dela, eta horren baitan gorputz desiragarriak, rol desiragarriak eta praktika desiragarriak zeintzuk diren erabakitzen dela, “denak, patroiz igualarekin moztuak”.

Hamarkada honen erditik aurrera Hernanin LGBT mugimendurik edo antolaketa-rik egon ez arren, Atxurrek argi du LGBT kolektiboak edo sareak bat egon behar due-
la Hernanin, batez ere “erasoak ematen badira erantzun ahal izateko”. Baina egituratua egon ez arren, badaude autonomoki noizean behin eman izan diren eta unean-
-unean sortu eta desegin diren talde edota ekimenak. Horien artean, adibidez, 2017an Maiatzak17 (M17) tal-
dea sortu zen Kontrakantxa Gaztetxearen baitan zeinak Homofobiaren Aurkako Astea antolatu zuen, edo 2018ko martxoan gauzatu *Barrika Marika* ekimena ere hor kokatu daitezke.

Jakin nahi izan dugu hamarkada honetan gure elkar-
rizketatuen ustez zein den LGBT jendearen, kolektibo-
en edo borrokaren egoera Hernanin, hau da, zein den haiek
duten pertzepzioa. Jakinik ere ez dela erraza gaiaren er-
tzak topatzea, honakoa erantzun digute.

Lorek, LGBT mugimenduaren eta Mugimendu Femi-



nistaren arteko hibridazioan jarri du arreta. “Uste dut, Mugimendu Feminista eta LGTB+ borroken artean gertatu direla hartu-emanak eta hibridazioak. Bestetik, Karbonera etxe okupatu eta Urumea Herri Gunean mugimendu okupa eta transfeministaren aldarrikapen nahiz proiektuekin loturak gertatu dira. Baina, bestela, ez dut isla edota erlazio handirik ikusi. Gainera, orokorrean uste dut ‘gu’ eta ‘zuek’ hori mantentzen dela kasu gehienetan. Hortaz, ohikoena heteroarauan harrotasunez kokatzen direnen artean errefusa eta onarpenaren (kasu askotan onarpena axolagabekeriatik) erdibidean mugitzea da. Baina, gutxitan gertatzen da leku horretatik atera eta benetako aldaketak egiteko prest daudenak agertzea edota euren burua zalantzan jartzeko prest agertzea”.

Miruk, bere aldetik, Mugimendu Feministak disidentzia sexualak barne-hartzeko duen gaitasunari erreparatu dio: “Mugimendu Feministatik, eman da zerbait. Eta gero, Kafeta Feministen kontuak, Medeak... Gaia landu den gune bakarrenetarikoa hori da. Eta ondoren, 2018tik aurrera, Urumea Herri Gunea. Hori ere inportantea da. Gune transfeminista bat badaukagu Hernani mailan eragiten dabilena, eta gune hori existitze hutsa oso garrantzitsua da, hau da, bizigarria den gune bat gorputz disidenteak direnak erreferentziatzat izango dituenak. Nahiz eta bertan ez militatu, erreferentzia hori egoteak asko egi-ten du, zeren leku bat dauka, leku bat dago”.



Hausnarketa zabalagoa eginez, hamarkada honetan “ez-heterosexualitatea politizatu egin” denaren sentipena du Aitorrek. “Hau da, hautu politiko bat egon daiteke LGBT izatearen inguruan”, argiki esentziaziaziotik edo “horrela jaio naizenez, horrelakoa naiz” ideiatik alden-
duz. Eta gaineratzen du, “hor badagoela lanketa bat egin-
da, badago diskurtso bat, badago zapaldu kontzientzia
bat”.

Era berean, onarpenaren diskurtsoaren ondorioz, iden-
titateen inguruan komertzializatzen hasi izana salatzen
du: “Gauza bat ikusi dudana da, gizonezko zuri homo-
sexual eta zis-ak zentroan dituzten LGBT kontuak ko-
mertzializatu egin direla”, esanez, kontsumoaren bueltan
sortzen diren espazio horiek ez direla aldarrikapena hel-
buru duten espazioak, hain zuzen, aurkako joerara jotzen
duten espazioak baizik, onarpenaren eta berdintasun fal-
tsuaren diskurtsoan sakonduz. Eta izena jarri dio gerta-
kari honi, “kapitalismo arrosa”.

Lorek, fokua jarri nahi izan du hamarkada honen
amaiera aldera ematen hasi den fenomeno batean. LGBT
eta Mugimendu Feministak zituen aldarrien aurrean
“hasieran erresistentzia handiagoak izan ziren modura,
ondoren erantzun erreakzionarioak garatu direla nabar-
mentzekoa da. Hau da, ezkerrean ere gizon heterose-
xualen hegemonia indartzeko diskurtso nahiz praktiken
gorakada gertatu da”. Euskal Herrian zehar hamarkada



honetan eman den fenomeno da, jendarte sistemaren eraldaketa eman dadin, klase borrokan oinarritutako estrategiak bultzatzen dituzten talde desberdinen sorrera edo berpiztea. Honek, gatazka ekarri du Mugimendu Feminista zein LGBT mugimenduarekiko, izan ere, talde hauetako batzuen ustez, borroka hauek erreformismoan oinarritzen dira, eta langile klasearen zatiketa eragiten dute burgesiaren mesedeetarako. Pilonek, bizi esperientziak ematen duen ikuspegitik, honakoa kontatzen du: “Feminismoa langile klasearen aurka doala entzuten dudanean, ni *deja vú* batean sartzen naiz. Ea, hori aspaldi gertatu zen ezker abertzalean. *¡Qué pesaos!*”.

Lorek esan duenaren hari beretik, LGBT pertsonen ikusgaitasunean eta aldarrikapenen zabalkundean feminismoak izan duen pisua nabarmendu nahi izan du Aitorrek. “Nik feminismoaren prismatik ulertzen dut zapalkuntza ez dihoala emakume*-engana bakarrik, gizon ez-heteroongana ere badatorrela, eta gizon transengana. Heteroarautik ateratzea ere badela motibo, ez bakarrik generoa. Hau feminismotik bakarrik uler daiteke”.

Zentzu honetan, orokorrean transen zein, zehazki, trans gizonen egoeraren inguruan aritu zaigu hizketan Erick. Bera, mutil transa da eta bere prozesua eta kezkak elkarbanatu nahi izan ditu gurekin. Hasieratik hasi nahi izan du errelatoa.

“Nire bizipena Hernanin lasaia, polita eta zalantzaz be-



terikoa izan da". Heteroaraua hautsi duen heinean, prozesu hori nolakoa izan den galdetu diogu: "jakin izan nuenean, ondo, baina ezagutze prozesua zaila izan zen. Txikitan, ez nintzen ahokatzeko eta ez nekien horri izenik jartzeko. Nuen sentsazioa aldi baterakoa zela uste nuen. Eta oroitzen dut, nuen sentsazioa zela ni ez izatearena, eta anaia bezalakoa izateko desira nuela. Finean, nahasmen handia bizi izan nuen garaia izan zen eta nintzen hori deuseztatzen aritu nintzen urte luzez. Une batean, 13 urterekin-edo, nire burua publikoki gizon moduan hasi nintzen aldarrikatzen: familiari, lagunei, nire inguruari... Oso argi dudak gauza bat da, identitarioki nik ez dudala aukeratu mutil izatea, hau da, ez dut nire generoa aukeraketa politiko batekin lotzen". Hau da, identitatea aukeratua eta eraikia denaren ustearen aurrean, berak galdetzen du ea hautatua balitz, nork nahiko lukeen jendarte oso baten sistema sinboliko eta egiturazkoen aurka joan (berak "transfobia", "testosterona lortzea" edo "Nor-tasun Agiriaren aldaketa" aipatzen ditu). "Prozesua zail xamarra da".

Baina, identitatearen atzean erabaki politikorik dagoen zalantza duen arren, argi ikusten du "trans pertsona bat izateak dakartzen ondorioek" politikarekin harreman zuzena dutela. "Identitateek oinarri politikoa baitute" eta izaera politiko hori, heteroaraua hautsi izanaren ondorioz jasandako presioan antzematen du, besteak beste.



Hamarkada honetan trans pertsonen dagozkien aldaketa asko antzematen ditu: “hobera egindako aldaketak dira. Adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio dokumentazioa onartu da, izena aldatzekoa. Lehen, hau lortzeko informe medikoa behar zenuen, esaten zuena burutik jota zeundela. Baina 2019ko udan hau aldatu zuten. Garai horretan, ni txartela egitekotan nengoen, justu legearen artikulua aldatu baino egun batzuk lehenago, eta amari, legea onartzen zuten egunera itxoiteko eskatun, aldaketa esanguratsua zelako”.

2012ko ekainaren 28an, 14/2012 transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko legea onartu zen. Baina, pertsona transek administrazio dokumentazioa lortu ahal izateko baldintzatzat zuen mediku psikiatra baten informea egotea, trantsizioan zegoen pertsonak genero disforia zuela ziurtatzen zuena. Honenbestez, trantsizionatzea erabakitzen zuen pertsonak, gaixotasun edo patologia bat zuela onartuz has zitekeen trantsizioan ematen diren prozesu desberdinak garatzen.

2019ko ekainaren 27an, 14/2012 Legeak bere 3. artikuluan zuen ikuspegi hau aldatu zen, eta 9/2019 Lege onartu zen, zeinaren bitartez trans pertsonak haien identitatea era askean autodeterminatu zezaketela aitortzen zen. Beraz, honela geratu zen 14/2012 legea bere 3. artikuluan: “[...] Transexualitatea, beraz, modu bakarrean jakin



daiteke: libreki adierazten duen pertsona entzunda. Eta, sexu-identitatea bezalaxe, ezin da diagnostikatu. Ez da gaixotasuna, ez desoreka, ez anomalia bat, giza aniztasunaren parte baizik.

Ondorioz, lege honen ondorioetarako, pertsona transexualaren kontsiderazioa arautuko du identitate sexualaren autodeterminazio librerako eskubideak. Eskubide hori ezingo da mugatua, murriztua, zaildua edo ezeztatua izan, beti arauak jarritz eta aplikatuz ariketa libre eta oso horren alde. Pertsona transexualak baliatu ahal izango dira lege honetan ezarritakoaz, diagnostiko edo txosten psikiatrikorik, psikologikorik edo tratamendu medikorik gabe”.

Halere, maila legalean ematen diren aurrerapausoek, egunerokoan instituzio medikuan ematen diren indarkeriekin topo egiten dute. “Niri, Gurutzetako Ospitalera testosterona hartzera joan aurretik, heterosexuala nintze-la esatea gomendatu zidaten inolako trabarik jar ez zezaten”. Eta gaineratzen du: “lagun batek, adibidez, ospitalean polimaitasuna praktikatzen zuela eta beste trans batekin zegoela esan zuen, eta nortasun nahasmendua diagnostikatu zioten. Nik, hala ere, bisexuala nintze-la esan nien”. Askotan trans pertsonak salatu izan dute medikuntzako instituziotik bizi izan dituzten indarkeria hauek (oso ezaguna zen ‘Bizitza errealeko test’ delakoa, zeinaren bitartez, hautatutako zure generoaren arabera



bizitzen hasi behar zinen denbora batez, eta estereotipoetan oinarritutako testak erantzun ‘zer nahiago dituzu, panpinak ala baloia’ bezalako galderei). Kasu hauetan, oso argia egiten da heteroaraua: norbaitek genero aldaketan egin nahi badu, aldatu dezala, baina betiere identitate onartu, argi eta itxi batera: gizon, maskulino eta heterosexuala edo emakume, femenino eta heterosexuala.

Erick, berarentzat trans pertsonen sareek duten garrantziaz mintzatu da. Bera, *Naizen* elkartekoa da, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako adin txikiko transexualen familiak biltzen dituen elkartekoa. “Elkarretaratzeak egiten ditugunean, egun osoa pasatzen dugu elkarrekin, eta beti hitz egiten dugu gure prozesuez, testosteronaren kontsumoaz, ebakuntzez, LGBTfobiaz...”. Eta egun dituzten eztabaidetako bat elkarbanatu du gurekin, disforia-rena.

“Gaur egun, norberak sentitzen duenaren arabera, jendeak operazioak egin edo hormonak hartzen ditu. Baina beste batzuk ez, ez dutelako behar. Nire kasuan, nik testosterona hartu nahi dut dudana disforiarekin ezin dudalako aguantatu”. Une honetan, disforia zer den azal diezagukeen galdetu diogu, eta gustura asko erantzun digu. “Disforiaren kontua, konplexua da. Berez, zure gorputz atal bat edo batzuekiko errefusa da, baina haratago errebadoa. Disforiaren inguruan, bi ikuspuntu nagusitzen dira gaur egun trans pertsonon artean, batzuk esaten dute



trans-a izateko ‘disforia’ sentitu behar duzula, eta beste batzuk ezetz. Eta honen aurrean, nik uste dut orokorrean ezetz. Zeren, trans moduan izendatzen zarenean ontzat ematen da ‘genero disforia’ duzula, hau da, jaiotzez ego-tzi zaizun generoarekin bat ez zatozela. Halere, niri ez zait hitza gustatzen, oso termino psikologikoa baita”.

Disforiaren inguruan azken garaian asaldaturik duen adibide bat eman digu Erickek, ostean. “Adibidez, batzuek uste dute mutil trans batek ez badu mastektomia egin nahi ez dela transa. Eta imajinatu ni mutil transa izanda nire bularra maite dudala eta erakusten dudala, bada, trans askok ez lukete onartuko. Trans maskulinoak dira *kaña* gehien sartzen dutenak eta hau maskulinitate hegemonikoarekin lotuta dago, hau da, trans matxistak daude”.

Halere, “gaur egun gizarte zis eta heterosexualari aurre egiteko erresistentzia handia dagoela” nabarmendu du, antolaturik daudela. “Nik Euskal Herrian Naizen eta Gehitu ezagutzen ditut, azken hau bertan egiten ditugulako Naizen elkarteko bilerak”. Eredu positiboetaz ere hitz egin digu, film, telefilm, eleberri eta bestelako ekoizpen kulturaletan trans pertsonen kontaketa positiboak sortu behar direla, bai eta trans pertsonak ikusgarri egin ere, ez soilik iruditeria aldetik (filmetan pertsonaia transen istorioak kontatuz), baizik eta lan egiten duten aktore trans-ak ere aintzat hartuta: “pelikuletan ateratzen diren



pertsonaia trans emakume gehienak, gizon zis batek egin ohi ditu. Zergatik ez dute emakume trans bat hartzen paper hori egiteko?”

Ereduak garrantzitsuak dira, oro har. Heldulekuak baitira eta bizitza bizigarri bat izateko erreduak beharrezkoak direlako. Zentzu honetan, bere ustez “gu gara hemen erredua markatu behar dugunak. Askoz gehiago dakigu! Eta uste dut, guk dugula pertsonak gidatzeko ardura, hau da, guk izatea gure bizipenez hitz egiteko ahotsa. Dena azaltzen ibiltzea erraza da baldin eta errespetutik badator. Izan ere, normalean ez da honetaz hitz egiten eta gustora egiten dut”. Halere, bera ez dela “Wikipedia” aipatzen du, eta berak hitz egitekotan, bere bizipenetatik hitz egingo duela. Baina jendeari gonbidapena egin dio, bere kabuz ere informazioa bila dezan trans errealitateen inguruan, “interneten informazio asko baitago”.

Egunerokoan bizi dituen esperientzien artean, transformarik sentitu duen galdetu nahi izan diogu. Ez du zalantza handirik izan ezezkoa ematerakoan, “Hernani herri ireki eta positiboa da. Hemengo jendeak LGBT pertsonak onartzen ditu eta ez du arazorik orokorrean”. Apur bat pentsatzen geratu da orduan, eta mikroindarkeriatzat eta ez fenomeno sistematiko gisa ulertzen den indarkeria badagoela aitortu du: “Lagun batek esan zidan, institutuan LGBT gaia lantzen zuen antzerkia egin zela, eta komentarioak egon zirela. Noski, hau bromarekin lotzen da,



eta garrantzia kentzen zaio. Baina nire ustez, garrantzia duen zerbait da.”. Indarkeria ikusezintasuna ere badela gaineratu du eta “guk esan behar izatea gu ‘normalak’ garela”. Kontakizuna, institutuan izandako gertakari batekin amaitu du: “DBHko 3. mailako biologia klasean, beti saiatu izan naiz ‘zakila duten emakumeak eta bulba duten gizonak’ esaten, eta irakasleak zuzendu egiten zidan esanez, ‘bai, bai, emakumeak’, eta ni izendapena zuzentzen saiatzen nintzen arren, berak berean segitzen zuen”.

Azken aipamen honek, hezkuntzaren egoeraren gairara garamatza. Azken hamarkada honetan, hezkuntzan LGBT gaiek izan duten lekuaz mintzatu gara, eta aldaketa bat sumatzen den arren, lekukoen iritzia orokorrak heterosexualitatearen hegemoniak hezkuntza sisteman bere horretan dirauela kontatu digute.

“Badakit urte batzuetatik hona bestelako lanketa batzuk egiten direla hezkuntzan eta hori Mugimendu Feminista nahiz LGTB borrokaren ondorioa da. Hala ere, uste dut batzuetan hezkuntzaren garrantzia bere horretan *sobre-mentzionatzen* dela. Hau da, noski eskola eragiteko eremu bat dela, baina, behin-behineko hitzaldiak oso azalean geratzen dira eta askotan haur nahiz nerabeek politiko-ki zuzena dena adierazten ikasten dute”. Ordena sinbolikoak bere horretan iraun ahal izateko, normaltasuna, onarpenaren diskurtsoa eta garaietara moldatzearen



kontua, ondorengo adibidearekin argitzen du Lorek:

“Aldaketa sakonagoak garatzeko, adibidez, espazioaren antolaketaren inguruan ere lanketak egin beharko lirateke. Esango nuke gaur egun eta orain dela 30 urteko jolas-garaia ez direla aldatu espazio banaketari dagokionean. Hau da, ohikoena da espazioaren erdigunea mutilek (gehiengoa behintzat) okupatzea futbolean edo potentziarekin lotutako jarduera batean. Neskak berriez, bazterretan egotea komunikazioa nahiz emozioak gehiago lantzen diren jardueretan. Praktika batzuk egi-ten egon nintzenean eskola batean orain bi urte, mutilen arteko botere erlazioak kudeatzen zituztela antzeman nuen. Hau da, adinen arabera futbol zelaia egunka antolatu zuten. Baina, genero ikuspegitik ez zegoen inolako esku-hartzerik”.

Eraldaketarako bigarren proposamen batekin ematen dio amaiera hezkuntzaren inguruko analisiari: “Eduki-
tan aldaketa sakonak egin beharko liratekeela uste dut ere bai, kontua ez baita azken atal feminista bat sartzea, baizik eta, zeharkako aldaketak egitea”

Miruk, Loreren bide beretik, ez du gogoan LGBT gaiak eskola garaian asko landu zirenik: “Batxilergoan uste dut zerbait eman zela. Gero ere, sexu-heziketa ematen zen, baina LGBT gaiak ez ziren lantzen”. Arremanitz Kooperatibak garatzen duen Harremonak egitasmoa (tratu onetan, parekidetasunean eta sexuen hezkuntzan oi-



narritutako proiektua) ekarri du gogora, eta “iruditzen zait beraiek lan handia egiten dutela harremanei dago-kienean, baina baita LGBT munduan kokatzen garenoi gurea lantzen ere”. Eskolaren inguruko iritzi orokor eta borobila azaldu digu: “eskola bera, heterosexualitatean diziplinatzeko espazioa da”. Ez luke fokua irakasleetan jarriko, baizik eta hezkuntza-instituzioan, bere horretan. “Hau da, mundu erabat heteroarautuan zaude, eta bat-ba-tean aniztasunaren inguruko 3 saio ematen dizkizute”. Horiek, diskurtso batzuen lanketan baino, berdintasuna-ren inguruko plangintza hutsalen baitan kokatzen ditu eta gaineratzen du, sexu eta desiren aniztasuna, zein ha-rremantzeko era osasuntsuen inguruko lanketa egiten ez den guztietan “normalitatean erortzen garela”, normali-tatean heteroaraua kokatuz.

Eñautek eta Erickek, haien aldetik, Arremanitz Koo-peratibak gidatutako Harremonak egitasmoa izan dute gogoan hezkuntzan dagoen LGBT egoeraren inguruan galdetuak izan direnean. “Nik ez dut ikusi inoiz LGBT gaia lantzen zenik. Baina Harremonak geneukanean, bai txertatzen zela LGBT gaia, gu ikusgarri eginez” konta-tzen du Erickek. Eñautek, aldiz, Harremonak egitasmoko hezitzaileak etortzen zireneko iruzkinak gogoratu ditu: “gutxi izan badira, komentarioak entzun izan ditut hezi-tzaileen inguruan, esaten, adibidez, *‘¿Para que vienen es-tos? ¿A enseñaros a los maricones a tener pluma?’*”



Amaiak eman dio itxiera hezkuntzaren gaiari. Esaldi borobil baten bueltan hasi da erantzuna ematen: “Heziketa oraindik ez da aldatu, eta berez, berdintasun batera iristeko, txikitatik izan behar du”. Instituzioa baino, gurasoen jarrera kritikatu du, honako bizipena elkarbanatuz: “Orain dela gutxi, etorri zitzaidan bat esanez ‘*jo, es que están dando sexualidad, pito, vagina, hijos, reproducción...*’, eta nik esan behar izan nion hori ez zela sexualitatea, hori ugalketa zela! Gaur egun, bi kontzeptu horiek nahastea ez da posible”. Haurrak, errealitate anitzak ulertu eta normaltasunez bizitzeko duten gaitasunaz mintzatu da, amaitzeko: “Nire alabak eskolan aurkezpena egin zue-nean, familiaren argazkiak eramán zituen, eta hor, inork ez zion ezer esan”, hau da, inork ez zuen balorazio ez positibo ez negatiborik egin. “Zeren, zergatik esan beharko luke norbaitek ‘*Traitx berezia da, bi ama dituelako*’? Ez da berezia den zerbait, eta umeek hau normaltasunez hartzen dute. Hortxe dago gakoa!”.

2019. eta 2020. urteko hasiera artean egin ditugu ia elkar-
r rizketa guztiak. Eta interesgarria iruditu zaigu, 50 urte-
ko ibilbide luze honen amaierako argazki finko bat uztea, LGBT pertsonon kezkak bilduko dituen argazki finko bat. “Zeintzuk dira gaur egun dituzuen hizketagai eta kezka nagusiak?” galdera bota diegu, eta hauek izan dira, erantzun nahi izan dutenek eman dizkiguten erantzunak:

Luisen ustez, “Ikusgaitasuna, oraindik ere. Badirudi



ikusten dela eta 'normalizatzen' dela, baina oraindik lan asko dugu aurretik. Jendeak esan dezake 'ez, baino gaur egun nobioa izateko problemarik ez duzue', eta beno, ez dago problemarik segun non, nola, norekin zauden". Sentsibilizazioan jarri du fokua, azpimarratuz "institutuan egiten" dela, hau da, derrigorrezko hezkuntzaren azken fasean. Baina era berean, galdetzen du: "noiz hasi behar-ko ginateke haurreskolan ere egiten?". Ereduei loturiko azken kezka batekin amaitzen du: "Ereduak sortu behar ditugu, eta beharrezkoa da LGBT mugimendua erreferentzialagoa izatea".

Atxurrek ere, gaia lantzeko beharra nabarmena dela iritzi du, baina ez bakarrik hezkuntzan. LGBT pertsonen zahartzaroan jarri du azpimarra, "jada adin batetik gora, imajinatu 20 urte barru, ni eta nire bikotea gaixorik ba-gaude...". Ez du esaldia bukatzen jakin izan, baina argi dago, arduratzen duen eta hizketagai behar lukeen gai bat dela LGBT pertsonen zahartzaroa, zaintzaren zentzuan, bai eta, gertatzen hasi den moduan, zahartzaroa berriz armairura sartu behar ez izateko espazioa izatearen inguruan ere.

Eñaut eta Erick, elkarrizketatuen artean gazteenetakoak diren heinean, ahalduntzean eta harremanak eraikitzean jarri dute fokua. Erickek, trans pertsonen ikusgaitasuna eta trans prozesuak errespetatzeko dagoen beharrak ekarri ditu gogora. Eñautek, berriz, abstraktutasun teo-



rikotik aldenduz, gay moduan harremanak izateko orduan dagoen espazioen beharraz aritu da, bai eta “mutil bati gustuko duzula esaten diozunean, heterosexuala bada era bortitzean erantzungo ote duen” horren kezka ezabatzearen inguruan ere. Era berean, lagunen artean “ultraeskuinaren gorakadaren ondorioz LGBT komunitatean zabaltzen ari den beldurraz” mintzatzen dira.

Lorek, kezka nagusien artean, honakoak kokatu ditu: “garapen neoliberala; erantzun erreakzionarioak (eskuintetik, baina, baita ezkerretik eta langile mugimenduetatik); zuriketa nahiz hutsaltzea, eta honek dituen eraginak mugimenduan. Hau da, gizarteko aktore ezberdinek (bereziki zenbait enpresak nahiz alderdi politikok) transmarikabollo borrokaren diskurtso nahiz iruditeria erabiltzen dituzte, baina helburua ez da, eduki nahiz subjektu zapalduak boteretzea, baizik eta ekintza estetiko soila eta eduki nahiz botere hustuketa. Azkenik, gure arteko botere erlazioak, bereziki arrazializazio eta jatorriekin lotutakoak”.

“Azpimarratzekoa da kolektibo falta”. Hau da Miruren kezka nagusia. “Eta kolektibo falta horrek, bakarrizketa eragiten du. Nik, Hernani mailan ez dut lortu bolle-
ra politiko moduan militatzea, eta horregatik hainbat hausnarketa ezin izan ditut harago eramán. Eta horrek ondorio zuzenak ditu gorputz eta identitate zehatzetan”. Hernanin LGBT pertsonak, eta zehazki lesbianek, elkar-



tu, korapilatu, hausnartu, izan eta eragiteko ezintasunaz mintzatu da hein batean, eta hori, armairuan egoten segitzearekin lotu du. Armairu hitzak duen esanahi zabalarekin topo egin dugu bere hitzen ostean, eta horregatik amaitzen du Miruk guk zuri ere, irakurle, helarazten dizugun galderarekin:

“noiz bukatzen da armairua?”.









**BEGIRADA
KOKATUAK**

Behin ibilbide historikoa egin dugula eta Hernaniko azken 50 urteetako hainbat LGBT herritarren errealitate igarri ditugula, orain, irakurketa kolektibo eta partekatuaren eraikuntzan azpimarra jartzea dagokigu. Irakurketa bat zeinak, ezinbestean, gure protagonisten bizipenak eta kontakizunak oinarri hartuta, eta ikuspegi kritiko batetik, gure herriko LGBT pertsonen problematika material, sinboliko eta estruktural komunen azterketa ekarriko duen.

Izan ere, memoria kolektiboaren beraren analisi kritiko honek ahalbidetuko baitigu hain beharrezkoa dugun aitor-tza eta erreparazio ariketa egitea.

Has gaitezen bada, kultura heteropatriarkalak sortzen dituen testuinguru arautzaileak arakatzen, non gure pertsonaiek, beren biografietan zehar, elementu hertsatzaile asko identifikatu dituzten. Hau da, LGBT bizitzek herriko dinamika anitzen baitan jasandako zapalkuntza espezifikokoak begiratzen eta kokatzen.





HERNANI: IREKITASUNA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Beste ezer baino lehen, jar dezagun arreta LGBT bizitzak egunerokoan nahitaez baldintzatu dituen zerbaite-tan, hau da, Hernanik herri bezala lesbiana, gay, bisexual, transexual eta bestelako disidentzia sexualaren inguruan izan duen kontzientziazio- eta inklusio-mailan.

Jakina da, testuinguru historikoa aldatuz joan ahala, eta momentuan momentuko jendartearen zimendu demo-kratikoen eta balio eta sinismen sistemen arabera, LGBT pertsonen bizi-baldintzak eraldatzen joan direla.

Maiz, XXI. mendean gaude jada edo hau guztia orain normala da esamoldeei tira egiten diegu. Eta seguraski pentsatzen dugula gure egungo Hernani duela urte ba-tzuk baino aurrerakoiagoa dela. Baina, hala da ala ilusio hutsean bizi gara?

Erantzuna ez da batere argia, gure herria ez baita homoge-neoa. Izan ere, LGBT gaien bueltako irekitasuna faktore ani-tzen araberakoa da eta honen interpretazioa eta bizipena ezin-go genuke soilik denbora-lerro historiko batera sinplifikatu.



Hernani, demografikoki, nahiko herri egonkorra izan da azken hamarkadotan. Beraz, biztanleria-hazkundearen beste hiri-dinamika batzuei kontrajarrita, Hernanin hori ez da hainbesteko faktore erabakigarria izan LGBT pertsonen buruzko pertzepzioari dagokionez.

Baina ezaugarri geografikoak eta lurralde- zein hirigintza-antolamendua kontuan hartuta, bi faktore nabarmen. Bata, gure herria Gipuzkoako hiriburuaren mugakidea dela, horrek dakartzan ondorio sozio-ekonomiko guztiekin. Eta bestea, Hernanik dituen 40km²-tako lurralde azaleran, auzo dezente dituela eta hauetako asko landa-guneak direla. Beraz, bai hiritik gertu bizitzeak, bai gure herriko erdigunearen eta nekazal inguruaren artean dauden desberdintasunek zerikusi handia izan dutela LGBT gaiei pertzepzioan.

Hain justuki, horretaz mintzatu gara Luis Intxausperekin. Bera Osiñaga eta Martindegi auzoen artean ibili izan baita beti. Eta bere esanetan, txikia zenean, landa-guneko edota inguruko auzoetan are eta markatuagoak ziren genero-harremanak. “Nire ingurua oso maskulinoa eta tradizionala zen, eta mundu horretan rolak oso definituak zeuden. Nire Martindegiko kuadrilla mutilez osaturikoa zen, eta gu futboleko, mendian, arrantzan eta ehizan ibiltzen ginen”.

Argiki, ehiza adierazle ona da garaiko Luis eta bere kuadrillakideen maskulinitatearen eraikuntza ulertzeko.



Genero rolek eta heteroarauak berak neskak neskekin eta *nesken gauzetara* eta mutilak mutilekin *mutilen gauzetara* ibiltzera behartzen dituenean, zaila delako generoaren izatezko malgutasunari aukera ematea.

80ko hamarkadako landa-ingurunean homosexualitateari buruzko pertzepzioari dagokionez, Luisek txikitan gizon homosexualen inguruko oso mespretxuzko iritzia jasotzen zuela aipatu digu ere. Antza, auzoan gay bikote bat bizi zen, eta irainetik *marikoiak* deitzen bazituzten ere, batez ere errukitik egiten zuten: “Ai, gixajo hauek!”.

Baina landa-guneetako errealitatea ez dago herriguneko errealitatetik oso urrun. Izan ere, Ixiar Pagoagak esan bezala LGBT pertsonen errealitatea “oso gutxi aipatzen zen, ez zegoen batere presente”.

Kontzientzia kolektibo eta historiko honi tiraka, herrian LGBT gaiak pertsonen alderdi intimo eta pertsonalarekin lotu direnez beti, ez dira ia bizitza publikoan landu. Eta horrek errealitate hauek etxe bakoitzaren eremu pribatura eraman dituela pentsa genezake. Baina, gainera, familiaren beraren izaera heterozentrista zalantzan jartzen duten errealitateak direnez, ez da askosaz gehiago hitz egin ere etxean. Eta ondorioz, lesbiana, gay, bisexual eta trans pertsonen izenak eta izanak logela bateko lau hormen artean zokoratuta izan dira, eta batzuetan hori ere ez.

Gai hauen presentzia eza eta ikusezintasunari buruz,



Pilonek ondorengoa aipatzen digu ere: “nik ez daukat herri irekia denaren sentsazio hori... Aldi berean ez zait iruditzen inoiz izan denik herri bat mugimendu markatu bat izan duena horren alde edo herriko jendeak horren alde asko borrokatu duenik..”. Eta nazio askapenaren auziari erreferentzia eginez gaineratzen du: “herri hau monotematikoa dela uste dut. Behintzat izan da! Orain ez dakit!”.

Hau da, Pilinek ongi sumatzen duen bezala, Hernaniko kaleetako gizarte zibilaz gain, badirudi mugimendu sozio-politiko antolatuek ez diotela kasik espaziorik edota zentralitaterik utzi sexu eta genero disidentziari. Ez errealitate hauen irudikapen eta aldarrikapen publikoei dagokionez, ez eta hauen behar materialen lehentasunari dagokionez ere. Eta hau nahiko argi utzi dute gure elkarriketatu askok. Alegia, herri mugimendu anitzetako dinamikak eta diskurtsoak askatzaileak izan badira ere, hauen kontzientziazio- eta irekitasun-maila oso baldintzatua egon dela garaian garaiko matxismo eta LGBTfobia mailagatik.

Lore Lujanbiok, honi tiraka, herrian borrokak eta militantziak garrantzia handia duela aitortzen digu, hots, Hernani, afera sozio-politiko anitzetan asko borrokatu den herria izan dela eta honek berebiziko eragina izan duela eremu guztietan. Dena den, eta bere aburuz, “ez nuke esango bereziki herri irekia denik, ez eta heteropa-



triarkatua ez denik indartsuagoa bertan”.

Eta hemen dago gakoa, hain justuki, gizarte heteropatriarkal batean bizi garen neurrian, igual diola landa-gunekoa ala herrigunekoa izan, igual diola ezkerreko ala eskubiko ideologiakoa izan eta igual diola 1941.urtean ala 2004.urtean jaiotakoa izan. Sistema heteropatriarkala egiturazko arazoa dugula, eta hain justu ere, gure herriko kulturaren parte den neurrian, horren funtsatik jartzen dela kolokan LGBT pertsonen bizigarritasuna.

Miruk argiki azpimarratzen digun bezala “herriko dinamikak heteroarautuak baldin badira, ezin gara gustora bizi; orduan, edo hortik ateratzen zara eta aliantzak sortzen dituzu propio, edo ezinezkoa da. Eta zentzu horretatik iruditzen zait Hernani bastante tradizionala dela”.

Aurreiritziak eta hauetatik eratorritako diskriminazio egoerak beti egon dira ikuspegi tradizionalan oinarrituta. Eta, honen muinean logika heterosexuala, matxista eta misoginoa kokatzen dugun heinean, honek eragina izan du herriko lesbiana, gay, bisexual eta trans pertsonengan nahitaez.

Baina, tamalez, azken hamarkadotan, ikuspegi tradizional horrek ongi jakin izan du bildots larruaren azpian bizirauten (eta bere burua apaintzen) *aurrerapen*, *modernizazio*, *demokratizazio*, *ongizate*, *indibidualtasun* eta *askatasun* kontzeptuen erabilera itzaltsu zein interesatuari esker.

Eta nola, egun, hain modu arinean erabiltzen dugun



tolerantzia hitza lesbiana, gay, bisexual eta trans pertsonetako irekitasuna adierazteko. Askorik pentsatu gabe, tolerantzia, azken finean, autoritatea, gehiengo edo botere sozial zilegia dutenek, gustuko ez duten edo guztiz onartzen ez duten hori onestea, baimentzea edota ez ikusiarena egitea da.

Miruk argitzen digunez, “inguruko jendeak iradokitzen dizuna da `guk gure familia, bikotea edo kuadrilla heteroarautuetan jarraituko dugu baina zu onartzen zaitugu eta ahal duzu espazioa gurekin konpartitu, betiere `gu`eta `zu` logika horren baitan bada”.

Beraz, ez gaitezen engainatu, tolerantzia politikoki zuzena den diskurtsoaren eta moral bikoitzaren tranpa hutsa baita. *Nik ere badut lagun lesbiana bat* edo *ez nekien transexuala zinenik* esaldien atzean ezkututzen den betiko tranpa mingarria.

Eta bai, tamalez, hau ere, askatasun faltsuaren ilusioak eraginda eta irekitasunaren izenean, gure herriko historiarik goiztiarrean gauzatu den indarkeria sotil eta iraunkorretako bat da.

Xabier Ormazabalaren iritziz: “Hernanin askea zara desberdina izateko, baina gauza da aske izate horrek zein zapalkuntza eragiten dizkizun, zenbat gauzei egin behar diezun aurre eta zenbat biolentzia jasotzen duzun oso modu sotilean”.

Bestetik, arestian aipatu moduan ere, argi dago Herna-



ni gipuzkoako hiriburuaren herri mugakidea izanik, bere eragina ere izan duela herriko irekitasun-mailan; baina oso lausorik eta bere argilun guztiekin. Izan ere, asko eta asko dira herrian bizitzen gelditu diren gay, lesbiana, bisexual eta trans pertsonak, bai, baina askosaz gehiago dira *sexilioaz* baliatuta, hemendik ihes egin eta beren bizitza bizigarria eraikitzaera kanpora joan zaizkigunak.

Dena den, eta gure elkarrizketatu gehienek behin baino gehiagotan azpimarratu duten bezala, eskerrak ere Hernanik Mugimendu Feminista indartsua izan duela bere kaleetan. Gorputz, olatu eta pentsamendu kolektibo feminista bat zeinak sexu eta genero askatasunaren zein bizitza bizigarrien inguruko aldarriak botatzeari esker, herrian pedagogia eta kontzientziazio lan oso sakona egin duen; plazaren bazterretik edota erdigunetik izan bada ere, oso presente.

Baina zein da azken urteotan irekitasun- eta kontzientziazio-mailak izandako garapena? Bada, dudarik gabe, urrats asko eman baditugu ere, gaur egun, inklusio faltsuaren errealitatea bizitzen ari gara nolabait. Beraz, irekitasun- eta kontzientziazio-mailaren garapena, itxaropentsua eta aldi berean nahiko gazi-gozoa dela esan dezakegu.

Egia da, gaurko gazteek badutela irekitasunari buruzko bestelako pertzeptzioa; ez dugu Erick gazteak esandakoa aditu besterik behar: “Hernani herri irekia eta positiboa



da. Hemengo jendeak ondo onartzen du, ez du arazorik eta identitate guztiak era askean garatzeko askatasun osoa dute". Baina, azken hamarkadan harremanen dimentsioa digitalizaziora zabaldu da, eta egun, estetikak, azalkeriak eta indibidualismoak asko agintzen dute. Beraz, nahiz eta gure azken belaunaldiek Hernani askatasun indibidualetik LGBT izan zaitezkeen herritzat hartu, kontzientziazio kolektibo eta errealari dagokiolarik asko dugu egiteko eta, batez ere, eragiteko.



INDARKERIA NONAHI

Orain arte ikusi dugun bezala, aurreiritziek eta diskriminazioek historikoki markatu dituzte LGBT errealitateak.

Bizi garen gizartean, generoak, gizarte bakoitzak gizonei eta emakumeei esleitzen dizkien ezaugarri bereizien multzo gisa ulertuta, gure gorputzak, gure izenak eta identitateak, gure jarrerak, gure komunikatzeko eta adierazteko moduak, gure espazioen erabilera, gure funtzio sozialak eta nola ez, gure egitura sozialak, ekonomikoak eta politikoak antolatzen ditu. Laburbilduz, generoak den-dena hartzen du.

Eta generoa historikoki polarizazioan eta zatiketan oinarritu izan denez, hau desberdintasunen sortzaile sustua izan ohi da. Betidanik maskulinoari femeninoari baino zilegitasun eta botere handiagoa eman izan baitio; botere hau ustezko ezaugarri biologikoetan oinarrituriko mandatu sozialen bueltan eraikiz eta errotuz.

Eta justuki, ezaugarri biologiko horietaz baliaturik, gure gizarte-antolamendua generoan eta bestelako ka-



tegoria sozialetan eraiki dugunez, gure egunerokoa lan produktibo eta erreproduktiboetan funtsatu dugu, generoari helburu soziala eman ez ezik, helburu ekonomikoa ere emanez.

Hau da, gure normalitatean aluarekin jaio, emakume izan, emakume bezala jokatu eta emakumeen gauzak egitea lan erreproduktiboekin eta eremu pribatuarekin lotu izan dugu beti. Kontrajartzean aldiz, zakilarekin jaio, gizona izan, gizon bezala jokatu eta gizonen gauzak egitea lan produktiboekin eta eremu publikoarekin lotu izan dugu ere.

Baina zein izan da, hain zuzen ere, bi mundu kontrajarri hauek elkarren osagarri izatera bultzatu dituen formula magikoa? Heterosexualitatea.

Hortaz, zein izan da genero rolen eta heterosexualitatearen elikatze eta mantentzerako egitura sozialik esanguratsuena eta behar-beharrezkoena? Familia.

Horiek horrela, genero-identitatea eta desiraren orientazioa funtsezko ardatzak dira patriarkatuaren (eta hau sostengatzen duten egitura sozialen) iraunkortasunerako. Eta hortik sortzen da, preseski, heteroaraua; giza gorputzen, identitateen, praktiken eta desioen aniztasuna kateatzearen eta ukatzearen logika heterosexual hertsagarritik.

Sakondu dezagun bada, nola bizi izan duten gure protagonistek heteroaraua bera, nola ulertzen duten horren



ondoriozko indarkeria eta nola uste duten gauzatu dela indarkeria hori gure herriko LGBT errealitateen egunerokoan.

▼ HETEROARAUA

Gure protagonistek heteroaraua gure kulturaren oso errotua dagoen menderatze-modu sotil bat gisa ikusten dute. Harreman afektiboez eta sexualez harago doan ikusmolde bat, generoaren berezkoa dena, irudikapen sinboliko guztietan presente dagoena eta iruditeria kolektiboan konstante bat dena, heterosexualitatea araua bihurtuz: heteroaraua.

Eta heteroarauak inon esplizitu egiten ez badu ere, heterosexualitatea, orokorrean, baldintzatzen dituen pertsonentzat beren eraikuntza partikularren (eta giza-sexualitate ororen) oinarri bihurtzen du, hau inplizitu bihurtuz. Era berean, arau hori aukera bakartasunean oinarritzen denez eta ikaskuntza sozialen oinarrietako bat denez, azkenean, munduaren, izakien eta sexuen pertzepzio-eskema bihurtzen da.

Eñautek dioen bezala, “muga bat da, oztopatzen gaituen zerbait. Batez ere jendea estutu egiten duelako, eta horre-



gatik bakarrik, dudarik gabe puskatu behar den zerbait da”.

Muga hitzak ongi definitzen du ezarritako arau sozial batek pertsonen sortzen diena, batik bat honek alternatiba eta aukera gutxi eskaintzen dituenean. Baina, gainera, *muga* kontzeptuari *indar* hitza gehitzen badiogu, mugak inposizio izaera eta indarkeriazko kutsua hartzen du.

Aitor Huiziren esanetan “heteroaraua indar bat da, egin beharko zenukeena edo nola izan beharko zinakeena esaten dizuna. Eta niri indar honek benetako indar fisiko bat balitz bezala, barrura, alde batera, behera eragiten dit”.

Baina hau gutxi ez balitz, Xabier Ormazabalek heteroarauari azken kontzeptu bat atxikitzen dio; *presioa*. “Heteroarauaren baitan presio bat dagoela iruditzen zait, gizartean bizi dugun presio bat. Nik behintzat presio bat bezala bizi izan dut”.

Beraz, batetik, normalaren eremuan onartuaren eta ez onartuaren marra edo mugarria zehazten duen *muga* daukagu. Bestetik, normaltasun horren baitako autoritatea, boterea, sendotasuna, oldarkortasuna, erresistentzia eta derrigortasuna zehazten duen *indarra*. Eta azkenik, normaltasunak berak eragindako *presioa*, forma anitzetako eta poliedrikoa; esate baterako, tentsioa, hertsapena, inposizioa, moralizazioa, omisioa, kikiltzea, errua, gutxiespena, oinperatzea, axolagabekeria eta indarkeriaren gainerako kontzeptualizazioak.



Baina muga orok, indar orok eta presio orok egitura bat behar du, kasu honetan soziala. Hori dela eta, heteroaraua egiturazko fenomeno bat da, zeinak balio eta irudikapen sinbolikoetan oinarrituta, arau heterosexualetik ateratzen diren pertsonen oinarritzko premiei, biziraupe-nari, ongizateari eta askatasunari kalte egiten diena. Heteroaraua betetzen dutenei, bestaldetik, onura eta pribilegio sozial, ekonomiko zein politikoekin sarituz.

Miruren aburuz “gizarte osoko estruktura da heteroaraua. Instituzio, jarrera eta harremantzeko modu konkretu batzuk saritzen dituena. Dena zeharkatzen du, gure gorpuzkera lantzeko modua, nola mugitzen garen, enplegua, hezkuntza, osasuna, politika...”.

Alegia, Lore Lujanbiok laburbildu digun bezala, “heteroaraua erregimen heterosexuala indarrean mantentzeko eta haren ondorioz sortzen diren jokabide *egoki* edota *normalen* multzoa da.

Miren Clementek dioenez “bide horretatik ateratzen den guztia anormala da. Dena *horrela delako* esaldian oinarrituz, nahiz eta zergatia esaten oso ondo ez jakin. Eta uste dut ni ere asko lotzen nauela...”.

Heteroaraua praktika sexualetatik haratago doala ulertu ahal izateko, hainbat adibide jartzen dizkigu Lujanbiok: “Zaurgarritasun, menpekotasun eta ahuldadearekin lotzen ditugun emozioak gizonei ukatzea eta gatazka nahiz boterearekin lotutakoak emakumeei ukatzea hete-



roaraua da. [...] Familia edota elkarbizitza sareak erlazio sexu-afektibo baten bitartez eraikitzea heteroaraua da. [...] Mutilekin ligatzeko neskek kanon estetiko bat jarraituz euren itxura moldatzea heteroaraua da. [...] Haurrak eduki eta zaintzaren ardura emakumeengan kokatzeko arau eta presio guztiak heteroaraua dira”.

Zentzu horretan oso garrantzitsua da heterosexualitatea ez ulertzea praktika sexual soil baten modura, baizik eta gure gizarte osoa zeharkatzen duen erregimen politiko bat bezala.

Pilonek aipatzen duen modura, “gure gizarte hau azkenean piramide bat da, mailakatzean oinarritutakoa. Goian dugu *la familia heterosexual blanca estupenda...* eta beheeraka joanda behe-behean dagoenak ez dauka inongo eskubiderik”. Hor dugu, beraz, mugak, presioa eta indarra hainbeste gurtzen dituen gure gizarte piramidala; dena eraitsi ez dadin bere burua salbatuz eta pertsona orok dagokion mailan jarrai dezan.

Azken finean, ez gara jokabide biologikoez ezta indibidualez ari, egituraketa sozial eta kolektiboaz eta honen izaera hertsagarriaz baizik. Eta hortaz, oso garrantzitsua da agerian jartzea zer nolako kartzela den herritar ororentzat heteroarauaren baitan bizitzea. Alegia, urdinez eta arrosaz margotuta egotea espero ditugun kartzelak habitatzea, non denok garen preso eta kartzelari neurri berean.



▼ NOLA ULERTZEN DUGU INDARKERIA?

Orain arteko bizipen eta pertzepzioetan ikusten ari garenez, genero-aginduak eta heteroaraua normaltasunaren sortzaile diren elementuak dira eta zalantzarik gabeko eragina dute pertsona guztien bizitzetan.

Pertsona asko kontzienteki edo inkontzienteki logika eta normaltasun horrekin eroso bizi dira, eta beste asko deseroso bizizeaz gain, normaltasunean zintzoki bizi direnentzat deserosoak ere badira.

Tirabira horretatik, eta derrigorrezko heterosexualitatearen zein generoaren planteamendu bitar eta bidegabearen izaera zapaltzailetik, azken hamarkadotan gure herrian gertatu diren indarkeria asko sortzen dira.

Eta bai, indarkeria hitza entzuteak beti urduritu egiten gaitu, eta normalki, begi-bistakoak eta detektagarriak diren muturreko ekintza onartezinetara garamatza. Baina gure protagonistek ongi dakite indarkeriak aurpegi, gradu eta ertz ugari duela. Eta nola, horietako asko naturalizatuak, gutxiestuak edota ikusezinduak diren. Desberdintasunak oharkabean igaro daitezen edo bazterkeria pairatzen ez duten pertsonen beren pribilegioak izaten jarrai dezaten.



Indarkeria, bortxakeria, gogorkeria, bortizkeria... Berdin dio nola deitzen diogun biolentziari berari. Garrantzitsuena honen nolakotasuna argitara ekartzea, hausnartzea, ulertzea eta aitortzea baita, ez horrenbeste honen esparru semantikoa aztertzea.

Elkarrizketatu askok esan digutenez, indarkeriaz hitz egitean, oro har, norbaiti min egiteko indarra edo norbaiten kalterako nahita egindako zakartasuna nabarmentzen dira.

Eta, seguraski, kalte edo indarkeria hori, zentzu zorrotzean, pertsonen aurkako eraso zuzena neurtu daitekeen indarkeria bakarra da. Indarkeria materiala, fisikoa, basatia, mingarria eta ikusgarria. Alabaina, badakigu erabilitako indarra ez dela soilik fisikoa edo ikusgarria, ezkutukoa edo ikusezina ere badela.

Huiziren esanetan “indarkeria edozein freno da. Eta hortik hasita, freno bezala funtzionatzen duen edozer gauza da indarkeria. Zerbait egin nahi eta ezin duzun horretan dagoen edozein arrazoi da indarkeria”.

Miru harago dihoa eta indarkeriaren aurpegi anitzak mahaigaineratzen dizkigu. “Ezingo nizueke momentu honetan definizio argi bat eman, baina ahalko nizueke esan forma askotako indarkeria dagoela: estrukturala, sinbolikoa, fisikoa, psikologikoa... Eta indarkeria berez badela modu anitzetan pertsona baten nahiaren kontra egitea”.



Miruk argitzen digunez, indarkeria jatorri eta norabide anitzekoa denez, ezingo genuke zartako batean sinplifikatu.

Eta, hain zuzen ere, indarkeriaren ulermenaren arazo nagusietako bat da ez dagoela definizio zehatz eta kolektiborik, indarkeria aurkezteko dauden formen ugaritasunaren berri ematen duenik, edo, gutxienez, haren ezaugarri garrantzitsu eta komunak adierazten dituenik.

Bestalde, beste zailtasun bat ugaritasun hori bera da, eta, horregatik, askotan indarkeriez hitz egiten da, eta ez indarkeriaz singularrean; horrela, indarkeria mota bakoitzerako ulermen eta definizio zehatzagoak aurkezten baitira. Eta indarkeria zehatzei begirada desberdinetatik eta modu anitzetan heltzeak, justuki, indarkeria bere konplexutasunean begiratzen laguntzen digu, bai eta indarkeria mota desberdinen jatorrien, formen eta dinamika edo funtzioen ezaugarri zehatzagoak nabarmentzen ere.

Beraz, argiki, indarkeria ekintza zehatz eta ikusgarri gisa soilik ulertzeak ez digu mesede handirik egiten. Alde batetik, indarkeria ez delako soilik norbaitek beste baten aurka duen jokabidea edo aurrera eramaten duen ekintza. Eta bestetik, bi pertsona (edo talde bat) aipatzen direnean, indarkeriazko ekintza egiten duena subjektu aktibo bakarra dirudielako, eta indarkeria jasotzen eta pairatzen duena ez dugulako subjektutzat hartzen. Eta hala izatekotan, hau biktima, subjektu pasibo edo kan-



potik datorren zerbaiten hartzaile gisa ikusten dugulako.

Hortaz, indarkeria soilik biktima baten aurkako ekintza gisa ikusteak, gertaera eta testuinguru bakar batera mugatzea da, ingurune sozialarekin, historiarekin eta beste faktore batzuekin duen loturari ere erreparatu gabe. Eta noski, indarkeria-harremanak egituratzen eta naturalizatzen dituzten baldintzapen moralak eta botere-harremanak existitzen direla kontuan hartu gabe.

Horregatik, funtsezkoa da ulertzea indarkeria, zuzena izateaz gain, estrukturala eta sinboliko-kulturala ere badela.

Indarkeria estrukturala, arestian heteroarauaz hitz egitean aipatu dugun bezala, batez ere, instituzio edota egitura sozialen bidez gertatzen delako. Eta honek, bigabekeria soziala eragiten duen zeharkako indarkeria denez, pertsonen oinarritzko beharrizan asko ez ditu asebetetzen.

Gogoratzen al duzue Pilonek aipaturiko piramideak? Bada, horretan oinarritzen da indarkeria estrukturala, piramidearen maila guztietan arreta ez jartzean.

Baina, indarkeria zuzena erasotzaileak berak sortzen badu eta indarkeria estrukturala sistematik -egituratik- antolatuta badago, nola jarduten du indarkeria sinbolikoak? Bada, indarkeria sinbolikoak ideietatik, arauetatik, etikatik, erlijiotik, moraletik, legeetatik, zientziatik, filosofiatik, literaturatik, artetik eta abarretik eragiten du. Sin-



boloak gure hizkuntza, ezagutza, jarrerak eta jokabideak eraikitzeko funtsezko elementuak baitira, eta, ondorioz, indarkeria sinbolikoa pertsonen arteko diskriminazio eta bazterketen lanketa abstraktuena dela esan genezake.

Finean, kulturak edozein jatorri eta kutsu zapaltzaileko indarkeria legitimatzea edota bultzatzea litzateke. Eta, argi eta garbi, gure kultura heterosexistak, arlo sinbolikotik, indarkeria estrukturala justifikatzeaz gain, indarkeria zuzena ere susta dezake.

Bestetik ere, indarkeria sinbolikoak zapalduak pentsamendu zapaltzailearen eskemak onartzea eta barneratzea lekarke, zapalkuntza-harremana bera ikusezin bihurtuz.

Izan ere, indarkeria sinbolikoaren ondorioz, zapaldu-tako pertsonen indarkeria naturalizat eta aldaezintzat hartu dezakete, askotan, honen arrazoiak ausazkotzat ere ulertuz (zorte txarra, patua, jainkoa, norbere errua, etab.). Eta, ondorioz, ez zaio indarkeriari inolako erresistentziarik egiten, eta, paradoxikoki, zeharka laguntzen zaio egoerari eusten.

Luis Intxauspek, hain justuki, indarkeriaren izaera sinboliko horretaz hitz egiten digu: "Indarkeria ez da soilik kontra egitea edo jokabide erasokor soil bat, errespetu faltarekin loturiko jarrera bat baizik. [...] Ez da bakarrik *por acción* edo ekintza batekin lotzen duguna. Hau da, eraso, iraintzea edo dena delakoa dela, *por omisión* ere eragiten dela. Esaterako, eraso bat dagoela ikusten dugunean, ezer



ez mugitzea, ez eta erantzutea ere”.

Aitor Huizik ere beste gako bat ematen digu: “Indarkeria jipoitzea da? Bai. Baina ez da hori bakarrik. Esaterako, edozein espazio ez izatea legitimoki zurea edo espazio horretan %100ean gustora ez sentitzea. Hori dagoeneko bada indarkeria niretzako”.

Azkenik, azpimarratzekoa da ezin dugula indarkeria espazioan mugatutako testuinguru batean soilik ulertu. Zeren indarkeria edozein espaziotan, eskolan, etxean, enpleguan edo kalean gerta daitekeen arren, indarkeria gauzatzen den agertokia izatetik harago, espazioa edo tokia bera indarkeria erreproduzitu eta bultzatzen den espazioa izan daiteke ere. Hau da, Huizik aipatzen digun bezala, espazioak eta hauen egituraketak ez dira neutroak, helburu eta izaera bat baitute.

Era berean, ezin dugu indarkeria denboran mugatutako testuinguru baten barruan soilik ulertu, horrek indarkeriazko ekintzaren unean azaletik kokatzen gaituelako bakarrik. Eta ondorioz, ekintza bortitza berehala sortu eta amaitu egiten dela ulertzen dugulako, non kalte batzuk egongo diren, eta agian zigorra eta erreparazioa ere egon daitezkeen. Baina, denbora zehatz batean kokatutako begirada horrek indarkeriaren zergatiak soilik erasotzaileen edota biktimen ezaugarrietan bilatzera bideratzen gaitu, testuinguru historikoari eta sozialari arreta eskaini beharrean.



Horregatik, memoria historikoaren ikuspegitik, garrantzizkoa da agerian ez dauden indarkerien zergatiak ikusaraztea eta hauetan sakontzea; batez ere, indarkeria ekintza erlazional soil eta ikusgarri baten atzean, sozialki zein historikoki sortutako zapalkuntza egitura batzuk errotuta ditugula ulertu ahal izateko.





LGBTFOBIA: HOMOFOBIATIK HARAGO

Argi geratu da, beraz, zein den indarkeriaren tamaina eta nola mamitzen den eremu guztietan. Baina esan dugun bezala, garrantzitsua da arreta jartzea indarkeria espezifikoetan, kasu honetan, LGBT pertsonen aurkako indarkerietan. Eta are beharrezkoagoa da ikustea nola espezifikotasun honek beste zapalkuntza faktore batzuk eraginda jarduten duen, hala nola, klasismoa, arrazismoa, gaitasunkeria, elitismoa, adinkeria eta abar. Hau da, LGBTfobia beste indarkeria horien logika berekoa denez eta LGBT pertsonak, jakina, ez daudenez bestelako kategorizazio sozialetatik salbuetsita, hauek jasaten duten indarkeria, zapalkuntza ardatz gehiagoren arteko elkarrreraginetik eratorriko da.

Historikoki, patriarkatuak ezarritako heterosexualitatea zilegitzat hartzeak, honekin loturiko eredu sexuala onartzea ere ekarri digu. Hau da, sexualitatea ulertzeko modua ugalketaren ikuspegitik abiatzea, honek dakarren guztiaekin; esaterako, maitasun erromantikoa idealiza-



tzea; praktika erotiko guztiak koitora murriztea eta genitalak (gehienbat zakila) plazer iturri bakartzat hartzea, plazer sexualerako gainerako praktikak eta gorputz atalak hierarkizatuz edota patologizatuz; helduen ugalkortasunetik harago haurrek eta zaharrek ere sexualki gozatzeko gaitasuna dutela alde batera uztea...

Funtsean, esan genezake aspalditik bizi garela kultura batean non moral sexualak gure sexualitatea (ugaltze-) etxeetako intimitatean bizitzera baztertu gaituen, hau, gorputz zehatz batzuekin eta praktika jakin batzuen birtatez soilik espermentatuz, eta, harrigarriki, sexualitatea aldi berean etxean ere aipatu ezin den tabu moduko bat bezala sentituz.

Beraz, seguraski, heteroarauan oinarritutako moral sexual hori aspalditik bizi dugun errepresio sexual guztia- ren arduraduna ere bada. Alegia, plazera ematen eta jasotzen duten pertsona eta gorputz guztiek jasandako errepresioaren erantzule zuzena. Eta heterosexismoan oinarritutako moral honentzat (arrazakeriarentzat pertsona arrazalizatuak edo klasismoarentzat pertsona po- break kasu), sexualitatea arautik at garatzen duten per- tsonak, zalantzarik gabe, gizartearen kohesio sozial eta morala mehatxatzearen susmagarri dira.

Baina moral sexual hori aldatuz doa eta, zorionez, az- ken urteotan, urrats garrantzitsuak eman ditugu itzalean betidanik egon den aberastasun eta aniztasun sexuala



agerian utziz eta aitortuz. Eta horrek, nolabait ere, hobe-kuntzak ekarri ditu kontzeptualki LGBT siglen atzean dauden indarkeria espezifikoak izendatzeko eta aztertze-ko garaian.

Izan ere, homosexualitatea eta homofobia aipatzetik, dena zaku berean ez sartzera eta lesbiana, gay, bisexual eta trans pertsonen errealitateak eta LGBTfobia izenda-tzera pasa gara. Gainera, egun, *plus* (+) ikurraren erabile-rak erakusten digunez, hau guztia ez da desioaren orien-taziora edo genero-identitatera mugatzen. Ikur horrek, azken finean, heteroarautik kanpo kokatzen diren sexua-litate guztiak sinbolizatzen baititu, indarkeria espezifiko horren aztergaiak irekiz.

Homofobia bera, sinpleki ikusita, homosexualitatearen gaitzespen eta homosexualekiko etsaitasun sistematiko gisa ulertu dezakegu. Baina, homofobia, modu zabala-goan, gizonen artean femeninoak diren ezaugarriak eta emakumeen artean maskulinoak diren ezaugarriak gai-tzestea ere izan daiteke.

Horrela, alde batetik gay eta lesbianen aurka gauzatzen den homofobia partikularra izango genuke, eta bestetik homofobia orokorra, genero maskulino eta femeninoen hierarkizazioan oinarritzen dena. Kultura patriarkalak berak ezarritako hierarkizazioa.

Homofobia beren genero-ezaugarriak betetzen ez di-tuzten pertsonak zigortzeko aktibatzen denean, horrek,



noski, edozein pertsonari kalte egin diezaioke eta *marikoia* edo *mari-mutil* bezalako irainak pertsona heterosexualei ere aplika dakieke. Homofobia orokor horrek, sexu-orientazioaz harago, ustezko maskulinitate eta feminitate perfektuaren gabezia baitu ardatz, maskulinoa eta femeninoa izatearen eraikuntza sozialak berak dakarrena. Hau da, dudarik gabe, generoaren izaera arautzailetik datorrena, homosexualitatearen mamua erabiliz genero-ezaugarriak betetzen ez dituzten pertsonak zigortu eta zuzentzeko. Beraz, honen guztiaren jatorri sakona heterosexismoan dagoela esan genezake.

Zentzu honetan, edozein sexu zein genero disidentziaren izate hutsak, ez die heterosexismoak gehien baldintzaturiko pertsoneri objektiboki inolako mehatxurik eragiten. Baina subjektiboki, bai suposatu diezaiekeela mehatxu bat, hein batean, ahalegin handiz eta denbora luzez eraikiz joan diren sexualitate-moldea kolokan jartzen dielako. Eta, jakina, honek sekulako frustrazioa, deserosotasuna eta gorrotoa, zein hauen ondoriozko indarkeria, sorrarazten du.

Hala ere, esan dugun bezala, nahiz eta homofobia LGBT pertsonenganako indarkerien izendatzaile komuna izan, termino hau motz geratzen zaigu dagoen sexu eta genero aniztasun guztiarekiko indarkeriaren eremuan sakontzerakoan. Eta gure protagonisten adierazpenetatik uler daitekeenez, alde handia dago, adibidez, Euskal Herrian



jaiotako 50 urtetik gorako emakume lesbiana pentsioduna izatearen eta beste herrialde batean jaiotako 18 urteko mutil trans bisexuala eta ikaslea izatearen artean.

LGBTfobiaren konplexutasuna ulertzeko gakoa, desioaren orientazioarekin edo genero-identitatearekin bakarrik ez geratzea eta modu zabalagoan begiratzea baita. LGBTfobian ere jatorriak, adinak, lan-egoerak, egoera zibilak, trebetasun fisiko, kognitibo eta sentensorialek eta abar luze batek zeresan handia dutelako.

Goazen beraz, LGBT siglen atzean dauden oinarrizko berezitasunak xehatzera. Alegia, lesbofobia, gayfobia, bifobia eta transfobiaren ezaugarri batzuetan sakontzera:

▼ LESBOFOBIA

Lehenik eta behin, lesbianen aurkako indarkeria dugu; eta hau izendatzeko *lesbofobia* terminoa erabiliko dugu, homofobiaren kontzeptu orokorrak ezkutatzeko joera duen mekanismo oso zehatzak azaleratzea ahalbidetuko digulako. Ikuspegi androzentrikoak, sexistak eta misoginoak eraginda, homosexualitateaz (edota homofobiaz) hitz egitean soilik gizonen sexualitateari buruzko aipuak egiten direlako, eta ondorioz, emakumeen homosexuali-



tatea (hauek emakume izate hutsagatik) are eta ikusezina bihurtzen da. Eta, hain justuki, ikusezintasun heteropatriarkala denez, funtsezkoa da *lesbofobia* terminoa esplizitu egitea emakume lesbianak ikusarazteko. Gure kulturak ikusezin bihurtzen baititu emakume lesbianak; eta hau hala da.

Sexu-genero kategorietan, sexu-orientazioan eta genero-adierazpenean oinarritutako lesbianenganako diskriminazio honek lesbianen identitatearen aurkako aurreiritziak, jarrerak, sentimenduak eta abusuak barnean hartzen ditu. Lotura zuzena baitu intsumisio patriarkalarekin eta gizonezkoen paperaren ustezko usurpazioarekin. Lesbofobia, beraz, sexismo mota bat da, homofobiarekin gurutzatzen dena. Eta, ondorioz, diskriminazio bikoitza eragiten du.

Arestian ikusi dugunez, heteropatriarkatuan, sexualitatea heterosexualitatearen eredu nagusira mugatuta dago, non gizonaren figurak emakumeen sexu-askatasuna kontrolatzen, menderatzen eta zuzentzen duen. Kultura matxistak ez baitu emakumeen sexualitatea ulertzen haren kontrola, errepresioa, plazera edo parte-hartze aktiboa joan ez badaude. Historikoki, emakume-kategoria bera, genero-agindu tradizionaletan oinarritutako sexualitate heteropatriarkalaren logikapean, plazer maskulinoa lortzeko tresna hutsa izan baita.

Eta noski, logika horren hausturatik eta autonomiatik



bizitako sexualitate lesbikoak haserrea, gorrotoa, inbidia eta gaitzespena eragiten ditu; bai gizon eta bai emakume heterosexualei. Lesbofobia, beraz, sistema patriarkalaren eta ugalketa-sistemaren defentsarako mekanismo gisa ere agertzen zaigu. Horregatik, lesbofobia adierazle ona da ikusteko zenbateraino blaitzen duen gure egunerokotasuna androzentrismoak.

Asko dira errealitate lesbikoen inguruan eraiki izan diren estereotipoak. Oso emakume maskulinoak direla, ile motza dutela, ez dutela ez gona ez soinekorik janzten, ez dutela takoirik erabiltzen edota zakarrak eta desatseginak direla. Azken estereotipo honek, gainera, lesbianen etengabeko ustezko haserrea bi emakumeren arteko harremanean zakil baten *falta* izatetik datorrela indartzen du maiz.

Baina ongi dakigu, lesbiane (eta orokorrean heteropatriarkatuaren emakume intsumisoei) buruz *zakil on baten faltan daude* edo *‘es una malfollada’* bezalako esamoldeak botatzen direnean, hauek, gizon heterosexual askoren defentsa-mekanismo hutsa besterik ez direla. Hau da, kontratu sexualaren ekuaziotik ordezkatua izateari eta desagertzeari erresistentzia.

Argia da, beraz, estereotipo hauek, izaera homofoboaz harago, oso oinarri sexista nabarmena ere badutela. Eta egia esanda, gizon homosexualen inguruan eraikitako estereotipoekin alderatuta, azken hauei estereotipo *positiboak* esleitu ohi zaizkie.



Aldiz, ematen du lesbianek sinpatia gutxiago sortzen dutela, eta, oro har, gure imajinario kolektiboak, etengabe hauen irudi maskulinoa eta gizon heterosexualei dieten ustezko gorrotoa nabarmentzen dituela. Batez ere, lesbiana gizonaren papera eta boterea zalantzan jartzen duten subjektuak izate hutsagatik; eta horrek, ezinbestean, gorrotoa sorrarazten du.

Ondorioztatu dezakegu, hortaz, gure kultura misoginoak, lesbianeiei ospea kentzera bideratutako abileziak martxan jartzen dituela; lesbianen identitateak ikusezin bihurtuz eta kolektibo honen aniztasuna propioa zokortuz.

Izan ere, gure imajinario sozialak, askotan komunikabideek elikatutako kontzientzia kolektiboaren bidez, lesbianen gorputzak, desirak eta praktikak ulertzeko modu asko utzi ditu kanpoan, hauen inguruko iruditeria bakarra sortuz.

Iruditeria bat zeinak, hauek onargarriak izan daitezen, literaturak, pornografiak, telesailek edota filmek lagunduta, eta feminitatearen eta heteroarauaren parametro tradizionalekin bat datorren lesbiana izateko modu bat sortu duen.

Baina gure herrian historikoki existitu diren indarkeriei erreparatuz, azpimarratu behar da horiek guztiak, batez ere, mespretxuari eta ikusezintasunari lotuta egon direla.

Amaiak ondo daki bizitzan zehar mespretxuak bere



egunerokoan izan duen tokia. “Gaztetan, gure inguruan, lagunekin eta ondo, baina herrian bertan bai ikusi izan gaituztela pixkat *‘como las apestadas’* edo *‘como las viciosas’*. Gerora normaltasunez hartu izan da dena baino badago beti baten bat...hau da, oraindik jende asko dago gu begiratzen gaituela...eta umea izan genuenean seguro pentsatzen zutela *‘a ver que traen estas en el carro’*. Eta gaineratzen du: “Ez dut inoiz muturreko gaitzespenik sentitu, baina bai desberdina naizenaren ideia... besteen altuerara egongo ez banintz bezala”.

Baina ikus dezagun orain, eta lesbianen ikusezintasunari tiraka, zein den gure protagonistek honi buruz duten pertzepzioa.

Frankismo garaian badakigu lesbianak egon bazeudela, baina errepresio faxistak nolabait ere baldintzaturik, hauek etxeetako intimitatera mugatzen zituzten beren harremanak. Miren Clemente gogoratzen da honetaz: “Ezagutzen ditut elkarrekin bizi ziren emakumeen kasuak, eta jende gehienak uste zuen oso lagunak zirela edo bikote izan zitezkeela, baina hau oharkabea pasatzen zen...”.

Trantsizioaren ondorengo urteetan, bestetik, Empar Pineda dugu, publikoki lesbiana zela aitortu zuen lehen Hernaniarra izateaz gain, estatu mailan komunikabide batean publiko egin zuen lehena ere izan zena. Eta hori aise garrantzitsua izan zen herri mailan emakume les-



bianen ikusgaitasun mailan aurrerapausoak eman ahal izateko.

Ixiar Pagoagaren esanetan, “hori oso gustuko hartu genuen eta pentsatu genuen *`dios*, badago jendea [...] eta diversidade pixkat behintzat agertzen hasi da...” guretzako oso inportantea izan zen, [...] mugarri polita izan zen eta asko komentatu genuen. Guretzat (Empar) erreferente bat izan zen!”.

Dena den, hura aurrerapauso garrantzitsua izan bazen ere, urtetan lesbianen ikusgaitasun ezak bere hortan jarraitu zuen. Pilonek kontatzen digunaren arabera, bera 90. hamarkadan herrira etorri zenean bizitzera, lesbiana izateak ez zuen inolako zentralitaterik ere, ez onerako ez txarrerako. Eta, bere bizipenen partekatzearekin batera, argi azaltzen digu oso ohikoa zela lesbianen errealtateak gay errealtateekin alderatuta oharkabea igarotzea, ikusezintasuna bera dela eta. “Lesbianok, orokorrean, gizon homosexualekin alderatuta ikusgaitasun arazoa izan dugu beti, ni Donostiatik Hernanira etortzeak ez zidan aparteko arazorik sortu zentzu horretan (indarkeria lesbofoboari ere dagokionean)”.

Hortaz, arlo afektibo eta sexualean, ikusezintasun hori, konstante bat izan ohi da harreman lesbikoetan; ia beti ziurtzat jo izan delako espazio publikoan eskutik elkarri helduta zihoazen edo elkarri musukatzen ari zioten bi emakume lagunak besterik ez zirela.



Eta segur aski honen arrazoia izatea, alde batetik, orokorrean emakumeen genero rol tradizionalaren baitan afektibitate- eta maitasun-adierazpenak betidanik onartu izan direla; eta bestetik, inoiz ez dela sozialki bideragarritzat hartu emakumeek harreman erotikoaz gozatzea, tartean gizon baten rol aktiboa egon ezean.

Pilonek ere beste pista bat eman digu gogoratzean zer-nolako ikusezintasuna izan zuten lesbianek GIB/HIESaren garai gorenean: “Lesbianoi ez gintuzten ezta aipatzen ere egiten HIESaren mobidan. Eta gure kolektiboak ere salatzen zuen zergatik ez gintuzten lotzen arrisku horrekin. Bazirudielako ez zegoela sexurik gure artean!”.

Bestalde, ugalketa-eremuan, nahiz eta amatasuna emakumeen ustezko errealizazio pertsonalerako funtsezko gaia izaten jarraitu, esan beharra dago, ugalketa-eskubi-deak dei genitzakenei dagokionez, aurrerapen dezente egin direla lesbianek haurrak izateko orduan.

Halarik ere, lesbianek edozein ugalketa-beharretarako osasun-sistemara jotzen duten prozesuetan, lesbiana izateak oraindik ere zaila izaten jarraitzen du. Medikuntzaren ikuspegi heteroarautuarentzat ez baitago gizon-emakume binomiorik; eta batzuetan, bi ama direlako, edo besteetan gurasobakarreko errealitatea delako, traba anitzekin topatzen dira.

Amaiaren kasuan, honi loturiko anekdota andana konstatu digu: “Nik haurdun geratzeko prozesuan bizitako



gauza asko lesbofobiatzat hartzen ditut. Esaterako, erditzeko egunean, paritorioan, paper batzuk betetzeko ekarri zizkiguten. Bueno bada, gaur egun, paper horietan oraindik ere *‘padre-madre’* laukitxoak agertzen dira. Ez dago beste bikoterentzat aukerarik. Eta tipak esan zidan *‘bueno pues tacha lo de padre y pon...’* eta nik *‘no, es que no voy a tachar nada, es que no voy a rellenar este formulario’*, eta ez nuen bete! Gero hemen anbulategira joan nintze-nean... Pediatrak esan zuen *‘estoy encantada de tener dos madres la primera vez’* eta nik, *‘joder es que parecemos dos bichos raros’*. Sentiarazten dizute berezia eta baztertua... Eta ez zait batere gustatzen”.

Bestalde, gaur egun, arlo kultural eta politikoan dagoen ikusezintasun lesbikoari dagokionez, Pagoagak honakoa dio: “gure herrian proiektzio handia duten lesbianak bizi dira, erreferente positiboak eta potenteak gainera, baina ia inoiz ez da haien disidentzia sexuala aipatzen. Nahiz eta herrian jakin beren lanean onak, hernaniarrak eta gainera lesbianak direla, jendea profesional onak eta hernaniarrak direnarekin gelditzen da orokorrean. Eta nahiz eta publikoki jakin lesbianak direla, ezkutatu egiten da eredu egin dezakeen beste elementu hori (lesbiana izatearena). Jendeak berak egiten du e!”.

Printzipioz, askorentzat, lesbiana izateak ez luke zertan nabarmentzeko modukoa izan behar. Baina, emakume-erreferenteen kasuan, aldiz, bai azpimarratzen dugula



maiz, espreski emakumeak direla. Orduan, lesbianen kasuan, diskriminazio bikoitza jasaten dutenean gainera (sexista eta homofobia), zergatik ez diogu lesbiana izate horri hainbesteko garrantziarik eta ikusgaitasunik eskaintzen?

Izan ere, ikusezintasun lesbikoa eta heteroaraua nagusi diren bitartean, erabat beharrezkoa litzateke beren ibilbide profesionalagatik publikoki ezagunak diren lesbianak ere lesbianatzat hartzea. Ez bakarrik beste lesbiana batzuk berdinen artean erreferenteak eduki ditzaten, baizik eta, oro har, gizartearentzat eredu izan daitezen.

Esan genezake, beraz, gaur egun, oso beharrezkoa dela behingoz errealitate lesbikoen irudi positiboa gure iruditeria sozialean txertatzea eta hauek ikusaraztea. Zeren lesbofobia, azken 50 urteotan eraldatu bada ere, oraindik oso inplizituki jarraitzen baitu gure herriko egunerokotasunean. Eta, tamalez, normalizazioaren edota naturalizazioaren diskurtsoak ez digu nahi adina lagundu honetan.

Horren adierazle da Xabier Ormazabalek kontatzen diguna: “Behin, nire ezagun batek, bazkari batean komentatu zuen ez lukeela nahiko bere alaba lesbiana izatea. Hau da, horrela jarraitzen dugu”.

Beraz, ezin dugu ahaztu gaur egun lesbofobia hainbat modutan aurkezten zaigula. Lesbofobia, oraindik ere, emakume guztien *luma* maskulinoaren ukazioa da; non,



mari-mutil, bollera, mari-gizon edota mari-motrailu irainak erabiliz, hauek zigortzen ditugun.

Lesbofobia, desira lesbikoak baliozkotasuna har dadin, ezkondu eta haurrak eduki behar izatea da. Lesbofobia harreman lesbikoak adiskidetasun-harremanetan ezkutatzea da. Lesbofobia lesbianek jasaten dituzten diskriminazioak gizon homosexualek jasaten dituzten diskriminazioen zaku berean sartzea ere bada. Eta nola ez, ikuspegi heterosexualetik matxismo estrukturalaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko kritika soilik egitea ere.

▼ GAYFOBIA

Lesbofobia garatu ondoren, gure herriko gizon homosexualen aurkako homofobia espezifikoari buruzko zer-tzelada batzuk ematea dagokigu orain.

Bistakoa da lesbianek homofobia partekatzen dutela gay gizonekin, baina azken hauek, botere sozialaren eszena gainerako gizonekin partekatzen dutenez, beste indarkeria espezifiko batzuk jasaten dituzte, gehienbat maskulinitatearen eraikuntzarekin eta erakustaldiarekin loturikoak.



Eta nahiz eta egokiagoa izan maskulinitateez pluralean hitz egitea, eta ez soilik singularrean, heteropatriarkatuak, genero-estereotipoen bidez, maskulinitate guztietan, hauek edozein direla ere, irmoki bete behar diren rol tradizionalak sustatzen ditu: indartsua, independentea, hornitzailea, babeslea, lehiakorra, subjektu aktiboa eta protagonista izatea, besteak beste.

Eta, hain zuzen ere, maskulinitatearen izaera tradizionalaren berezko rolek, indarkeriaren erakustaldia eta go-raipamena erabiliz, sozialki zein sexualki ezarritako ordena defendatzeko eta mantentzeko balio dute, ondorioz, gizonak eta maskulinitatea bera sarituz.

Baina gaiari heldu baino lehen, eta maskulinitatea, oro har, homofobiarekin eta gayfobiarekin lotuta dagoela ikusi baino lehen, has gaitezen gizon homosexualen inguruan eraikitako estereotipo sozialak aztertzen.

Lesbofobiari buruzko aurreko atalean, ikusi dugu nola, mespretxuzko ikuspegi negatibotik, lesbianen inguruan eraikitako estereotipo sozialak maskulinitatearen usurpazioarekin eta sexualki gozatzeko gabeziarekin lotu ohi diren.

Baina, bestetik, gizon homosexualekin lotzen diren estereotipoak ditugu. Hauek, kasualitatez, tradizionalak femeninoak izan diren balioei loturikoak, eta ikuspegi *positiboago* eta *leunago* batetik abiatutakoak. Egun, oso ohikoa baita entzutea, gizon homosexualak beren irudia



asko zaintzen duten pertsona alai, barregarri, sentibera, atsegin eta maitagarriak direla.

Horrek adierazten du heterosexismoak desberdin jokatzeko duela emakume edo gizon izanda. Zeren, nahiz eta gizon homosexualak, pribilegio heterosexualei uko egi-teagatik, identitate maskulino *debaluatutzat* eta *desbideratutzat* jo, hauek gizon izaten jarraitzen dute.

Hala ere, horrek ez du esan nahi gizon homosexualak onik ateratzen direnik. Izan ere, kategoria sozial nagusiko kide izaten jarraitzen duten arren, hauek beren generoaren traidoretzat har daitezke, eta horrek presio gehigarria eragiten du. Eta, justuki, hor sartzen da maskulinitatea, homofobiaren sustatzaile nagusi gisa.

Hau da, gehienetan, maskulinitatearen eta heterosexua-litatearen arteko uztarketak logika homofobo bat sortzen du; alegia, generoaren zein sexu-orientazioaren arabera gauzatzen den homofobia.

Batetik, generoarekin loturiko homofobiak espektati-ba sozialekin bat ez datozen gizonaren jokabideak eta ezaugarriak zigortzen dituelako. *Generoaren zaindaritza* moduko baten bidez, gizontasuna, femininotasunaren ukapenaren eta gaitzespenaren arabera egituratuz. Eta ondorioz, ia gizon gehienek homofobia orokortua biziz beren biografia osoan zehar.

Eta bestetik, sexu-orientazioagatiko homofobiak, homo-sexualitatea zigortzen du; maskulinitatea bera heterose-



xual gisa aurkezten baita. Hemen aktibatzen da, beraz, gayfobia edo homofobia espezifikoa.

Sarritan, gehiegizko feminitatea edota maskulinitate eskasia zigortzen duen generoari lotutako homofobia hori, maskulinitatea degradatzen eta zalantzan jartzen duten irainak erabiliz aktibatzen da. Esaterako, *maritxu*, *marikoi*, *atzelari*, *emagizon*...

Eñautek ongi daki, adibidez, elementu estetiko femeni-noak erabiltzeak dakarren homofobia: “Familiakoen partetik entzun izan dut belarritakoa jartzea *marikoi*ena dela”.

Honi dagokionez, Luis Intxauspek ere bere esperientzia kontatzen digu: “Nire ingurua oso neskena zen... Hau da, nesken jolasetara jolasten nintzen; gomara eta sokasaltora. Eta hor bai nabaritu izan nuela nire inguruan heteropatriarkatuaren eragina. Hasieran jasotzen nituen mezuak ez zeuden *marikoi* irainarekin lotuta, baizik eta nire rola ez betetzeari lotuta, *‘zer ari zara nesken jolasetara?’* eta horrelakoak. Gerora jada, bai agertu zela *marikoi* kontzeptu bezala. Eta nekazalgunea zen, imajinatu!”.

Aitor Huizik, irainik aipatzen ez badu ere, genero estereotipoekin loturiko homofobia hori ere azaltzen digu: “Ni lagun batzuekin ibiltzen nintzen, eta guztiak neskak ziren. Eta garai hartan, mutil bat neska talde batekin ibiltzea, ez zen zegokiona, ez zen ohikoena”. Eta gaineratzen digu: “Ni bai sentitu izan naizela gaizki, edo deseroso egoera batzuetan. Eta gero konturatu naiz askotan arau



horren barruan ez sartzeagatik izan dela, edo espero den bide horri ez jarraitzeagatik”.

Eric Androgenok eta gainontzeko elkarriketatu askok gurekin konpartitu duten bezala, irain hau haurtzaroan eta nerabezaroan zehar etengabe entzun izan duten konstante bat izan da. Eric Androgenok dioskunez, “maritxua gora eta maratxua behera entzuten nuen etengabe...Kale-tik ezezaguna zen jendearen partetik ere”.

Eta horrela da nola, elkarriketatu batzuen ustez, erakitzen dihoan identitate homosexuala; diskriminazio eta indarkeria homofobiko horren bizipenen bidez. Askotan, haur bat *marikoi* gisa sistematikoki izendatua denean, beste hurrekiko bere ezberdintasunaz eta gutxiagotasun sozialaren egoeraz jabetzen hasten delako, irainak berak zer esan nahi duen eta homosexualitatea zer den jakin baino askoz lehenago.

Ormazabalek dioenez, “ni txikitan ez nintzen kontzientea. Bai iruditzen zitzaidala gustatzen zitzaizkidan gauzak ez zirela mutilen gauzak [...] baina segur aski lehenengo erasoez ez nintzela ezta konturatu ere egingo (*marikita* edo, esatearena). Nik printzipioz, ez nuen nire burua marginatutzat ikusten, baina gerora helduagotan bai...”.

Bestetik, genero-rolen transgresio horren gaitzespenetik (rol maskulinoak hartzen dituzten emakumeen kasuan gertatzen den bezala), *lumafofia* agertzen da. Are eta gaitzespen zehatzagoa, gorputzarekin eta genero-adie-



razpenekin loturikoa. Adibidez, ahots-tinbre altuagoa izateagatik, aldakak kulunkatzeagatik, eskuen gehiegizko adierazkortasunagatik edota mugimendu zehatz batzuk egiteagatik agertzen den gutxiespena.

Beraz, haur bati, genero-adierazpen maskulinoa badu ere, *nesken gauzak* egiteagatik edo haiekin harreman handia izateagatik *marikoi* dei dakioke. Baina honek, gainera, adierazkortasun femenino nabarmena badu, lumafohia ere jasan dezake.

Lumafohia, beraz, gure egunerokoan oso txertatua dagoen gaitzespena da, bai errealitate heterosexualetan bai errealitate homosexualetan. Eric Androginok dioten bezala “maskulinitatea abantaila bat da sozialki. Ez da gauza bera gay maskulinoa izatea edo gay femeninoa izatea”.

Baina badago gure hizkuntzan oso presente dagoen beste irain bat, homofobia espezifikoarekin edo gayfobiarekin gehiago lotzen dena, eta konkretuki, penetrazio analari erreferentzia egiten diona. Nork ez du inoiz entzun edo erabili *zoaz popatik hartzera* esamoldea?

Tira, bada, maskulinitate tradizionalari ere euste-horma gisa balio dion esamolde hau, gizon homosexualen praktika erotikoen estigmatizazioarekin lotzen da zuzenean. Nahiz eta, bistan denez, penetrazio anala ez izan soilik gizon homosexualen arteko praktika bat.

Eta, hain justuki, esamolde honetan elkarbizi dira orain arte aipatu ditugun bi homofobia moduak. Funtsean,



alde batetik, maskulinitate-aktibo-dominante-penetratzailearen eta feminitate-pasibo-dominatu-penetratuaren logika sexista bultzatzen duelako, eta, bestetik, gizon homosexualen ospea zikintzeko helburua duelako.

Ormazabalek, esaterako, askotan entzun izan ditu sarketa analari buruzko aipuak: “Txikitan, lagun batek, *`no te agaches que te la meto!*’ esaten zuen, broma klabea... Eta gaur egun indarkeria bezala ulertzen dut baina momentuan...”.

Horrelako esamoldeen bidez, maskulinitatea norbait menderatzearekin edo norbaiten jabe egitearekin lotzen da; hau da, pertsona bati penetrazioa praktikatzen diotzun bitartean hau azpiratzearekin. Hortaz, norbait ez makurtzera desafio egitean, honi penetratua izateari erresistentzia iradokitzen zaio; baita engainatua ez izatea, menderatua ez izatea eta, nola ez, homosexualitatearen atzaparretan ez erortzea ere.

Gaingan/azpian edota aktibo/pasibo binomioek, koitoaren baitan ezkutatzen den dominazio-izaera deskribatzen dute. Eta deskripzio honek, sinbolikoki, aktibotasunaren balioespena erakusten du, pasibotasuna bera baliogabetuz. Azken hau maskulinoa ez den posizioarekin lotzen baita, edo argiki esanda, femeninotasunarekin.

Hortik, askotan, gayen (eta lesbianen) arteko sexu-harremanak imajinatzean, galdetzea nork egiten duen nekarena eta nork mutilarena. Sexu-harreman hauek (he-



terosexualen kasuan ere) ezin baitira berdinen arteko erlazio gisa interpretatu; gizon baten eta gizona ez den (eta beraz, *marikoi*) baten arteko erlazio gisa baizik. Posizio edo rol aktiboan dagoenaren integritate maskulinoa indartuz.

Bitxiena da, mekanismo homofobo honek erakusten duela edozein gorputzak penetratua izateko duen aukerak, hain zuzen, sexualitateak eta identitateak ere antolatzen dituela. Eta zoritxarrez, errealitate heterosexual zein homosexualetan oso presente dagoen zerbait da.

Beste gai bati helduz, gure herrian homofobia estigmatizatzaile komun gisa instrumentalizatu duten beste fenomeno baztertzaille batzuk ere izan ditugu. Adibidez, xenofobia.

Ibilbide historikoan ikusi dugunez, garai frankistan *pupilajea* edo apopilotza existitu zen gure herrian. Arrazoi sozioekonomikoengatik, espainiar estatuko hainbat tokitatik zetozen migratzaileak. Batik bat, lanbide bat gartzera etortzen ziren hurak.

Tira, bada, kasu honetan, homofobiak xenofobiaren indartzaile gisa balio zuen. Gizon migratzaile hauen ustezko homosexualitateari eta promiskuitate sexualari buruzko zurrumurruak hedatuz, eta ondorioz, hauen existentzia estigmatizatuz.

Miren Clementek gogorarazi digunez: “Kalean entzuten zenuen apopiloek harreman intimoak zituztela... ‘Jo-



der, fulano, sí, menudo...'. Iruzkin lizunak batez ere".

Baina xenofobia eta promiskuitatearen ideia ez dira homofobiarekin gurutzatu diren elementu baztertzaille bakarrik. Ondo baitakigu 80. hamarkada gogorra izan zela drogen kontsumoari eta HIESaren krisiari dagokienez. Eta testuinguru horrek, hala edo hala, sexu-orientazioagatiko diskriminazioa klase-diskriminazioarekin lotu zuen.

Ixiar Pagoagak gogora ekarri digunez: "Hernanin fuer-te jo zuen HIESak, heroinarekin lotutako talde handi ba-tek sufritu izan zuelako. Eta hasieran, gaitz hau, bakarrik homosexualekin eta drogazaleekin lotzen zen, bai". Eta Intxauspek gaineratzen digu: "gogoratzen dut garai har-tan homosexualitatea asko lotzen zela HIESarekin".

Lehen begiratuan, pentsa genezake horrelako egoera eta testuinguru batean, klaseak eta sexu-orientazioak harre-man gutxi dutela elkarren artean. Baina, bai, gazte asko-ren etsipenak berak, heroina noraeza ekonomiko eta sozio-politikoaren, langabeziaren eta aurreko belaunaldiaren eskema moralaren porrotaren lasaigarri bihurtzea ekarri zuen. Eta era berean, substantzia hau ere, momentu hartan ezartzen ari zen estatus politiko berriaren aurka zegoen gazteria errebeldea desmobilizatzeke gako garrantzitsue-netariko bat izan zen. Non, zalantzarik gabe, estatu-estra-tegia errepresiboaren logikapean, gazteria, jomuga argia zen. Hortik, drogaren izaera kontrainsurgente nabarmena.



Horrek, jakina, moral sozialaren izaera paternalista eta estigmatizatzailea piztu zuen. Moral sozial bat, zeinak, ustez ordena soziala desegonkortzen ari ziren gazte langabetu eta desmobilizatuak zigortzeko modu bat ikusi zuen HIESan. Bai eta rol desegonkortzaile bera zuten homosexual sodomitentzako zigorra ere. Hain zuzen, une hartako moral sozial eta sexualaren arabera, enplegu edo lan-indarraren bidez produktiboak ez izateagatik edota harreman heterosexualen bidez erreproduktiboak ez izateagatik HIESak zigortutako jendea, gehienbat gizonak.

Pentsamendu heteropatriarkal eta kapitalistatik eratorritako estigmatizazioa. Edo argiki esanda, homofobia eta klasismoaren ertz anitzetatik sortutakoa.

Eta hori guztia gertatu zen, jakinda ere, heroinaren kontsumoak eta HIESaren gaixotasunak klase, genero, jatorri eta sexu-orientazio guztietako bestelako herritarrei ere eragiten ziela; nahiz eta inpaktu gutxiagoan.

Eta, hain justu ere, HIESaren estigmatizaziotik eratorritako beste diskriminazio mota bat da Atxurrek ordutik bizi izan duena; serofobia. Alegia, seropositiboa izateagatik jasandako indarkeria. "Garai horretan, zegoen informazioa oso negatiboa zen; *'SIDA = heriotza', 'sidoso de mierda',...* Sozialki gaizki ikusitako gaitz bat izan zen, oso gaizki ikusia garai hartan. Eta nik momentu batean hala ikusten nuen ere".

Estigmatizazioa eta informazio eza direla medio, Atxu-



rrek, gertakari asko bizi izan ditu: “Jendeak ni ukatzen ninduen [...] Eta heriotzari dagokionez, jendeak beldur asko zuen, batez ere, muxu bat emateagatik kontagiatuko ote nituen... Nola inongo informaziorik ez zegoenez, jendeak distantzia hartzen zuen”.

Eta gaineratzen du: “Aurpegian *sarkoma* atera zitzaidanean, jendeak zioen ‘nola egon daiteke hau tabernan lan egiten aurpegi horrekin?’...”.

Hau da, serofobiak isolamendua dakar, eta isolamenduak aldiz, muturreko egoera gehiago. Atxurrek dioskunez, “bakartze horrek ere heriotzera eramaten zintuen, noski. Bai, *‘que tu eres el malo y los demas no’* bezala. Bakar-bakarrik geldituz...».

Serofobia alde batera utziz, eta gayfobiaren aurpegi anitzez ari garela, Atxurren esanetan, Hernanin modu askoz zitalagoetan ageri izan da gizon homosexualekiko gaitzespena. Esaterako, hauei pedofilia eta pederastia leporatuz.

Zehazki, P.B. irakaslearen kasua kontatzen digu; adingabe bati abusuak egitea leporatu ziotena, eta kartzelatik pasa ondoren, absolbitu zutena.

“Haren bila joan ziren. Gainera, haurraren amak herriko denda batean komentario bat egin zuela jakin izan nuen: *‘¿A quién le van a creer antes? ¿A una madre de familia o a un maricón de mierda?’*. Nik komentario hori zuzenean entzun izan banio epaitegi batean salatuko nuke eta ama



horri esan `etorri epailletza baten aurrean horixe bera esatera!'. Hau da, zalantzarik gabe, homofobiagatiko zigorra ezarriko nioke”.

Zentzu horretan, kasu zehatz hau askoz konplexuagoa izan arren, eta akusazioaren kutsu homofoboa oso argi geratu ez arren, historikoki, pederastia errealitate homosexualak estigmatizatzeke elementu bat gehiago izan da. Esaterako, horren adierazle argia da, euskarazko *maritxu* iraina, frantsesez, *pédé* esaten dela; *pédéraste* (pederasta) hitzaren laburdura.

Asko dira beraz, ikusi dugunez, homofobiaren zein gayfobiaren aurpegiak gure herrian. Eta honek, azken 50 urteetan garapena izan badu ere, presente jarraitzen du oso modu sinbolikoan.

▼ BIFOBIA

Bifobia terminoa azpimarratzea ere oso garrantzitsua da bisexualen egoera berezia nabarmentzeko. Historikoki heterosexualek zein homosexualek estigmatizatutako errealitateak izan baitira.

Eta, justuki, estigmatizazio hori, gure sexualitatea arautzen duen marko monosexistatik dator. Hau da, binaris-



mo sexualaren ondorioz, gure burua heterosexualtzat edo homosexualtzat identifikatzera bideratzen gaituen markoa.

Testuinguru bat zeinak, gehienbat eta nagusiki, gure burua heterosexual gisa identifikatzeko presionatzen gaituen, gure errealitate sexu-generiko bereko pertsonetikiko edozein desio sistematikoki baztertuz. Baina, aldi berean, eta kontraposizioan, gure burua homosexualtzat jotzeko aukera ere eskaintzen digun, nahiz eta aukera hau baztertzaila izan.

Bisexualitatearekin lotzen diren gai gehienak gizartean nahiko hedatuta dauden estereotipoak edo aurreiritziak dira. Gizarte-egitura guztietan errepikatzen diren bifobian oinarritutako aurreiritziak; eskoletatik hasita koadrilletaraino eta osasun zentroetatik igaroz, gure egunerokoan esamolde askoren bidez agertzen diren horiek. Adibidez, ondorengo galdera ohiko hau: ‘mutilak ala neskak gustuko dituzu?’.

Gay eta lesbianekin ez bezala, pertsona bisexualetan pentsatzen denean, ez dira kolektibo honek izan ditzakeen eskubide edo arazoak ere aipatzen. Eta horrek argi uzten du, pertsona bisexualek, diskriminazioa jasaten duen kolektibo gisa, presentzia txikia dutela.

Gainera, gure kulturak nekez irudikatzen ditu bisexualak pertsona heldu gisa. Funtsean, bisexualitatea gazteekin lotzen delako, baita festarekin edo promiskuitate sexualarekin ere.



Izan ere, nahiko hedatua dago bisexualitatea esperimentatzeko modu bat dela dioen diskurtsoa. Benetan zer gustatzen zaigun jakin ahal izateko baliatzen dugun prozesua balitz bezala. Eta ondorioz, hau, heterosexualitatea edo homosexualitatea hautatzeko aukera ematen duen garai puntual eta iragankor gisa ulertuz.

Egia da azken hamarkadotan gora egin duela esperimentazioaren ideia defendatzen duten pertsonen kopuruak, bai eta edozein errealitate sexu-generikoekin harreman afektiboak eta erotikoak edukitzeko prestutasuna argiago adierazten dutenen kopuruak ere. Gainera, politikoki zuzena eta liberala den diskurtsotik bada ere, gero eta jende gehiagok defendatzen du, denok bisexualak garela jaiotzez. Baina, kontzientzia kolektiboan aldaketa horiek guztiak egon arren, gizartearen gehiengoak bere sexualitatea logika monosexualaren barruan garatzen jarraitzen du.

Alegia, gehienentzat, sozialki ikasitakoa gainditzeko eta emakumeak edo gizonak gustuko dituzten egiaztatze modu bat da bisexualitatea. Ez aukera bat berez, baizik eta gay edo lesbiana gisa edo heterosexual gisa definitu arteko igarotze-aldi bat.

Erickek, mutil transa eta bisexuala den heinean, ondo gogoratzen du bere trantsizio-prozesuan beste mutil trans batzuk gomendatu ziotela ospitalean ez esatea bisexuala zela. "Niri, Gurutzetako Ospitalera testosterona hartzera



joan aurretik, heterosexuala nintzela esatea gomendatu zidaten inolako trabarik jar ez zezaten". Eta gaineratzen du: "lagun batek, adibidez, ospitalean polimaitasuna praktikatzen zuela eta beste trans batekin zegoela esan zuen, eta nortasun nahasmendua diagnostikatu zioten".

Bifobian oinarritutako beste aurreiritzi bat ere bada pertsona bisexualak pertsona nahasiak direla sinestea. Eta askotan, *bizitzan galdua daude, ez dakite zer gustatzen zaien, zerbait falta zaie edo jendea asko erotzen eta gogaitzen dute* bezalako esamoldeak entzun ditzakegu.

Eta, jakina, bifobiaren beste adibide bat, bisexualitatea etengabe hipersexualizazioarekin, promiskuitatearekin eta bizioarekin lotzea da, harreman hauen alderdi afektiboak alboratuz. Eta pentsatuz, pertsona bisexualak, etengabe, hirukote edo orgietan parte hartzen dutela. Horregatik, askotan, *lorenz lore dabiltza edo berdin zaie norekin egon, edozeinekin larrua jotzen baitute* bezalako esamoldeak ere entzuten ditugu.

Bestetik, moda kontua dela ere oso zabalduta dago. Eta sarritan, pertsona batek bere burua bisexualtzat agertzen duenean, horren egiazkotasuna zalantzan jartzen da, homosexualitatea bera baino askosaz gehiago. Arreta erakartzeko, hobeto integratzeko edo modernitatea eta pentsamolde irekia agertzeko egiten dutela argudiatuz.

Eta azkenik, sekulako bifobia ezkututzen duen aurreiritzi oso ezagun bat. Bisexualitatea estalki bat edo alter-



natiba bat dela norbere desio homosexuala ez onartzeko. Azken batean, trikimailu bat armairutik irten beharrik ez izateko.

Luis Intxauspek honako gertaera hau du gogoan: “gogorutzen dut, gaztetan, San Joanetan, lagun lesbiana batekin eta beste lagun homosexual batekin gaiaz hitz egiten nengoela, eta beraiek esaten zutela bisexualitatea armairutik atera aurreko trantsizio bat zela. Eta komentario hori nire familiak ‘nola izan daiteke homosexuala?’ egiten zuen komentarioa bezala sentitu izan nuen. Bada, honekin sentsazio berdina izan nuen. Eta oso gogorra egiten zitzaidan lesbiana eta gay batzuen partetik bisexualitatea ez zela existitzen edo trantsizio bat zela entzutea”.

Ematen duenez, askoz gutxiago onartzen da bisexualitatea, homosexualitatea eta lesbianismoa baino. Agian etengabeko transgresioa adierazten duelako, aldakorra delako edota desira edozein generotara zuzentzen duelako. Horrela, sexu-orientazioa mutur batean edo bestean mantentzearen logika heterosexista, monosexista eta binarista hautsiz.

Argi dagoena da uste duguna baino askoz errealitate presenteagoa dela bisexualitatea, baina zoritxarrez, ikusezintasun eta isilarazte oso espezifikoak jasaten du.



▼ TRANSFOBIA

Pertsona transgeneroek, transexualek, ez bitarrek edota androginoek jasandako indarkeria ikusaraztea ere oso beharrezkoa dugu; eta horrek *transfobia* terminora garamatza.

Errealitate hauek, gizarteak (eta instituzio zientifiko-medikuek) esleitzen dien generoaz bestelako genero batekin identifikatzen diren pertsonak dira: transexualak, transgeneroak, androginoak, genero ez bitarra duten pertsonak...Hartara, termino generiko gisa *trans* zabaltzen hasi da, pertsonen genero-esperientzia, genero-adierazpen edota genero-identitate forma desberdinei erreferentzia egiteko balio duena.

Ezinbestekoa da trans kolektiboaren barruko berezitasun guztiak ezagutzea, gure kultura bitarrean errealitate horiek guztiek nahasmena sortzen baitute. Azken hamarkadotan, adibidez, errealitate transgeneroak eta transexualak errealitate trabestiekin nahastu izan dira etengabe. Baina azken hauek ez dute zerikusirik genero-identitatearen aferarekin, genero-adierazpenen transgresioarekin eta esperimentazioarekin baizik. Eta nahaste hori nahita probestuz, trabestismoa transfobiaren arma



errepikakor gisa erabili ohi da errealitate transgenero eta transexualak gutxiesteko. *Transak mozorrotutako gizonak eta emakumeak dira* bezalako esamoldeak behin eta berriz errepikatuz.

Transfobia, funtsean, menderatze-sistema heteropatriarkala betikotzeko beste moduetako bat baita, genero-identitatea *naturalki emanda* eta *aldaezi*n izateagatik errespetatu behar den ideian oinarriturikoa. Nolabait, rol horietatik irten nahi duenak bere burua besteen aurrean justifikatzera eta hauen iragazkia pasatzera bideratutakoa.

Eta, transfobia, gainerako LGB diskriminazioekin eta indarkeriekin ikusi dugun bezala, genero-rol eta genero-identitateen mantentzean oinarrituriko pribilegioak dituzten pertsona zis eta heterosexuaren existentzian oinarritzen da. Beraz, transfobia modu guztien oinarrian zisexismoa kokatu beharko genuke.

Izan ere, trans pertsonen existentziak berak logika zissexuala deseraikitzen du. Hauek, gizonentzat eta emakumeentzat bereizitako sozializazio-arauak gainditzen dituztelako; ondorioz, maskulinoa eta femeninoa definitzen duten rol zurrunik hautsiz eta ustezko gizon/emakume binomio biologikoa ezbaian jarritz. Azken batean, generoa bera tenkatuz.

Eric Androginoren egunerokoa, esaterako, generoaren tenkatzean oinarritzen da: "Niri femenino janztea gusta-



tzen zait, eta adibidez, uda bada, arropa gardena janzten dut, mutila naizela ikus dezaten. [...] Hala ere, nik ez dut jantzi nahi ez emakume ez gizon gisa. Nire erara jantzi nahi dut. Izan ere, nire janzteko forma, sozialki, ez da ez emakume baten tankerakoa, ez gizon baten tankerakoa. Zeren ezein emakume ez gizon ez baita nik bezala janzten... “.

Argi eta garbi, gizarteak harriduraz eta ulertezintasunez ikusten ditu errealitate transak, hauek nolabait, biologia desohoratzen duten pertsona deserosoak balira bezala irakurriz.

Amaiak ondo gogoratzen du Josebe Iturrioz ETB-n kolaboratzaile gisa agertzen hasi zenean, Medeak talde transfeminista oso aktibo zegoela herrian. Eta talde honen kideek zabaldutako trans diskurtsoaren aurrean, herriko jendearen erantzuna deserosotasunetik abiatzen zela gehienbat: “Hernanin, Medeak zegoen eta hauek trans errealitateen inguruan diskurtso bat sortu zuten. Eta gure inguruko jendeak esaten zuen *‘pero a estas ¿qué ostias les gusta?, Estas ¿qué onda?, ¿es que no se definen!, ¿es que nos vuelven locos!, ¿Qué son?, ¿Tias?, ¿Tios?, ¿Les gustan los rabos?, ¿Les gustan las tetas?’*. Emakume lesbianongan ez zuen eragin askorik eduki, baino jendearengan inpaktatu asko, bai”.

Hau ikusita argi dago, nahiz eta herrian trans aktibistak egon, jendeak orokorrean ez duela gertuko erreferenterik,



eta horrek trans errealitateei buruzko ikuspegi desitxuratu eta partziala areagotzen duela. Eta erreferenteak egotekotan, horiek, gehienbat, estereotipoetan oinarrituriko telebistako edo fikziozko pertsonaiak dira.

Hala ere, kontzeptu batzuk argiago dituzten eta ohiko ideia okerrak eta transfoboak zuzentzen saiatzen ari diren gero eta herritar gehiago daude. Baina, tamalez, jende askok, transak beren identitatearekin bat ez datorren gorputz batean jaiotzen diren pertsonak direla eta sexua aldatzeko beharra *sentitzen* dutela pentsatzen jarraitzen du. Hau da, ustezko *gorputz oker* batean bizi direla gogoeztatuz. Eta, zoritxarrez, hau ohikoena da, gaiari buruzko gogoeta eta pedagogia asko falta delako.

Hein handi batean, transfobia, medikuntzaren baitako erakunde zientifikoen patologizazioaren eskutik joan da historikoki, trans pertsonen buru-gaixotasuna edo gaixotasun psikiatrikoa dutela argudiatuz. Izan ere, patologizazioa transfobiaren zutabe nagusietako bat izan da, eta ondorioz, gizartearen egitura sinbolikoek eta estrukturalak, argudio hau bereganatu dute, trans pertsonen bizitzetan eragin handia izanik.

Hain zuzen ere, medikuntzaren diskurtso patologizataile horrek maiz defendatzen du pertsona transexual guztiek *genero-disforia* edo *genero-identitatearen nahasmen-dua* dutela. Baina genero-disforia ez da transexualitatea definitzeko modu egoki bat, inola ere ez.



Transexualitatea jaiotzean esleitutako sexua eta genero-identitate propioaren arteko bat-etortze ezaren ondorio zuzena da. Disforia, aldiz, trans pertsona batzuk (ez guztiek) beren gorputzekiko senti dezaketen ondoeza sentimendua da, eta estereotipoetan edota diskurtso transformatan elikatzen diren kanpo-presioen ondorioa da. Hau da, transak ez dira disforiko jaiotzen, eta ez dute zertan disforia izan, baldin eta beren identitatearen garapen askea errespetatzen bada.

Erickek kalean genero-disforiari buruz entzuten denaz zera aipatzen digu: “batzuetan `ez baduzu disforia, ez zara trans’ entzun izan dut. Esaterako, mutil trans batek ez badu mastektomia egin nahi, jasotzen duen mezua da ez dela trans. Edo, imajinatu, nire bularra maite dudala eta erakusten dudala. Bada, askok ez dute hau onartzen. Eta hau, tamalez, diskurtso orokortuaren ondorioz, gaur egungo trans gazte askoren artean dagoen iritzia ere bada”.

Baina gizartearen begietara, eta biologiaren izenean ezartzen denez, emakume batek ezaugarri fisiko jakin batzuk izan behar ditu, eta gizon batek beste batzuk. Ezau-garri fisiko horiek betetzen ez dituzten pertsonak gaixo, arraro edo, nolabait, aberrazio gisa sentiaraziz. Hau, disforiaren beraren pizgarri argia izanik.

Eta gorputzarekiko ondoez hori, trans pertsona batzuk trantsizio-prozesua hastera eramaten dituen arrazoieta-



ko bat da. Prozedura mediku bat zeinetan hormonazioa, ebakuntza kirurgikoa edota bestelako tratamenduak egin daitezkeen. Hau da, konplexua bezain gogorra izan daitekeen prozesua.

Prozesu hauek 90. hamarkadan nola gauzatzen ziren ongi gogoratzen ditu Amaiak: “Lehen, estatu mailan, Zaragozan egiten zen batez ere. Nik bi pertsona ezagutzen ditut eta hauek prozesuaren gogortasunagatik burutik jota bukatu zuten”.

Alabaina, garrantzitsua da nabarmentzea trans guztiek ez dutela beren ezaugarri fisikoekiko ondoeza, eta, beraz, jakina, asko direla ere beren gorputzarekin eta beren ezaugarri anatomikoekin gustura daudenak, eta ez dituztenak horrelako prozesu medikalizatuak abiatzen.

Dena den, osasun-sistemaren baitan horrelako prozesu bat hastea erabakitzen dutenak, ez dira beti behar bezala artatuak izaten, eta horrek, ezinbestean, oinarritzko eskubide bat ukatzea dakar. Askotan, osasun-langileak (eta osasun sistema bera) ez baitaude behar bezala prestatuta ezta trebatuak ere arreta egokia emateko, ez baitakite zer berezitasun dituzten trans pertsonak.

Eta, preseski, gizarte gisa hainbat erakunde publikori (osasun-zentroak, erregistro zibila...) ematen diegun zilegitasuna dela eta, erakunde horiek trans pertsonen oinarritzko eskubideei oniritzirik ematen ez dietenean edota zuzenean uko egiten dietenean, nahiko ohikoa da gizar-



tea bera joko berean erortzea. Esaterako, gizarteak trans pertsonen beren burua identifikatzeko erabilitako izendapena ez onartzea eta ezeztatzea, legeak edota burokraziak *baimena* eman arte.

Bestetik, eta transfobiaren egiturazko izaera horri tiraka, oso ohikoa da ere trans pertsonen bizi duten enplegu-diskriminazioa. Lanpostuarekin bat ez datozenaren ideia oso zabalduta baitago, eta ondorioz, oso zaila egiten zaie enplegua lortzea. Ez bakarrik bezeroen arretarekin loturiko hirugarren sektoreko enpleguetan, denetan baik.

Horregatik, trans pertsona asko, titulazio akademikoa eta kualifikazio egokia eduki arren, lanpostu bat lortzeko eskubidea ukatzen dietenean, bazterreko lanak egitera behartuta daude, ondorioz, gizarteak berak trans pertsonen buruz dituen aurreiritziak indartuz.

Bestalde, enpleguan etengabeko egiturazko-horma batekin topatzea gutxi balitz, etxebizitzaren esparruan ere diskriminazioa bizitzea oso ohikoa da; asko baitira etxe bat alokatzeko zailtasuna duten transak.

Zuzeneko indarkeriari dagokionez, oro har, trans pertsonak indarkeria eta biktimizazio-tasa altuagoen eraginean daude, hau da, trans pertsona bat kalean edo beste edozein lekutan erasotua izateko aukera altuagoa da.

Ondorioz, indarkeria horien aurrean, trans pertsonen erne eta beldurrez bizi behar dute. Bai indarkeria ikus-



garrienengatik, bai indarkeria sotilenengatik; esaterako, jasan ditzaketen gaitzespen-begiradak edota beren gorputz-itxurari buruzko txutxu-mutxuak. Eta, erne egote horrek, nahitaez, tentsio-egoera etengabea eragiten du trans errealtateetan.

Zentzu honetan, Eric Androgenok kontatzen digu zein zaila eta konplexua den estigmatizazio sozialaren ondoriozko tentsio horren kudeaketa: “Bati min handiagoa eman diezaioke, eta beste bati gutxiago. Batek jasan dezake eta beste batek ez. Bati depresioa eragin diezaioke eta beste bati ez. Eta batek bere buruaz beste egin dezake eta beste batek ez. Baina zoritxarrez hau guztia gertatzen da”. Eta gaineratzen du: “Hau da, batzuk ezin dute ikusgaitasunak bueltan dakarrena jasan eta ezin diote horri eutsi”. Gure herrian Moiren gertakariak erakutsi digunez, tentsio-egoera iraunkor batek, etengabeko desinformazio eta indarkeriarekin batera, maiz eragin dezake suizidioa edo honen saiakera.

Eta hori gutxi balitz, zoritxarrez, trans pertsonen suizidioen kopuru erreala erregistratutakoak baino askoz ere handiagoa dela kalkulatzen da. Trans errealtate eta identitateen inguruan dagoen ezjakintasuna dela medio, askotan ez baitira heriotzak behar bezala identifikatzen edo katalogatzen. Eta hau, zalantzarik gabe, trans errealtateek jasaten duten isolamenduaren, ulertezintasunaren, ikusezintasunaren eta ahanzturaren beste adierazleetako bat da.



Horregatik da hain beharrezkoa eta garrantzitsua generoaren aukera askearen gaineko gaietan aurrera egitea, gure indar guztiak pertsonen sozializazio ez bitarraren alde jarritz.



ARMAIRUA ETA LGBTfobia BARNERATUA

LGBTfobia barneratua, sexu eta genero disidenteeek norbere buruari eragindako indarkeria sinbolikoa da, beren identitateak, nahiak edo praktikak ukatuz, hauek ezkutatuz edota heteroarauari leial izatearen plantak eginenez, besteak beste.

Kontraesankorra dirudi, baina, gizarte batean non sexualitatearen idealak heterosexualitatearen nagusitasun sinboliko eta kulturalean oinarrituta eraikitzen diren, biziki zaila izan daiteke heteroaurora ez egokitzearen ondoriozko barne-gatazkak saihestea eta norbere buruarekiko areriotasuna ekiditea. Jakinik gainera, gaur gaurkoz, sexu eta genero disidenteak, aniztasunarekiko etsaitasun argia garatzen duen ingurune eta kultura batean bizi direla.

Horrenbestez, logikoa da irainen naturalizatzek, mespretxuzko adierazpenek, jarrera moralek edota errukiak berak, LGBT pertsonen direnaren aurka borrokatzera animatzea, ondorioz hauei errua, antsietatea, frustrazioa, lo-



tsa edo depresioa eraginez.

Baina LGBTfobia barneratu hau estuki dihoa lotuta *armairua* deritzogun fenomenoarekin, zeina LGBT pertsonen nortasunaren edo interesen errepresioari eta ezkutatari erreferentzia egiten dion metafora bat den. Espazio sinboliko bat non, heteroarauaren mesedetan, estigmatizatutako LGBT identitateak, desirak eta praktikak hesitu, kontrolatu eta ezkutatu egiten diren. Horregatik, *armairuan egotea* esamoldeak norberaren identitatea, jokabidea edota sexu-orientazioa isilpean gorde behar dela esan nahi du; honek dakarren ikusezintasunarekin. Aitzitik, *armairutik atera* esamoldea norbera den bezalakoa ikusaraztearen sinonimoa litzateke.

Eta, hain justu ere, gure protagonistei armairuari buruzko beren pertzepzioa eta bizipena galdetu diegunean, hauek, armairuak denei eragin izan diela nabarmendu dute, nahiz eta bakoitzak bere modura bizi izan.

Aitor Huizik, esaterako, armairuaren barruko nolakotasuna minari lotuz azaltzen digu: “Armairua gauza oso estu bat da eta kanpotik ez da ikusten baina, ateen barrutik arantzak dauzkate. Eta barruan, armairuko ateen kontra eusten zauden bitartean, mina ematen dizu”.

Xabier Ormazabalek, aldiz, armairua “kanpotik” eragindako minaz salbu egoteko espaziotzat hartzen du: “Niretzat armairua mekanismo bat da, kanpoaldea eta barrualdea desberdintzen dituen. Hau da, zure burua



babesteko modu bat, kanpotik jaso dezakezun minetik babesten zaituena”.

Erickek, berriz, armairuaren izaera aldebikoaren eta kontraesankorraren definizio argigarria ematen digu: “Armairua leku itxi bat bezalakoa da, segurua dena baina aldi berean ez. Barruan zaudenean, beldurra duzunez eta hortik ateratzea erreza ez denez, seguru sentitzen zara. Baina aldi berean, ez zara zaren bezalakoa adierazten ari”. Eta bere bizipenean sakonduz, honako hau gaineratzen digu: “nirea `ateratze´ bikoitza izan zen gainera, bata bestearen atzetik! Aurrenekoa transexual gisa, eta ondorengoa bisexual gisa”.

Ericken bizipenetik ondoriozta genezake, armairutik irtetearen eragina biderkatu egiten dela, desioaren orientazioaz gain, genero-identitateagatik ere irten behar duzunean.

Luis Intxauspek, ordea, askatasun prozesu batekin lotzen du armairua: “nik armairua bai lotu izan dudala askatasunarekin. Alegia, zure burua aske bihurtzeko prozesuarekin”. Eta gehitzen du: “ez da barruan bizi duzun zerbait, baizik eta kanpotik datorren baldintzapen bat; eta honetan, familiak eta kuadrillak, instituzio sozial esanguratsuak diren heinean, pisu asko dutela uste dut.”

Beraz, Intxauspek dioskun bezala, argi dago lagunak, kuadrilla edo eskola eragile indartsuak direla armairuari loturiko bizipenetan.



Eric Androginok, desiraren orientazioaz eta genero-identitateaz harago doa eta, genero-adierazpenari edo *luma-ri* helduz, ondorengo galdera planteatzen digu: “Armairua zure sexualitatea erreprimitzea bada, armairu gisa ulertuko genuke ezkutatzea gizon femeninoa edo emakume maskulinoa zarela? Bai, hori ere bai. Zure janzteko edota adierazteko moduak ere armairuan sar zaitzake”.

Miruk, bestetik, armairuaren betikotasuna aipatzen digu, hau zerbait gaindiezina edo bukaezina balitz bezala: “Niretzat armairua errepresio hutsa da, bai. Gainera, armairutik atera bazara ere, iruditzen zait armairuaren zati bat beti dagoela presente. Hau da, zein momentutan ateratzen zara guztiz armairutik?”.

Azkenik, Lore Lujanbiok, armairuaren inguruko gogoeta sakon eta interesgarri bat elkarbanatzen du gurekin: “Niretzat, armairua, araua betetzearen itxura erakutsi beharra da, baina, askotan *itxura* eta *izatea* ez dira bereizten, eta edozein kasutan, beti erlazionatuak daude. Zentzu horretan, askotan armairutik ateratzea aurreko ariketa autoerreflexibo batekin lotu ohi da. Hau da, ‘noiz jakin zenuen?’ bat aipatzen da aurretik. Hori guztiz lotua dago gure identitate sexuala ulertzeko eta praktikatzeko moduarekin. Gure nia erregulatzen duten arau guztien artean sexualitatearekin lotuta *egia esateko* araua indarrez agertzen delako, eta beraz, egia aurkitzekoa, gure ba-



rruan egi koherente bat edukiko bagenu bezala. Baina desira sexuala ez da bere horretan koherentea, aldakorra eta poliedrikoa baizik, beste dimentsio askorekin erlazioan aurkitzen baita”.

Ikusi dugun bezala, *armairuan egotea* diskretuki edo pribatutasunarekin bizitzea baino askosaz gehiago da, bizitzako arlo garrantzitsuenetan (familia, lagunak, enplegua...) aldaketak eragiten dituen ezkutuko eredia da. Alegia, nor zaren ezagutzea eta onartzea ahalbidetzen ez duen traba sinbolikoa.

Zentzu honetan, Ormazabalek ondo baino hobeto deskribatzen digu hau: “Nik ez nuen nire burua onartzen... Izan ere, ez nion nire buruari mutilak gustuko nituenik esaten. Eta ez nintzen irekitzen ere, blokeo bat bezala bizi nuen. ‘Hori ez dago ondo’ ideiarekin loturiko sentimendu bat bezala bizi nuen”.

Armairuaren boterea hain da handia, ezen pertsona batzuk beren sexualitatearen inguruan zuzenean galdetzen zaienean heterosexualak direla ziurtatzen dutela edo haien bizimoduari buruzko kontakizuna guztiz aldatzen dutela. Honen harira, Intxauspek eta Pílonen luze hitz egin digute LGBTfobia barneratuaren eta armairuaren bizipen honi buruz.

Intxausperen esanetan: “Indarkeria fisikoak ezagutu ditugu, baina asko ezagutu dugu ere armairutik ez ateratzearekin lotzen dudana indarkeria sotila... Nik pertsona



asko ezagutzen baititut ez dutenak bere bizitza onartzen, eta hori ere indarkeria da. Nire inguruan izan ditut, eta egun ere baditut, pertsona batzuk berea ez den bizimodu bat aurrera eramaten dutenak. Bizimodu bat zeina jendarte honetan ondo ikusia dagoen, eta seguraski, sozialki zerbait aportatuko dien. Hori ere, zalantzarik gabe, indarkeria da! Eta egun existitzen da, jakina! Ez baitira beren buruarekin zintzoak!”.

Pilonek bestetik, honakoa aipatzen digu: “nik sentsazioa daukat, oraindik ere, badagoela armairuan bizi denaren sentsazioa ez duen jende bat, eta esaten duena ‘baina, nik ez dut eta ezkutatzen!’”. Eta gero agian bere izebak ez daki, edo bere lanean ez dakite. Hori oraindik ere asko gertatzen da. Edo beste jende asko oraindik ez dakiena *mari* edo lesbiana dela edota ez dutela esaten. Nire garaian, militatzen nuenean, adibidez, manifestazioetara telebista etortzen zenean, jende pila ateratzen zen manifestatik, baita kolektibokoak ere. Gogoratu behar dugu, besteak beste, lanik gabe gera zintezkeela”.

Armairua, beraz, heteroarautik eratorritako indar sinboliko bat da, izaera zentrifugoa eta, aldi berean, zentripetua duena. Zentrifugoa, kontzeptuak berak dioen bezala, (hetero)zentrutik edo erdigunetik kanporatzea, irtetea edo ihes egitea eragiten duelako; honek arautzen duena ez betetzeagatik edo honek sortzen duen indarkeriatik zure burua babestu nahi izateagatik. Eta zentripetua, or-



dea, armairuan egote hutsak eta baztertutako errealitatea izateak (hetero)zentruarenganako edo erdigunearenganako erakarpena eta indarra eragiten duelako.

Amaitzeko, badugu armairua eta LGBTfobia lotzen dituen beste indarkeriazko egoera edo azpikeria bat. Hau da, kalte egiteko eta mina eragiteko helburua duen edozeinek LGBT pertsona bat armairutik ateratzeko egiten duen ekintza. Eta, armairutik ateratzeak borondatezkoa izan behar badu ere, pertsona hauek LGBT pertsona bati buruzko susmoa edo informazioa lau haizetara baimenik gabe partekatzen dute.

Hau Pilonek bere haragitan bizi izan zuen: “Ni ahizpa zaharrari lesbiana nintzela esatera joan aurretik, beste jende askok aurretik esana zion ahizpari ni lesbiana nintzela. Eta harengana joan ziren horiek ez ziren *de buen rollito* joan”.

Atxurrek ere horrelako zerbait bizi izan zuen: “33 urte nituenean, Atxur Tabernako obretan ari ginela, norbaitek aitari esan omen zion ni homosexuala nintzela, eta tabernan homosexualentzako salduko zela. Goiz batean nire ama etorri zen eta galdetu zidan: ‘Egia al da aitari esan diotena? Zu homosexuala zarela eta marikoientzat saltzera zoazela?’.

Nire erantzuna argia izan zen: ‘Bai, ni homosexuala naiz. Eta? Zer nahiago duzu, egia esatea ala gezurretan ibiltzea? Ama, zuk badakizu ez dudala inoiz andregai-



rik izan eta beti mutilekin ibili izan naizela'. Eta jarraitu nuen, `aitari esan dion tipo horrek, nola bi potro dituen, nire aurrean esan dezala hori'. Noski, tipoak nahi zuen nire gurasoek ez uztea niri taberna irekitzen, hau da, trabak jartzea. Baina oso gaizki atera zitzaion, azkenean taberna ireki nuelako".

Bizipen gazi-gozo horiek alde batera utzita, eta zapo-re onarekin amaitzeko, Aitor Huizik eta Miruk ekarpen interesgarri bezain iraultzaileak egin dizkigute. Huizik kontatzen digunez, "gurasoen aurrean armairutik ateratzerakoan, momentuan sentitzen nuen lotsa hura alde arrazionalarekin elkartu eta pentsatu nuen `ez diezu zertan esan, zeren heterosexuala bazina ez zenieke esango neskak gustuko dituzunik...".

Azken batean, Huizik planteatzen diguna da desira heterosexuala duten pertsonen armairutik atera behar ez badute, ez duela zentzu askorik ere heteroarauaren kanpo kokatzen diren desirak aitortu behar izateak.

Miruk, bestalde, *armairutik ateratzea* esamoldearekin hautsiz, honela dio: "nik esaten dut ez nintzela armairutik atera, ohe batean sartu nintzela baizik".

Tira, bada, puntu honetara iritsita, dagoeneko gure herriaren kontzientziazioa nolakoa den eta heteroarautik eratorritako indarkeria nola garatzen den ikusi dugu. Bai eta LGBTfobia bera eremu guztietan oso modu sinbolikoan eta lausoan gauzatzen dela ere: familian, eskolan,



enpleguan, parte-hartze politikoan, komunikabideetan, kirolean, etab. Horregatik da hain zaila LGBTfobiarekin bukatzea, honen jatorriak gizartearen esparru guztietan eraginkorki daudelako errotuta.

Halere, eta jarraian ikusiko dugunez, indarkeria kolektibo horren aurrean erantzun kolektiboa ematea da biderik itxaropentsuena. Gure protagonistek, estrategia eta erresistentzia-jarrera desberdinen bidez, heteroarauari erantzuten baitiote beren egunerokotasunean. Eta estrategia horiek dira, preseski, jarraian aztertuko ditugunak.





ERRESISTENTZIA ANITZAK, IHESBIDE ANITZAK

Orain arte, heteroarauak LGBT pertsonengan eragiten dituen indarkeria desberdinei erreparatu diegu, eta indarkeria hau azaltzeko helduleku desberdinak topatu ditugu. Baina gure elkarrizketatuei ere galdetu nahi izan diegu zer nolako erresistentziak garatu dituzten, bai eta non topatu duten bizitza bizigarri egin eta bizirauteko heldulekua ere.

Ondorioz, bi erresistentzia multzo identifikatu ditugu haien kontaktetan. Batetik, eguneroko biziraupen estrategiak topatu ditugu, artikulazio kolektibotik baino, pertsonaletik egindako ekintzen multzoa. Eta bestetik, zuzenean eragintza politikoan kokatzen diren estrategiak aipatu dizkigute.



▼ BIZIRAUPEN ESTRATEGIAK

Ohiko inguruari erreparatzen dio Luis Intxauspek, emana etorri zaigun inguruari. Euskal Herrian oso zabaldua dagoen *instituzioa* da kuadrilla, bere dinamika eta arau propioak dituen: taldean diskurtso bat gailentzen da, rol desberdinak banatzen dira eta taldearen helburu nagusietakoa, partaideen aisialdi espazioa izatea da. Laguntasun harremanak batzen duen taldea da, baina talde honen oinarrian ez dago, hainbeste, hautatutako jende batekin elkartzeko hautua, belaunaldi eta inguru batek elkartutako jende multzo baten taldekatzea baizik.

Aipatu dugu diskurtso bat gailentzen dela kuadrilletan, lekuan lekuko elementuak barnebiltzen dituen; baina kuadrillek, egituraketa sozialaren isla bat gehiago diren heinean, heteroarauaren diskurtsoa dute ernamuinean, hau da, praktika eta balio heteroarautuak. Zentzu honetan, Luisek izan zuen biziraupen estrategiaren baitan kokatzen dugu berak esandakoa: “Beste aisialdi mota bat izaten hasi nintzenean, hor askatze bat izan nuen kuadrillatik”. Beste eremu batzuetan mugitzen hasi zen, beste jende batekin elkartzuz: “Institutu garaian ‘Molotov’ irratian hasi nintzenean, nire prozesua beste era batera bizitzen hasi nintzen, nire inguruan beste irekiera bat zuen jendea zegoelako”.



Xabier Ormazabalek eta Aitor Huizik, beste elementu bati erreparatzen diote biziraupen estrategiei dagokienean: lehenak “arreta ez deitzea” eta bigarrenak “disimulua” deitu dio; eta hain justu, aurreko atalean ikusi dugun armairuaren ideiarekin guztiz bat dator.

Arestian ikusi dugun moduan, heteroarauak jendarte osoa egituratzen du: gure identitateak, mundu ikuskera, aurreikuspenak, familien egituraketa, gure nahiak, desiraren orientazioa... Eta zentzu honetan, heteroarauak pertsona guztiak egitura hauetara makur arazteko dituen mekanismoak ere ikusi ditugu aurreko atalean: indarkeria zuzena, sinbolikoa eta estrukturala. Bada, indarkeria hauek ez jasotzeko biziraupen estrategien barruan kokatzen da disidentzia sexualak ez esplizitu egin eta heteroarauaren barruan kokatzen garela adierazteko egiten ditugun ekintzen multzoa: disimulua.

Honela dio Aitorrek: “Lanean, adibidez, nire lankideek haien bikotekideetaz baino gutxiago hitz egiten dut nik nire bikotekideaz. Eta hori nire buruak, eta nire parte arrazionalak, esaten didala ez dela arazorik egongo nire bikotekidea gizonezkoa izatearekin... Gainera, ez da bakarrik ez dela arazorik egongo, baizik eta esan egin behar dudala, hori guztia eraiki egin behar dudala eta nire ideiekin kontsekuente izan behar naizela eta hori guztia... Gero, errealitatea da nire ziurgabetasunak, beldurrak eta garai bateko ziurgabetasun horien aztarna horrek eragiten di-



dala". Izan ere, heteroarauak eredu nagusiaren parte ez zarela sotiltasunez behin eta berriro gogorarazten dizu: "Eta inkontzientea da. Da gauza bat, bada hori, denbora guztian kalanbreak ematen dizkizuna, eta azkenean, pixka bat ukitu eta beldurra ematen dizu".

Ormazabalek ere, ideia honen bueltan "auto-isiltasuna" aipatzen du, hau da, ez irekitze bat, nolabait heteroarauaren indarkeria jasotzetik at kokatzen duena, jakinik "indarkeria, ulertuta modu sotilean", uneoro "jasotzen duzula".

Argi dago beraz, armairua elementu hertsatzailea izateaz gain, aldi berean, biziraupenerako kokapen pertsonala ere izan daitekeela.

"Ukapenaz" mintzatu da Huizi. Ezeztapenaren biziraupen estrategia, heteroarauaren barruan ez sartzearen kostuaren kontzientzia izatetik ematen den fenomeno da. Batetik, inguruaren irakurketa bat egiten da eta jendartean ia erreferentziarik ez duten identitate eta praktikak izatearen kontzientzia hartzen da; eta ondoren, horren kostua uneoroko indarkeria dela jakinda, identitate eta praktika horien ezeztapena biziraupen estrategia bilakatzen da. Baina ezeztapenak ere, norbere buruaren lekuaren aitortza ez egitea ekar lezake. Eta zentzu hone-tan, Xabierrek "besteen konfliktoak zentruan" jarri iza-naz hitz egin digu, bere baitan sumatzen zituen gatazkei ikusezinarena eginez.



Amaiak beste bide bat hartu du heteroarauari aurre egiteko biziraupen estrategien artean. Herrian ematen diren txutxu-mutxu zein bestelako uneoroko epaien zein zalan-tza jartzeen edo ukatzeen aurrean, honakoa kokatzen du: “lesbiana izateak ez du trabarik baldin eta ‘xira’ moduko bat ‘janzten’ baduzu”. Hau da, eremu sozialean gailentzen den diskurtso heteroarautuetatik ematen diren zigortze-zuzenketa ariketen aurrean, kapa edo estaldura iragazgaitz bat jarri eta gure bizitzekin jarraitzeko ariketa egiten baduzu, bizitzeko espazio bat topa dezakezula-ren ideia helarazi digu.

Sexilioaren ideia izan da elkarrizketetan atera izan den beste gaietako bat. Sexilioa, sexu eta genero disidentea izatearen ondorioz nork bere herria utzi eta beste leku batera -ohikoena hirira- mugiaraztera behartuta izan direnek bizi duten migrazio prozesuari deitu izan zaio. Biziraupen estrategia baten baitan kokatzen da, argiki, migrazio edo erbesteratze honen oinarrian, LGBT pertsona edo disidentzia sexualentzako bizigarria den espazio afektibo, erlazional eta materialik ez dagoelako.

Lore Lujanbioren hitzetan, “uste dut badaudela mekanismo batzuk, zure herria izatearekin lotuta, gatazka eta presio sozial guztiak handiagoak egiten dituztenak. Noski, heteroarauarekin ere bai, eta zentzu horretan ez da kasuala disidente sexualok gure herriak uzteko eta hirietara jotzeko dugun joera”. Zentzu honetan, Ixiar Pagoa-



gak bere inguruko jende batek herritik ospa egin duela badakiela adierazi digu, “eta hobeto topatu direla badakit ere bai”.

Atxurrek, Hernanin sexilioa ematen den galdetuta, baietz erantzun du, “*es que* bikote bat aurkitu nahi baduzu...”. Eta ez hori bakarrik, sexilioaren arrazoiaren atzean bikotekidea bilatzekoa egoteaz gain, arrazoi laborala ere egon daitekeela aipatzen du, “zeren hemen lan kontuak, *sota, caballo, rey*. Hiri handietan aukera gehiago duzu lan egiteko”. Baina era berean, hiriak bizigarritasunetik izan dezakeen beste elementu bat aipatu du ere: herrietan ematen den txutxu-mutxuen dinamiken aurrean, “hirian aukera gehiago duzu, nahi baldin baduzu, anonimotasuna izan” zeren, txutxu-mutxuen edo jendearen ahotan egotearen dinamika hori “edo onartzen duzu, edo alde egiten duzu”.

Hernanin espazio bizigarriak ez izatearen inguruan Miruk honako iritzia du: “Ez dakit. Nik ez dut aurkitu Hernanin gune bat. Eta guneetaz ari naizenean, ez naiz ari harreman sexu – afektiboak garatzeko espazioez”. Izateko gunez ari da, bizigarria izango den bizitza bat erakitzeke espazioez. “Nik ezin dut herrian esperimentatu dezakedan gunerik topatu. Orduan, ni kanpora joan izan naiz. Bartzelonara joan nintzen urte betez. Eta ondoren, egiten dudana da Donostiako lagunekin ibili eta Euskal Herri mailan saretu”.



Aitor Huizi ere bat dator sexilioak dakarrenarekin. “Bada dago kanpora joan den nire adineko jendea espazio seguru bat topatu duena bertan, edo behintzat, herrian ez bezala, beldur ematen dioten gauzak topatu ez dituen”. Sexilioaren fenomenoaren atzean egon daitekeen dinamika bat azaleratu nahi izan du ostean. “Zergatik den hori? Bada, esaten diozu zure buruari: ‘Gu biak ezin dugu hemen egon, eta zu ez zara joango. Bada ni noa’. Ez?”.

Adibide honen atzean dagoenaz galdetu diogu jarraian. “Zergatik noan ni eta ez zu? Bada... hori da indarkeria: daudenean bi pertsona, baina oso argi dagoenean nork joan behar duen. Asimetrian dago indarkeria. Ni gela batean baldin banago eta oso argi baldin badut ni nagoela soberan, eta besteak ere argi badu ni nagoela soberan, hor botere harreman asimetrikoa dago. Botere harreman asimetrikoa egon ezean, gaizki eramaten garela izango litzake, baina biak parekoak”.

Aitorren hitzetan, heteroarauaren izaera sinbolikoak jendartea ordenatzeko duen potentzia eta indarraren ideia antzeman dugu, hau da, pertsona bakoitzak badaki heteroarauaren ordena sinboliko horretan zein leku duen, eta beraz, nor den espazioaren jabe eta nor ez. *Ghetto*-etaz zein LGBT pertsonen espazio ez mistoetaz hitz egin izan denean, mespretxutik hitz egin izan da askotan, espazio bereizitu hauek sortzen duten desberdinkeria eta *normaltasun* ezaren isla direla azalduz. Baina espazio bereizitu



hauek, preseski, bizigarriak diren espazio bakarrak dira LGBT pertsonentzat, ingurua guztiz eta uneoro heteroarautu eta heteroarautzailea den bitartean; eta beraz, maila mikro eta sotilenetik, maila makro eta zuzenekoraino indarkeriazkoa.

Eta zentzu honetan, galdetu beharko genukeena ez da, hainbeste, noiz utziko diogun sexu eta genero disidentetok espazioak sortzeari, baizik eta noiz utziko dion jendartearen espazio orok heteroarautua eta heteroarautzailea izateari, eta beraz, marko horren baitan kokatzen ez den oro kanporatzeari (zentzu literalenetik, sinboliko eta abstraktueneraino).

Miruk, azken kontzeptu bat ekarri nahi izan du gure-ra biziraupen estrategien baitan: *transilioa*. Ideia lehenengoz aditu izanagatik, apur bat zabaltzeko eskatu diogu: “hemen, bollera izateko aukera dagoen bezala, askoz ere errepresio handiagoa dago transitoan bizitzeko. Emakume zisgeneroa izanda, maskulinoa izatea ez da onartzen. Hau da, bollera edo lesbiana izatea onartzen da, ‘bale, onartzen dizugu aukera nahi duzunarekin ligatzeko’. Baina, jada, janzkera eta jarrera maskulinoak hartzen dituzunean, uneoroko *matxakea* da, uneoro komentarioa jasotzea”.

Miruk aipatzen duen zapalkuntza hori ulertu nahian, heteroarauaren izaera bitarra egon daitekeelaren susmo argia dugu. Hau da, gaur egun, desiraren orientazio ez



heterosexuala *onartutzat* ematen den garaian, eta trans pertsonak genero batetik bestera transitatu *dezaketen* garaian, heteroarauaren dispositibo sinbolikoa zabaltzen ari dela irudi lezake. Baina, orduan, arrakalak sortzen dituzten beste egoera batzuk agertzen dira, erdibidekoak, nahasiak, gris sorta, heteroarauak sortzen dituen bi subjektutasunak, gizon eta emakumea, zalantzan jartzen dituenak. Eta argi geratu da zer gertatzen den heteroarauaren dispositiboan tentsioa sorrarazten duten identitate, egoera eta praktikak agertzen direnean: zapalkuntza. Eta zapalkuntza honen atzean, ez dago generoaren polizia-soilik: “kuadrillak, edo gizarteak, edo herriak duen presioa eragiteko gaitasuna, *brutala* da”.

▼ ERRESISTENTZIA-JARRERAK ETA ESTRATEGIA POLITIKOAK:

Estrategia politikotzat jo dugu Maria Granadok esan dizkigun hitzak. Heteroaraua ez jarraitzeaz hitz egin digu. Mariaren kasuan, “pixka bat nahi duzuna egitea”-ren forma hartu du disidentzia horrek, hau da, emakume zis eta lesbiana gisa nahi izan dituen espazioak hartzearekin, inguruak bide bat markatu arren. Hartara, gogoan



du jaunartze garaian, lehengusuaren soinekoarekin joan behar izan zuela, berak, marinelez joan nahi bazuen ere. Trantze hori pasa bazuen ere, atzean bazegoen amarekin egindako tratu bat: jaunartze ostean, ilea moztu egingo zuen. “Eta orduan, jaunartzeko argazkietan ile luzearekin agertzen naiz, *en plan*, soinekoa eta ez dakit zer, eta hurrengo asteartean nik ilea moztu nuen. *O sea*, amak jaunartzea printzesaz jantzita egitera behartu ninduen, baina hortik aurrera...”.

Xabier Ormazabal, haratago doa eta heteroaraua “puskatzeko gauzak egiten” zituela aitortu du, hau da, herrian zegoen horretaz “desberdintzeko”. Eta honela jarraitzen du: “Nik 14 urterekin, beltz-urdinez tindatu nuen ilea eta nire inguruan erabiltzen ez ziren galtzak erabiltzen nintuen, zentzu batean, ikusten nuelako ingurua motz gertatzen zitzaidala. Edo ez zitzaidala gustatzen”.

Estrategia politikoa da, heteroarauan oinarritzen den jendarte honi aurre egiteko antolatzea. Erickek, “gaur egun gizarte zis eta heterosexualari aurre egiteko erresistentzia handia dagoela” aipatzen du, eta bere kasuan, elkarreetatik trans pertsonen “bidea errazagoa egiten saiatzen direla” esan digu. Bera Naizen elkartearen dago antolaturik.

Miruk ere kolektibotasunaz hitz egin digu, elkarrekin korapilatu eta erresistentzia sareak izateaz: “gure artean saretuak gaudela iruditzen zait. Ni bollera bezala koka-



tzen naiz munduan, eta identitate batean kokatzen zarenean, identitate hori talde edo kolektibo baten baitan erakitzen da". Eta izan ahal izateko, kolektiboaren beharraz aritu da, ariketa indibidual batetik abiatu ezin den prozesu bat dela adieraziz: "Ez da posible identitate bat sortzea kolektibidaderik gabe, ezinezkoa iruditzen zait". Horra beraz, antolatzearen eta izatearen arteko lotura, bai eta identitateen izaera politikoa erakusten duen haria ere.

Lorek, Miruren bide beretik, uste du estrategiak sinbolikoan ere baduela gudu zelaia. "Uste dut, erresistentziak oso anitzak direla. Ideologia heteropatriarkaletik, heterosexualitatea erregimen politiko moduan azaldu beharrean 'identitate sexual' edo 'praktika sexual' soil modura agertzen da. Eta honek zera bultzatzen du: indibidualizatzea, hau da, ardura banakoongan jartzea eta eremu pribatura, eta beraz, ez politikora mugatzea. Zentzu honetan, bereizketa hori apurtzea erresistentzia askoren muinean aurkitzen da".

Lujanbiok zoru politikoaren ertzen berdefinizioa estrategia politikoa delaren ideia mahaigaineratzen du aipatzen duen ideia honetan. Hau da, heteropatriarkatuak politikoa dena eta ez denaren artean egiten duen banaketa hori auzitan jarri eta pertsonal eta intimoan kokatzen diren elementuak plaza publikora eta eztabaida politikora ekartzea, publiko/pribatu-intimo, ikusgarri/ikusezin, eztabaida-publiko/iritzi-pertsonal, eta beste hainbat



ausazko eta indarkeriazko banaketekin amaituko lukeelako. Eta zerbait politikoa bada, horren ardura guztiona delako.

Aurrekoaren bide antzekotik, Lorek honela jarraitzen du: “Oso garrantzitsua da agerian jartzea zer nolako kartzela den heteroarauaren baitan emakume bezala sozializatutakooi eskatzen zaiguna. Heteroarauak, emakumeon dominazio eta esplotazioa desira heterosexuletik eta maitasun erromantikoaren ideiatik eraikitzen du. Hortaz, erregimen heterosexualaren bitartez, emakumeak familietan rol horretan kokatuz, gizonak pribilegiatzen dira, ‘neskame’ bat aitortzen baitzaio senar bakoitzari”.

Familiaren egituraketari buruzko kritika ere badu Lorek, eta baita familiaren erdigunean egon beharko lukeenari buruzko iritzi argia ere. “Gure familiak, familia eredu nuklearra, lotura sexu-afektibo batean oinarrituz eraikitzen dira” eta honek erakusten duena da, harreman sexu-afektibo horiek garatzen dituzten desiren orientazioa “praktika zehatzez haragoko garrantzia duela. Horregatik esaten dugu laguntasuna erdigunean jarri nahi dugula, hau da, familiak (sostengu emozional-ekonomiko bezala ulertuta) laguntasunetik eraiki nahi ditugula”.

Miru bat dator Lujanbioren proposamenekin: “oso garrantzitsuak dira kolektiboa, lagunak eta aliatuak”. Eta bere usotez, “espazioa egotea oso garrantzitsua da” ere, baina proposamen batean jarri nahi izan du enfasia: “kaleak hartzea!”.




Heteroaraua egikaritzen eta egituratzen den espazio fisiko eta sinboliko garrantzitsuenetakoa da kalea. “Izan ere, kaleak bollera moduan hartzea, kalera atera eta taberna erdian musukatzen aritzea, festak egitea, *Queer Egunak*, *Drag King* edo *Drag Queen*-ez jantzita ateratzea kalera... Horiek denak egin dira; eta hor gaude”.

Asko izan dira, bai, Hernanin azken 15 urteetan kalea hartu, heteroaraua zartatu eta bizitza bizigarriak sortzeko espazioak bultzatze aldera izan diren ekintza, hausnarketa, *performance* zein festak. Eta garrantzi berezia izan dute Hernaniko LGBT pertsonen arnaguneak izate aldera. Elkarrizketatu askok, LGBT jendea antolatu eta ekintzak egiten jarraitzea estrategikotzat jo dute, baina ekintza horiek akzioz ala erreakzioz egiten diren galde-tu duenik ere egon da. Askok, akzio propioz, inoren aurka eta gure alde egin ditugun eta sortu ditugun espazio, ekintza eta hausnarketak izan direla uste izan dute.

Baina, badago, erreakzioaren erreakzioz funtzionatzen dugula uste duenik ere. Xabiren hitzetan, “uste dut, beste galdera honen bueltan jarri beharko ginakeela pentsatzen: ‘Guk nola bizi nahi dugu?’. Sortzailetasunetik egin-gu nuke gehiago; zeren ez zait iruditzen bestearen aurka joaten gurea lortuko dugunik. Eraldaketa lortuko badugu, gurea sortzetik izango da”.





ESKERRAK

Hernaniko Udalari eta Berdintasun Saileko teknika-
riei, Irantzu Jauregi eta Maialen Apezetxeari, lan hau egi-
teko proposamenagatik eta bide osoan zehar egindako
jarraipenagatik. Zuen pazientzia eta gertutasunagatik ez
balitz, lan honek beste itxura bat luke.

Berdintasun Kontseiluko kideei, herriko ahaztuen me-
moriam berreskuratzeko eta josteko egiten ari zareten lana-
gatik eta jarri duzuen gogoagatik.

Asteazkenak Komando-ko Maddi Zumalabe eta Jon Aran-
gureni, liburu honek ahots propioz hitz egin dezan iru-
diteria sortzeagatik eta zuen unibertsoaren zatitxo bat
hemen islatzeagatik.

Unai Iradiri, zuzenketa lanak zuregain hartzeagatik eta
eskaini diozun denboragatik.

Jauregiko *Etxetxo Larroxa*-ko familiari -Izaro, Olatz eta
Olaia-, zuen berrikuspen, solas eta babesaren prozesu osoan
zehar eskaintzeagatik. Honelako lanetan, idazlea kolektibota-
sunaren baitan katebegi bat soilik ez dela erakusteagatik eta,
bidea, hein batean, batera eta plazerez egiten laguntzeagatik.



Hiruki Larroxako hirugarren zutabeari, gure ahizpari, Joseba Gabilondo Marques “Txefo”. Lan hau ikuspegi kolektibo batetik abiatzen delako eta guretzat ezinbestekoa zarelako. Zure barruko argia beti gure eguzki!

Mila esker ere, era batera edo bestera idazketa prozesuan gure ondoan egon zareten guztiei. Zuetako bakoitzak egin dituen ekarpen, zuzenketa zein hausnarketak, lan hau bihurtu den hondartzako aleak izan direlako.

Eta batez ere, eskerrak zuei guztiei: Miren, Karmela, Mila, Ixiar, Atxur, Pilon, Gari, Luis, Amaia, Eric, Xabi, Lore, Aitor, Miru, Maria, Eñaut eta Erick. Beste norbaitena baino lehen, zuek guztiena delako liburu hau. Mila esker bihotz-bihotzez zuen hitzak, istorioak, hausnarketak eta bizipenak gurekin eskuzabaltasun osoz elkarbanatzeagatik.



